# goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

2014-10-03
EGUBAKOITZA
611. ZENBAKIA
14. URTEA
DOAKOA
GOIENA.EUS
TOKIKOM

## Gatzagako herritar guztiak erretratatuta, argazki bildumarako | 10

## Lizarralde txirrindulari bergararra, "sinistu ezinda" | 28

150 txirrinduzale gaixotasun mitokondrialdunak babesten | 29



Hondakin bilketa sistema berria, abiatzear Elgetan | 27



Hondakinen larrialdi-gunea automatizatuta Aretxabaletan | 22

# 60 langilek dihardute lanean Fagor Etxetresnetan

Arrasaten, Bergaran eta Eskoriatzan langile gehiago hastear dira | 4




Catako zuzendaria. | ENEKO AZKARATE



Aurrean, Garazi eta Lide Azkarate ahizpak; atzean, Jonatan Atxa, Martin semearekin; eta eskuinaldean, Inma Delgado, Martinen ama.

## MARITXU BADATOR, ZEU BAZATOZ?

Maritxu Kajoirekin 'eztanda' egingo du gaur Arrasatek | 12

JAGOBA DOMINGO

## "Sekula ez nukeen pentsatuko Stanford-eko bazkide izango nintzenik"



**Fernando Macho**
Ekintzailea | 7

## Txantxia, Oñatiko moneta soziala, gertu | 19



### SINADURAK


IÑIGO MURGIONDO | 8

8 | JOKIN BEREZIARTUA



AITZOL ITURBE | 25

26 | ANDERE ARRIOLABENGOA



MIKEL IRIZAR | 40

ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 4 | IRITZIA 6 | ELKARRIZKETA 7 | HERRIAK 10 | KIROLA 28 | KULTURA 31 | ZURE IRAGARKIAK 35 | TELEBISTA-IRRATIA 36 | EZKONTZAK 37 | ESKELAK 37 | NON-ZER 38




J. Carlos Guerra, 1 • Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai, 16 • Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

multiópticas
lehena zerbitzu optikoetan

# Nagusiek parte hartuz, herri lagunkoiak sortu

▶ Debagoienean ere ari dira bultzatzen 'Euskadi lagunkoia' izeneko ekimena
▶ "Zahartu ahala nork bere bizimodua izaten segi ahal izatea" da helburua


Arrasateko Olarte kalea; lehen planoan, bikote heldua umea eramaten. | JULEN IRIONDO

**JULEN IRIONDO** | ARRASATE

Inguru fisikoa eta soziala aztertu eta egin beharreko moldaketak proposatuz, "adinekoek eta, oro har, herritarrek Euskadiko udalerriak hobetzen parte har dezatela bultzatzea", "zahartu ahala nork bere bizimodua izaten jarraitu ahal izateko –ahal bezain modu aktiboenean eta autonomoenean"; horixe da Eusko Jaurlaritzako Gizarte Zerbitzu Sailak, Matia Institutuaren laguntzarekin abian jarritako *Euskadi lagunkoia* ekimenaren helburua.

Jatorriz, Osasunerako Mundu Erakundeak (OME) bultzatutako egitasmoa da –*Age-friendly environments programme*–, eta bateko eta besteko 250 dira dagoeneko Hiri eta Komunitate Lagunkoien Munduko Sarera batutakoak. Jaurlaritzaren nahia da Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako udalerriek ere *lagunkoi* izenda dezatela euren burua –izendapen horrek berekin dakartzan betekizun guztiekin–, eta prozesu guztia pertsona nagusien parte-hartzearekin egin nahi –behar; ezinbestez– denez, erretiratuen elkarteak ere inplikatu dira zeregin honetan.

Honela, Gipuzkoan, herrialdeko Jubilatu eta Pentsiodunen Elkarteak hartu zuen jaurlaritzako planaren garapenean jarduteko ardura; eta Debagoienak protagonismo berezia du honetan guztian. Izan ere, Debagoiena da lanketa hau egiteko Gipuzkoako jubilatuen elkarteak, hasera baten, aukeratu dituen hiru eskualdeetako bat, Debabarrenarekin eta Goierrirekin batera; abantaila batekin, gainera: Aretxabaletako Basotxo elkarteak egina duela –bere aldetik eta Jaurlaritzak asmoa martxan jarri aurretik– herriaren azterketa, nagusiekiko zenbateraino den lagunkoi ikusteko eta hobetu beharrekoak adieraziz.

## Zahartze aktiboa

*Euskadi lagunkoia* egitasmoa "zahartze aktiboaren paradigmaren pean garatzen da", Jaurlaritzako Gizarte Zerbitzu Sailetik diotenez: "Adinekoekin lagunkoia den inguruneak egiturak eta zerbitzuak berrantolatzen ditu, banakoen behar eta ahalmen ezberdinetara egoki daitezen, eta, hala, haien partaidetza sustatzen du", diote lagunkoitasunari buruz ari direla.

*Herri lagunkoi* izendapenari dagokionez, "ingurune integratzailea eta irisgarria da, pertsonen arteko bizikidetza eta adinekoen zahartze aktiboa sustatzen duena". Hauek dira, oraingoz, udalerri gisa Jaurlaritzaren *Euskadi lagunkoia* ekimenera atxiki direnak: Orio, Ordizia, Hondarribia, Idiazabal, Zumarraga, Gesaltza, Aramiñon, Erribera Goitia, Uribarri Gaubea, Beranturi, Lantaron, Koartango, Oka Iruña eta Zanbrana.

Euren burua lagunkoi izendatu nahi duten herriek, hala adierazten duen dokumentua sinatzearekin batera, ondorengo prozesua jarraitzeko konpromisoa hartzen dute: udalerriaren lagunkoitasun maila neurtzeko diagnostikoa egin, adinekoen eta gainerako herritarren iritziei jarraiki; diagnostikotik abiatuta, lagunkoitasun plana egin; planean jasotakoak martxan jarri; eta abian jarritako ekimenen eta prozesuko fase guztien ebaluazioa egin. Eta etengabeko hobekuntza helburu, prozesua behin eta berriz errepikatzea da planteamendua.

OMEren irizpideei jarraiki, zortzi dira lagunkoitasun mailaren diagnostikoa egiterakoan kontuan hartzen diren esparruak: garraioa –herri eta hirietan nahiz horietatik kanpo mugitzeko erraztasuna–; etxebizitza –bakoitzaren beharretara egokitutako etxebizitzak eduki ahal izatea–; parte-hartzea eta gizarte sarea –auzokoen arteko laguntza sustatzea–; errespetua eta barne hartzea –belaunaldi guztiek elkarrekin lan egitea–; herritarren parte-hartzea eta enplegua –herritar sentimendua eta pertsonen beharretara egokitutako enplegu malgua sustatzea–; komunikazioa eta informazioa –herri eta hiriek ondo pasatzeko, laguntzeko, ikasteko, gozatzeko... eskaintzen dituzten aukera guztiak ezagutzea–; gizarte eta osasun zerbitzuak –zer baliabide ditugun eta nola eska ditzakegun jakitea–; eta aire zabaleko lekuak eta eraikinak –leku publikoen erabilera sustatzea (parkeak, loretegiak, kiroldegiak, plazak...), horiek hobetzen laguntzea–.


Pedro Etxebarria, Aretxabaletan egindako txostenarekin. | J.I.

## Aretxabaletako esperientzia

Hain justu ere, irizpide horien arabera egin zuten Aretxabaletako azterketa ere, Basotxo erretiratuen elkartearen ekimenez. 2012. urtean Bilboko Euskalduna jauregian egindako jardunaldi batean gaiaren berri aurreneko aldiz jaso, eta herrian aproba egitea erabaki zuten, nahiz eta beste helburu nagusi batekin, sustatzaileetako bat izan zen Pedro Etxebarriak dioenez: "Solas egiten ikasteko saioetan ari ginen garai hartan, eta herriaren lagunkoitasun maila neurtzeko azterketa egitea egoki iruditu zitzaigun helburu horretarako". 21 laguneko taldea elkartu, herria ikuskatu eta behatu, eta bakoitzak bere iritziak emanaz jartzen zuten praktikan solaserako gaitasuna.


Euskalduna
Hileta Zerbitzuak







BEILATOKIA • ETENGABEKO ZERBITZUA • LORE KOROAK
ESKELAK • TRAMITE GUZTIEN BIDERATZEA

bai euskarari
zerbitzua euskaraz

Amilaga 39, Bergara • Tel./Faxa: 943 76 12 99 • e-posta: euskalduna@harrespil.net



Bide batez, baina, esandako lana egin zuten, eta herriaren ezaugarriak bilduz 66 orriko txostena osatu. Eta orain, Eusko Jaurlaritzak *Euskadi lagunkoia* ekimena martxan jarri duenean, lan hori aprobetxatzea erabaki dute, eta diagnostikoa egina dagoela baliatuz Aretxabaletako Udalari proposatu diote *Herri lagunkoi* izendapena egin dezala. Honen gainean, Ana Bolinaga alkateak Goienari adierazi dio ekimena begi onez ikusten duela, baina lanketa sakona eskatzen duela, eta aipatutako zortziak baino gehiago direla jorratu beharreko esparruak. Dena dela, Basotxokoekin –eta beste eragileekin– elkarlanean jarduteko borondatea agertu du alkateak, eta gaiari laster helduko diotela agindu.

Baina Aretxabaletan bakarrik ez, Antzuolan ere ari dira urratsak ematen herriaren lagunkoitasuna –pertsona nagusiekiko– handitze aldera. *Tipi-tapa* ekimenarekin dihardute han: hiru irteera egin dituzte herrian, eta laugarrena egitekoak dira, hobetu beharrekoak detektatzeko; argazkiak atera eta txostena pasatzen diote Udalari.

Orain, ordea, lehendik egiten ari diren ekimen honi ikuspegi orokorragoa eman eta zortzi esparruen araberako lanketan jarduteko hamar laguneko taldea ari dira sortzen. Udalarekin batera jardutea da asmoa, nahiz eta *Herri lagunkoi* izendapenarena aurreragorako utzi, Landatxope erretiratu elkarteko presidente Genaro Laskurainen arabera.

Kontuak kontu, antzerako ekimenak bailara osora zabaldu nahi dituztela dio Pedro Etxebarria sustatzaileak: "Nagusiok badugu zer esan gizarte honetan; protagonista garela, alegia".



Arrasaten egindako bilkura; Jose Riviere, manifestua irakurtzen. | J.I.

## Aldarrikapenak, Nagusien Egunean

NBEren ekimenez, 1991. urtean ospatu zen lehen aldiz Pertsona Nagusien Nazioarteko Eguna. Harrezkero, urtero aprobetxatu dute urriaren 1a nagusiekin lotutako aldarrikapenak egiteko. Jubilatu eta Pentsiodunen Gipuzkoako Elkarteak ere bat egiten du, eta iragan eguaztenerako bilkurak deitu zituzten udaletxe aurreetan. Debagoieneko hainbat herritan ere egin zen, eta Arrasatekoan, adibidez, Abaroa elkarteko presidente Jose Rivierek –Gipuzkoako elkarteko buru ere badena– irakurri zuen manifestua.

**Gipuzkoako manifestua**

Bertan esaten zen Gipuzkoako elkarteak sustatzen duela "gizarte bat non adinez nagusiak gai diren bertan aktiboki parte hartzeko"; baita ere, sustatzen duela "bizitzaren azken etapaz" eta "merezi dituzten "eskubideez" gozatzeko aukera emango liekeen gizartea. Aldiz, "tristea" deritzote politikarien hainbat erabakiri, eta ardura erakusten dute; "gutaz ahaztu dira", diote, hiru gai konkretu aipatuz: "Nabarmen murriztu" dela pentsiodunen erosahalmena; berrordainketa ere ari direla sufritzen; eta pentsiodunak direla askotan familien sostengu, "bai zuzenean diruz lagunduz, bai zeharka ilobak zainduz, horrek gurasoentzat dakarren lasaitasun ekonomikoarekin". Eta ondorengoa ere bazioen gero manifestuak: "Aipatutako guztiagatik, gure ordezkari politikoei eskatzen diegu gure taldearekiko jarrera positiboa manten dezatela, eta ahal duten neurrian kontuan har dezatela zaharkitzea bizitzako fase bat dela, eta halabeharrez iritsi nahi dugula bertara, baina ahal diren egoera eta arreta hoberenekin".

**ESANAK**

### "Herriaren lagunkoitasun azterketa egitea egoki iruditu zitzaigun"

### "Nagusiok badugu zer esan gizarte honetan; protagonista garela, alegia"

**PEDRO ETXEBARRIA** | BASOTXO

**LIDE AMILIBIA**
EUSKO JAURLARITZA

## "Nahi ditugu eskaini beste espazio batzuk, euren ekarpena egin dezaten"



IREKIA

Gaur egun, %20,2 da 65 urtetik gorakoen portzentajea Euskadin; 2050 urterako, berriz, hamarretik hiruk izango dituzte erkidegoan 65 urte baino gehiago. Datuotatik abiatuta erantzun ditu Goienaren galderak Jaurlaritzako Gizarte Zerbitzuetako zuzendariak.

**Zergatik da beharrezkoa *Euskadi lagunkoia* bezalako egitasmo bat?**

Nahikoa gizarte zahartua gara. Eta proiektu hau da adineko pertsonen aktibazioa lantzeko eta parte-hartze prozesuak martxan jartzeko. Adinekoak aktiboago izango dira eta erosoago ibiliko dira auzo, kale eta herri irisgarriak–eta egiten badituguLEta, honez gain, gai baldin bagara parte-hartze prozesu hauetan adineko pertsonak eta gazteak harremanetan jartzeko eta elkarri laguntzeko, askoz hobeto. Beraiek protagonista izatea nahi dugu, aktibo mantentzea eta gizarteari duten jakinduria helaraztea.

**Gabeziak sumatzen ziren orain arte?**

Orain arte ere egon dira ekimen oso garrantzitsuak, erretiratuen elkarteenak... Baina badago beste soslai bat, agian gazteagoa, ez duena topatu orain arte euren txokoa aktibo mantentzeko. Eta guk nahi ditugu eskaini, orain arte egindakoak kontuan hartuta eta balioan jarrita, beste espazio batzuk, eurek ere euren ekarpena egin dezaten.


# ATERA ARGAZKIA

**HERRIKO PLAZA | PHOTOCALL**

URRIAK 3, 12:30ETIK 14:00ETARA ETA 17:30ETIK, 19:30ERA

Argazkiak Goiena.eus atarian egongo dira ikusgai, eta Whatsapp bidez jasotakoak ere bai.

**PARTE HARTU ETA BIDALI ZURE ARGAZKIAK**
WHATSAPP: **688 69 00 17**









**BABESLEAK:** Sikol lentzeria | xarma edertze zentroa | lentzeria Bea | kapikua opariak eta osagarriak | LIRAIN estetika zentrua | Takolo autoak

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA goiena



Catako eta Gipuzkoako Diputazioko eta Debagoieneko Mankomunitateko ordezkariak atzo, eguena, Arrasaten. | ENEKO AZKARATE

# 60 langilek dihardute Fagor Etxetresnendako

- Arrasateko Garagartzako eta San Andresko plantetan dihardute lanean
- Hil amaieran gehiago hasiko dira; besteak beste, Eskoriatzan eta Bergaran

**ENEKO AZKARATE** | DEBAGOIENA

Fagor Etxetresnetarako dituen asmoak betetzen ari dela adierazi die Gipuzkoako Diputazioko eta Debagoieneko Mankomunitateko buruei Francisco Martinek, Catako zuzendariak. Izan ere, Martin Garitano ahaldun nagusiarekin batzartu da Kataluniako enpresako ordezkaria Arrasateko San Andres auzoan, Fagorren lehengo plantan.

Dagoeneko 60 langile lanean hasiak direla eta hil amaieran Garagartza, Eskoriatza eta Bergarako lantokietan gehiago hasiko direla esan du Catako zuzendari orokorrak atzoko (eguena) bisitaren ostean.

Martin Garitanok, bestalde, Diputazioaren babesa eman die Cata enpresako arduradunei proiektu berri hori aurrera eramateko.

**Arrasate, Eskoriatza, Bergara**

Martinek adierazi du aurreikusitako bidetik doala Fagor Etxetresnetako jarduera industriala eta komertziala martxan jartzeko prozesua. Aktiboen eskualdatzea urriaren 8rako aurreikusita dagoela eta jarduera industriala eta komertziala urri amaieran abian jartzeko asmoa dagoela.

Gaineratu du hornitzaileekin harremanetan ari direla eta horren arabera joango direla langileak hartzen. Horregatik, hil amaierarako zenbat izango diren jakiterik ez dagoela, baina "kantitate inportantea" izango dela.

Bestalde, adierazi du erabakitakoa betetzen joango direla, era berean, Fagor Etxetresnetako kooperatibisten eta bestelako langileen gainean. Lantokien jardueraren inguruan galdetuta, adierazi du hil honen amaieran Garagartzako eta Eskoriatzako lantokien jarduera industriala martxan izango direla eta, horretaz gain, Bergarako lantokia ere abian jarriko dutela "erabat konfirmatuta" daukatela. Hori guztia erabat ziurtatuta daukatela, 2015eko aurrekontua lantzen dihardutela eta azaroan egongo direla hurrengo urratsak zeintzuk izango diren ziurtatzeko moduan.

**Makinak egoera onean**

Fagor Etxetresnetako Garagartzako makinak berriro martxan jartzeko orduan ustekaberik izan duten galdetuta, berriz, adierazi du ez dutela "arazo inportanterik" aurkitu orain arte, egoera onean daudela urtebete geldirik egon diren makinak eta ez dela oztopo bihurtu kontu hori.

Edesako lantokiaren gainean galdetuta, adierazi du lantegiaren beraren adjudikazioa oraindik egiteke dagoela eta erabakitzeko dagoela Edesako produkzioaren ze zati den bideragarria eta produkzioa non kokatuko den.

Eta produktu berrien markaren gainean, berriz, Martinek adierazi du hainbat markarekin abiatuko direla: "Fagor, Edesa, beste hirugarren batzuk eta, seguruen, baita CNA taldeko markaren batekin ere".

**Ahaldun nagusia "pozik"**

Martin Garitano diputatu nagusia ere agertu da hedabideen aurrean eta adierazi du pozik daudela, Fagor Etxetresnetako lantokiak itxi ostean langileekin batzartu eta hamar hilabetera berriro ere Fagorrera itzuli direlako.

Horrekin batera, eguaztenean Gipuzkoako Batzar Nagusietan Elena Franco Ogasun diputatuak esandakoa berretsi du Garitanok; hau da, Fagor Etxetresna Elektrikoek Gipuzkoako Ogasunari zor dizkioten 25 milioi euro errekuperatzeko esperantzarik ez dutela, "konkurtso legearen arabera, ez delako lehentasunezkoa".

Martin Garitano Gipuzkoako ahaldun nagusia eta Francisco Martin Catako zuzendari orokorraz gain, batzarrean izan dira Xabier Bengoetxea Fagor etxetresnetako Errektore Kontseiluko presidente izandakoa eta gaur egun Cata-Fagorren zuzendaritzan diharduena eta Diputazioko eta Debagoieneko Mankomunitateko beste ordezkari batzuk ere: Inaxio Azkarragaurizar Mankomunitateko presidentea eta Igor Ezpeleta Garapen Agentziako arduraduna; eta, Diputazioaren aldetik, Jon Peli Uriguen Berrikuntza diputatua eta Pedro Iturbe Lurralde Garapeneko zuzendaria.

Diputatu nagusiak gogorarazi du Aldundiak, Debagoieneko Garapenerako Agentziarekin elkarlanean, azken urtean 450 enpleguren sorrera sustatu duela eskualdean, gehienak teknologia arlokoak. Halaber, Garapen Agentziarekin batera, Debagoieneko "industria sarea hobetzeko eta lehiakor bihurtzeko ahalegінetan" ari direla.

Eta Garitanok adierazi du administrazio zentralak eta, bereziki, Gizarte Segurantzak "erantzukizunez" jokatu behar dutela, eta, epe motzerako planteamendu bat izateaz gain, kontuan eduki behar dutela Fagor Etxetresnetako jarduera berriro martxan jartzeak "onura" ekarriko diola gizarteari eta, gainera, baliabide berriak emango dizkiola Gizarte Segurantzaren diruzaintzari.

**Aitor Axpe Oianguren** | Eraikuntzako Lanbide Heziketa

## "Eskualdean 900 eraikinek baino gehiagok pasatu beharko dute ikuskaritza"

Eraginkortasun energetikoan adituak hezteko heziketa-zikloa eskaini du Arizmendi Ikastolak



Aitor Axpe, ikastolan. | UBANE MADERA

**UBANE MADERA** | DEBAGOIENA

Bi ikasturtetan, 2.000 orduko goi mailako zikloa landu behar dute Arizmendi Ikastolaren Lanbide Heziketan. Urriaren 15era arte eman daiteke izena.

**Eraikuntzan sortuko den beharrari aurre egiteko profesionalak behar direla diozue; zergatik?**

Eraginkortasun energetikoan profesionalak behar dira, eta etorkizun motzean eraikinaren ikuskaritza teknikoak egiteko profesionalak beharko dira. Jaurlaritzak esan berri du 2018ko ekainean 50 urte edo gehiago dituzten eraikinek ikuskaritza pasatuta eduki behar dutela. Gainera, eraikinean obrak egin nahi izanez gero eta horretarako diru laguntzak lortu, Jaurlaritzak EITa (ikuskaritza teknikoa) pasatzea behartzen du.

**Eskualdean ere sortuko da behar hori 50 urtetik gorako eraikinak egon badaudelako... ala?**

Bai. Gure eskualdean, 900 eraikinek baino gehiagok pasatu beharko dute. Norbaitek bere eraikinaren inguruan informazioa eskuratu nahi badu, webgune honetara jo dezake. *www.euskoregite.com/eu/*.

**Arizmendiren heziketa-zikloa, baina, zer litzateke, ikuskatzaileak hezteko ala eraginkortasun energetikoarekin lotutako profesionalak hezteko ere bai?**

Eraikinen Ikuskaritza Teknikoaz gain, eraginkortasun energetikoan trebatzen ditugu gure ikasleak. Baita puntako programa informatikoetan eta bioeraikuntzako ezagupenetan ere.

**Erakutsiguzu, datutan, eraginkortasun energetikoaren garrantzia.**

Hainbat faktore daude: lehena, Europak menpekotasun energetiko handia du. Kontsumitzen den energiaren %46 kanpotik ekartzen da eta gastatzen den energiaren %40 inguru eraikuntzan da. Hori ikusirik, Europak energia kontsumoa jaitsi egin nahi du eraikuntzan. Bigarren puntua $CO_2$aren igorpena jaistea da, airearen kutsadura txikitzeko. Hirugarrena, erabiltzailearen hileko edo urteko diru gastua murriztea, ingurumena zaintzea…

**Zeini bideratutako eskaintza da?**

Eraikuntza alorrean hasi nahi dutenei edo sakondu nahi dutenei ere bai; izan ere, arkitekto, arkitekto tekniko, ingeniari edo beste ziklo bat eginda dutenei ere begira dago, osagarri gisa. Bereziki, eraginkortasun energetikoan, programa informatikoetan, bioeraikuntzan… formatzen ditu. Eskolak irailaren 8an hasi ziren, baina matrikulatzeko epea urriaren 15ean amaitzen da. Izena Arizmendi Ikastolako Ferixalekuko idazkaritzan eman behar da, eta oraindik bada tokia.

## Atzera ere okerrera egin dute langabeziari dagozkion datuek

**ARANTZAZU EZKIBEL** | DEBAGOIENA

Langabezia datuek txarrera egin dute irailean. Debagoienean, irailean abuztuan baino 46 lagun gehiagok eman dute izena Lanbiden; bestela esanda, %12,49tik %12,65era pasa da langabezia tasa eskualdean.

**Hiru herritan, behera**

Debagoieneko udalerrien artean konparaketa eginez gero, Arrasate da tasarik handiena duen herria. Eta horren kontrara, eta datu orokorrek gora egin duten arren, Aretxabaletan, Bergaran eta Leintz Gatzagan, berriz, behera egin du langabezia tasak.

**HERRIZ HERRI**

| HERRIA | LANGABEAK | EHUNEKOA |
|---|---|---|
| Antzuola | 103 | %9,44 |
| Aretxabaleta | 337 | %9,97 |
| Arrasate | 1.676 | %16,18 |
| Bergara | 838 | %11,95 |
| Elgeta | 57 | %10,52 |
| Eskoriatza | 260 | %12,76 |
| Leintz Gatzaga | 11 | %8,15 |
| Oñati | 488 | %9,30 |
| **GUZTIRA** | **3.770** | **%12,65** |

ITURRIA: ESPAINIAKO ENPLEGU ZERBITZU PUBLIKOA

# Debagoieneko **OSASUN ZERBITZUAK**

## AKUPUNTURA

**INTEGU**
Arrasate / Uarkape 18, behea, ezk / 943 77 13 34

## ALBAITARIAK

**ETXEBERRIA JULIO**
**(DEBAGOIENEKO ALBAITARI OFIZIALA)**
Bergara / 609 54 16 13

## DENTISTAK

**ANE LASAGABASTER**
Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

**AGIRRE HORTZ KLINIKA**
Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

**ARANBURU HORTZ KLINIKA**
Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

**ARRASATE HORTZ KLINIKA**
Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

**ARREGI HORTZ KLINIKA**
Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behea / 943 79 71 90

**BERGARA HORTZ KLINIKA**
Bergara / Bidekurutzeta 36, behea / 943 76 05 77

**CAVIGLIA SILVANA**
Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

**GOROSABEL J. ALBERTO**
Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

**IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANDO**
Arrasate / Iturriotz 7 – 1 / 943 79 69 45

**IRIARTE IDOIA**
Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65
Elgeta / Torrealdea 2 behea ezk. / 943 76 80 06

**MAZMELA BOLINAGA ENRIKE**
Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

**SAINZ MALKORRA ANA**
Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

## DERMATOLOGIA

**TAMAYO CONCEPCION**
Oñati / Atzeko kalea 6 behea
620 12 48 43 / 943 71 61 82

## ENTZUMEN ZENTROAK

**INSTITUTO OPTICO – BIOACUSTICA**
Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

## ERREUMATOLOGIA

**GOROSARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA**
**TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA**
Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

## HOMEOPATIA

**AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)**
Arrasate / Nafarroa etorbidea 11
943 08 11 00 / 695 78 19 21

## KIROPRAKTIKA ZENTROA

**LARRAÑAGA ANDREA**
Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

## LOGOPEDIA

**PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA**
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

## MASAJISTAK

**AZPEITIA IRUNE**
Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43

## NEUROLOGIA

**AGUSTIN SAGASTA (AITA MENNI OSPITALEA)**
Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

## OPTIKAK

**BEGIONDO OPTIKA**
Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

## ORTOPEDIA

**MARIA VICTORIA ANITUA**
Aretxabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

## OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

**UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA**
**(ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)**
Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

## OSTEOPATIA

**BENGOA NEREA**
Arrasate / Erdiko kale 22, 3 ezk / 659 58 66 89

## PODOLOGOAK

**ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA**
Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk. / 943 79 97 46

**IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA**
Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

**OINEZ PODOLOGIA KLINIKA**
Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

## PSIKOLOGOAK

**ARKAITZ IRAZABAL PSIKOLOGO KLINIKOA**
Bergara / 646 06 28 18
arkaitz.irazabal@gmail.com

**GARMENDIA LANDER**
**PSIKOLOGO KLINIKOA - PSIKOTERAPEUTA**
Arrasate / Obenerreka 2, 7H / 943 79 35 86 / 669 10 13 93

**NUÑEZ TXOMIN**
Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

**PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA**
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

**VICENTE HUESO PSIKOLOGO KLINIKOA**
**(AITA MENNI OSPITALEA)**
Arrasate / Uribe auzoa 13-14/ 943 79 44 11

## PSIKIATRIA

**IÑAKI MADARIAGA (AITA MENNI OSPITALEA)**
Arrasate / Uribe auzoa 13-14/ 943 79 44 11

## YOGA

**SAMADHI YOGA**
Bergara / Masterreka 13, behea
943 76 11 38 / 639 23 57 53.

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 25 05 05** zenbakira.

# Euskaraz berba egiten laguntzeko: mintzapraktika

Eskualdeko mintzapraktika egitasmoetan izena emateko epea zabalik dago

M.T. / U.M. | DEBAGOIENA

"Inguruan badira euskara dakiten lagun asko, baina egunerokotasunean euskaraz aritzeko saltoa emateko zailtasunak aurkitzen dituzte (...) Horren harira, aurten dei berezia egin nahi diegu hiztun berri direnei, egunerokotasuna euskaraz bizitzeko pausoa eman nahi dutenei. Mintzapraktika taldeetan parte hartu eta salto hori eman dezaten. Gaitasuna hobetu eta lotsa galduz".

Berba horiek erabili dituzte asteon Debagoieneko mintzapraktika egitasmoen izen-ematea zabaldu dutela jakinarazteko. Era berean, azpimarratu dute "euskaraz hobeto eta gehiago aritzeko, eta euskal hiztunak biderkatzeko" ez dela magiarik behar. "Trukua norberaren baitan dago: euskaraz berba egitea (...) Eta horretarako laguntza eskaintzen du programa honek", adierazi dute martitzenean Arrasaten emandako prentsaurrekoan bailarako euskara elkarteetako, udal euskaltegietako eta hainbat udaletako ordezkariek. "Mintzapraktika programek euskara praktikatzeko aukera ematen diote euskaraz moldatzeko maila izanda ere bere inguruan euskaraz berba egiteko aukerarik ez duen pertsonari; izan daiteke ikasle, irakasle, euskaltegietako ikasle...", esplikatu dute.



Udal Euskaltegi, euskara elkarte eta udaletako ordezkariak. | MAIALEN TORRES

**Ahaztuta dutenendako ere bai**

Horrekin batera, gogorarazi dute mintzapraktika saioak berba-kideen zaletasun, adin eta ordutegien arabera moldatzen direla, eta, normalean, talde txikiak osatzen direla, euskaldun zahar bat eta praktikatu nahi duten beste bat, bi edo hiru pertsonarekin. Egitasmoaren bultzatzaileek gaineratu dute euskaldun zaharrek ez dutela zertan irakasle izan, nahikoa baita "era naturalean eta pazientzia apur batekin" aritzea. Azken batean, helburua edo egitekoa da "astean ordubetez taldean elkartzeko prestutasuna izatea", azpimarratu dute, ekimenean parte hartzea oso erraza dela agerian jarrita.

Eta ildo beretik, gogora ekarri dute talde bakoitzak bere behar edo gustuen arabera antolatzen duela asteroko ordubetetxo hori: "Batzuk elkartzen dira tabernan edo zer edo zer hartuz, baina beste batzuk paseatzera joaten dira, edo pilotan jokatzera. Kontua da konfiantzazko giroan eta lagun giroan euskaraz berba egitea (...) Euskaltegian ikasten dabiltzanendako aukera paregabea da, baina baita ere umetan euskaraz egin eta gero ahaztuta dutenendako. Halako pertsonak ere badabiltza, eta oso aukera ona da euskara praktikatzeko modu naturalean, euskaltegitik kanpo", adierazi dute.

**IZEN-EMATEA**

| ELKARTEA | HELBIDEA |
|---|---|
| **ARRASATE** AED elkartea | 943 77 12 28 edo Pablo Uranga kalea |
| **OÑATI** Udal Euskaltegian | 943 78 24 96 edo Bidebarrieta kalea, 18 |
| **BERGARA** Jardun elkartea | 943 76 08 19 edo Errotalde jauregia |
| **ARETXABALETA** Loramendi elk. | 943 77 09 70 edo Durana kalean |
| **ESKORIATZA** Kultura etxean | 661 74 63 76 edo Hidalga kalean |

# Arkauz presoaren egoerak "kezka larria" piztu du

UBANE MADERA | ARRASATE

"Gure ustez, neurri horrek larriki urratzen ditu preso arrasatearraren giza eskubideak, eta berehala egoera honekin, Keparen bakartze erregimenarekin amaitzea eskatzen dugu". Arrasateko Udaleko EH Bilduk, Aralarrek eta EAJ-PNVk eskatu diete hori gutun bitartez Laurence Le Vert epaile frantseserari eta Frantziako Villepinte espetxeko zuzendariari, Kepa Arkauz Zubillaga preso arrasatearrari joan den ekainaren 6az geroztik ezarritako bakartze egoeraren harira. "Kontsideratzen dugu bakartze egoera horrek larriki urratzen duela Kepak espetxealdia baldintza duinetan betetzeko duen eskubidea", esplikatu dute hiru alderdi politikoetako ordezkariek.

**"Dispertsio politika"**

Halaber, azpimarratu dute egoera horrek eurengan "kezka larria" sortzen duela, eta horregatik eskatzen dute "gizalegez" joka dezaten eta euren esku dagoena egiteko "dispertsio politikarekin amaitzeko".

CAMBRIDGE ENGLISH
Language Assessment

Authorised Centre
Cambridge ESOL Examinations Centre ES438

ABENDUKO DEIALDIA
AZTERKETAK ARRASATEN, EIBARREN eta DURANGON

MATRIKULAK
Urriaren 1etik 17ra

AZTERKETA DATAK

**FCE** **Idatzia:** LARUNBATA Abenduak 13 **Ahozkoa:** Data zehazteke: azaroaren 21etik abenduaren 15era bitartean.
**CAE** **Idatzia:** LARUNBATA Abenduak 13 **Ahozkoa:** Data zehazteke: azaroaren 21etik abenduaren 15era bitartean.
**CPE** **Idatzia:** OSTEGUNA Abenduak 4 **Ahozkoa:** Data zehazteke: azaroaren 14tik abenduaren 7ra bitartean.

INFORMAZIOA ETA MATRIKULAK

| | | |
|---|---|---|
| ARRASATE: | Parlance | 943 77 06 83 |
| BERGARA: | Espolon School of English | 943 76 03 53 |
| EIBAR: | Anglo-American | 943 20 64 57 |
| | Link Idiomas | 943 20 39 59 |
| ERMUA: | Akerlei | 943 17 66 32 |
| ELGOIBAR: | Kensington School of English | 943 74 02 36 |
| | Key Academia de Inglés | 943 74 30 44 |
| OÑATI: | Academia Sheila Fritz | 943 78 20 91 |
| ONDARROA: | Howdy | 96 683 23 79 |
| DEBA: | Akabi | 943 19 16 79 |
| | North Street English | 943 19 25 00 |
| DURANGO: | San Jose Maristak | 94 681 00 58 |
| MENDARO: | Akabi | 943 75 50 55 |
| MARKINA: | Chatterbox | 94 616 96 39 |
| ELORRIO: | Ontrack Hizkuntza | 94 658 46 73 |
| BERRIZ: | Speak up | 94 622 52 94 |
| ZUMAIA: | Golden Gate | 943 86 50 20 |
| MUTRIKU: | Gogoz | 943 60 43 58 |

Fernando Macho | Ekintzailea eta nazioartekotzean aditua

# "Gure aplikazioak ahalbidetzen du osasunaren gaineko edozein zalantza bat-batean argitzea"

▸ Stanford-eko unibertsitatea bazkide duen proiektu bateko ugazaba Arrasaten izan da

▸ "Aplikazioa erosteko eskaria egin zigun Applek, aplikazioa IOSen jarri eta egunetara"

**ENEO AZKARATE** | ARRASATE

Webgune eta aplikazio berezi eta arrakastatsu baten izena da *MedWhat*. Medikuntza eta osasun arloko galderei bat-batean erantzun zehatzak ematen dizkiena. Euskaldun bat dago horren atzean: Fernando Macho (Santurtzi, 1964). Munduko unibertsitate ospetsuenetako bat da proiektuko bazkide, Stanford-ekoa, eta Applek aplikazioa erosi nahi izan zuen, abian jarri eta sei egunera. Fernando Macho Arrasaten izan da egunotan, Mankomunitatean, nazioartekotzearen gaineko eskola bat ematen.

***MedWhat*-en sortzaileetako bat zara, teknologia berriak eta medikuntza edo osasuna uztartu dituen aplikazioa eta webgunea. Zer da?**

Teknologia berriak oinarri hartuta, osasuna eta medikuntza aintzat hartuko dituen adimen artifizialeko lehen plataforma eraiki nahi izan dugu. Gure webgunea edo aplikazioa erabilita, ahalbidetzen diogu edozein pertsonari, besteak beste doan delako, osasunaren eta medikuntzaren gaineko edozein zalantza argitzea. Horretarako, erabiltzen dugu web semantiko erreala, adimen artifiziala eta bio-informatika, osasunaren eta medikuntzaren alorrean. Alor horiek guztiek bat egin izanak egiten du berritzaile eta interesgarri gure proposamena.

**Ohiko erabiltzaile batek ze etekin aterako dio erremintari?**

Eguneko 24 orduetan eta urteko egun guztietan, erabiltzaileen kezkei erantzuteko gertu dagoen mediku birtual bat da gure erreminta. Edozein pertsonak, modu libre eta doakoan, edozein galderari erantzuna aurki diezaioke, eta galdera izan daiteke nahi beste konplikatua. Erremintak erantzuna emango dio, berehala. Erantzun zehatza, zientifikoki bermatuta. Osasun edo medikuntza alorreko munduko datu baserik onenak erabiltzen ditugu horretarako. Ingelesez askoz ere erantzun gehiago ematen ditugu, oraingoz. Logikoa da, munduan ingelesa delako nagusi eta, bestetik, medikuntza edo osasun alorreko datu baserik onenak ingelesez daudelako.

**Interneteko edozein bilatzailek ez du egiten hori?**

Makro-bilatzaileetan horrelako bilaketa bat egiten badugu, hainbat lotura edo webgune aurkituko ditugu. Egoerarik onenean, edo bilatzen dugun erantzun egokiena ematen digun webgune horrekin topo egitea lortu badugu, berriro klikatu beharko dugu. Gure kasuan, zuzenean ematen dugu erantzun zehatza, behin eta berriro klikatzen ibili beharrean.

**Mediku birtual moduko bat dela diozu, baina zelan hartu dute medikuek erreminta hau?**

Gure produktuak ez du medikua ordezkatzen. Adibide bat: gaur egun bi milioi bilaketa egiten dira sarean, edozein gailu erabilita eta edozein gairen gainean. Eta galderen edo bilaketen %70 baino gehiago osasunarekin edo medikuntzarekin zerikusia dute. Argi dago, hortaz, jakingura edo behar bat badagoela. Kezka, jakingura edo behar horiei erantzuten diegu. Hau esanda, uste dugu erreminta erabilgarri eta lagungarria dela, erabiltzaile arruntarendako ez ezik, medikuntzaren edo osasunaren alorreko profesionalendako ere. Hutsezinezkoagoak izaten laguntzen diegu.

**Zergatik izan duzue horrelako arrakasta?**

Gaiak berak sortzen duelako jakingura eta, inportanteena, asmatu dugulako uztartzen teknologia ezberdinak. Bestetik, esan dudan moduan, erabiltzailearen jakingurak edo premiak asebetetzen ditugulako, bilatzaile arrunten kontrara. Galderei ez dizkiegu hogei lotura eskaintzen, baizik eta erantzun zehatz eta zuzenak. Gainera, hizkuntza naturalean egiten dugu hori. Hartzaileen eta emaileen artean harreman zuzen, egoki eta praktikoa lortzen dugu, eskaera handi bati behar den moduan erantzunda. Gainera, medikuntza alorreko profesionalei lagungarria zaie, haien jakinduria edo diagnostikoetan zehatzago izaten lagunduta. Ez da logikoa erreminta honen aurka posizionatzea. Guk ez dugu esaten *MedWhat* erabiliz medikuarengana jo beharrik ez dagoenik. Alderantziz, diogu osasun arazoren bat daukagunean, medikuarengana joan beharra dagoela. Baina, bestalde, osasun zerbitzuak kudeatzen dituztenendako aurrezpena ekar dezake erremintak. Horretan lagun dezake.

**Euskal enpresa bat da zuena, baina bokazio globala duena. Eta enpresa handi eta boteretsu hainbatek erakutsi du erremintarekiko interesa. Zela lortu duzue?**

Berezkoa dugu nazioartekotzea eta berrikuntza teknologikoa, eta mundua edo merkatu globala hartu dugu aintzat gure produktua merkaturatzean. Ez dago muga geografikorik. Bi lagun gara sortzaileak, Arturo de Besa eta ni neu. Eta nire bazkideak Ameriketako Estatu Batuetan egiten du lan. Hortaz, gure asmoa, hasieratik, izan da Silicon Valley eta, zehatzago, Stanford-eko unibertsitatea izatea jomuga. Eta, bistan denez, estrategia ondo atera zaigu; izan ere, gure proiektuarekiko interesa agertzeaz gain, eta unibertsitateko ateak irekitzeaz gain, lortu dugu erreminta handik irtetea eta unibertsitateko eskolak, liburutegiak eta ospitaleak gure aplikazioa erabiltzea. Horrek sinergia aberasgarriak sortu ditu. Eta duela gutxi unibertsitateak eskatu digu bazkide izatea *MedWhat*-en. Sekulakoa da hori.

***MedWhat* aplikazio eta webgunearen salmentatik handia egiteko bidean zaudete?**

Bueno, egia esan, oso pozik gaude ikusita noraino heldu garen eta aurreikuspenak zeintzuk diren. Sekula ez nukeen pentsatuko Stanford-eko unibertsitateko bazkide izango nintzenik. Ez dezagun ahaztu, datu bat ematearren, 58 Nobel saridun pasa direla handik. Eta bestetik, aipatu nahi dut aplikazioa Appleren IOS sisteman egin genuela lehenbizi eta publikatu eta sei egunera erosteko eskaria egin zigula Applek. Zuk badakizu zer den hori? Baina ez genuen eskaintza onartu! Eta ez zen izan bilbotarrak garelako... Horrek sekulako bultzada eman zigun. Microsoft eta Orange ere atzean ditugu. Azken hau, esaterako, gure bezero eta inbertitzaile da.

**Zein da zuen negozio eredua?**

Erabiltzaileari ez diogu kobratzen eta publizitaterik ez dugu egiten. Gure bezeroa da lana erraztuko diogun eta modu efizienteagoan lan egiten lagunduko diogun hori: osasun zerbitzu publikoak, medikuntza aseguru pribatuak... Azken hauei, esaterako, bezero izan ditzakeen horien gaineko informazio zehatza emango diogu. Era horretara, tarifak murriztu ahalko ditu errentagarritasuna galdu barik. Osasun zerbitzuei ere lagungarri zaie baliabideak egokiago erabiltzeko. Esaterako, anbulatorio edo osasun zerbitzuren bat non kokatu hobeto erabakitzeko baliagarria izango zaie. Azken finean, bezeroa, herritarra, edo haren premiak, kezkak, hobeto ezagutzen lagunduko diegu.



Fernando Macho martitzenean Arrasaten. | ENEKO AZKARATE

**"Microsoft eta Orange ere atzean ditugu, aplikazioa erosi nahian"**

**"Sareko kontsulten %70 baino gehiagok osasunarekin zerikusia dute"**

**"Erabiltzaileari ez diogu kobratzen eta publizitaterik ez dugu egiten"**

**"Erantzun zehatza eta zientifikoki ondo bermatuta eskaintzen dugu"**

**Elkarrizketa osoa:** eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.

## ZABALIK



**IÑIGO MURGIONDO**
goiena.net/komunitatea/

# Korrika egiteko zapatilak?

Badira handiak eta txikiak. Badira koloretsuak eta kolore bakarrekoak. Badira politak eta itsusiak. Badira garestiak eta merkeak. Badira pisutsuak eta arinak. Hainbat gustukoak ditugu; beste hainbat, berriz, ez horrenbeste. Baina guztiak dira korrika egiteko zapatilak.

Zapatilak beste toki daude berauek erabiltzeko: kalea, mendia, basoa, hondartza, gimnasioa, zelaia... Norberak hautatzen du non duen gurago korrika aritzea; norberak hautatzen du zenbat denboran duen nahiago korrika aritzea; norberak hautatzen du zein intentsitaterekin duen gurago korrika aritzea. Norberaren lana da, beraz, aurreko ezaugarriak kontuan hartuz, egingo dugun ariketa fisikoa norbanakoaren ezaugarri fisiologikoetara doitzea: pertsonok ezberdinak gara, zapatilak bezalaxe.

> **"Bada oinetako onena, politena, egokiena aurkitzen saiatzen denik"**

Zapatilok dira gure oinen eta lurraren arteko kontaktuaren jabe. Pausu bakoitzean frikzio bidez aurrera, atzera, eskuinera eta ezkerrera joatea ahalbidetzen digutenak, akzio-erreakzio legea errespetatuz.

Oinen eta lurraren arteko harreman azkar eta bizi horrek sortzen duen lasterraldia erabiltzen dugu askok ariketa fisikoa egiteko: korrika egiteko. Eta gehienok gara, guztiok ez esatearren, oinak ez mintzeko oinetako egokiak erabiltzen ditugunak. Oin bakoitzaren ezaugarrien arabera aukeratu behar dugu oinetako parea, oin guztiak ez dira berdinak eta. Baina egokitasun hori ez dugu guztiok era berean ulertzen; izan ere, kirolaren sasi-profesionaltasunaren garai hauetan, bada oinetako onena, politena, gustukoena, egokiena eta, zergatik ez esan, garestiena aurkitzen saiatzen denik.

Onena erosteko saiatze-aldi eta diru xahutzeok ez dute zertan zentzu askorik izan. Sinesten ez baduzu, adi! Abebe Bikila zenak 2h15'16" behar izan zituen 42 km eta 195 m-ko luzera zuen Erromako maratoia irabazteko. Eta ba al dakizu zer zapatila parea erabili zuen? Jaio zen une berean jantzita zituenak!

## USTEAK USTE

**JOKIN BEREZIARTUA** | jbereziartua@goiena.com

# "Ezin dozue euskaraz egin?"

Nola da posible? Ezin dozue euskaraz egin? Elkarrizketa bat bera be ez?", diosku lagun baten neskalagunak kuadrilla osoari. Eztanda egin du, eta ez zaio arrazoirik falta. Asteburuko poteoa da, zortzi bat lagun gara. Euskaraz hitzik ez denbora tarte luze baten, eta guztiak D ereduan ikasitakoak. Euskara gure ama hizkuntza izateko hezkuntza jaso arren, gazteleraz komunikatzen gara. Ez da berria, euskaraz aritzea salbuespena da gure kuadrillan Eta ziur nago ez garela bakarrak. Hain dago barneratuta, hain da ohitura errotua, esan diot ez dudala uste buelta emango diogunik: "Penagarrixa da", erantzun dit. Berriro ere, erabat ados nago zurekin.

## MARRAZKIZ

**ALEX UGALDE** | goiena.net/komunitatea/




## HANDIK ETA HEMENDIK

# "Ustezkokeriak"

**Maria Gonzalez de Gorosarri**
naiz.eus/eu/hemeroteca/gaur8/

Historian lehenengoz, indarkeria sexista jendaurrean salatzeko mugimendua zabaldu da. Ondorioz, hedabideak ere gaitzespen hori ikusgarri egiten hasi dira, baina albisteei jendartearen jite matxista darie. Hasteko, "ustezkokeriak" ohikoak izaten dira. Salaketa bera zalantzan ipintzen duen "ustezko erasoa" esamoldea erabiltzen dute barra-barra, erasoa gauza ziurra izan arren. Erasorik ez balego, albisterik ere ez zegokeen. Hortaz, "ustezko" berbaren erabilera egokia "ustezko erasotzailea" aipatzeko litzateke, epaitu arte, atxilotua erruduna ez delako.

Erasoa zalantzan ipintzen duen "ustezkokeriak", baina, emakumeek ipinitako salaketa faltsuen gezurra elikatzen du. Espainiako Epai Boterearen Kontseilu Nagusiak jakitera eman duenez, 2012an Espainian ipinitako sexu-erasoen salaketen %0'0038 faltsuak izan ziren. [...]

"Ustezkokeriek" sexu-erasoa salatu duten emakumeen sinesgarritasuna zalantzan ipintzen dute:

–"Ehunka herritarrek pasa den asteburuan Zarautz eta Getaria artean jazo zen ustezko eraso sexista baten aurka protesta egin dute" *(Gara,* 2013/03/25).

–"Beasainek elkarretaratzea egin du ustezko erasoa salatzeko: adingabeko batek egin zuen salaketa eta ustezko erasotzailea, 39 urteko gizona, ostiralean bertan atxilotu zuen Ertzaintzak" *(Berria,* 2014/02/18). [...]

Erasotzaileen eskubidea delako, gainerako lege-hausteetan bezala, izen-abizenik ez emateko legezko agindua dago. Epaitu bitartean, gainera, atxilotua "ustezko erasotzailea" izango da. Arazoa sortzen da erasotzaile batek jendarteari arriskua dakarkionean. Horrelakoetan, hedabideek erasotzailea argazkiekin identifikatzen dute:

–Dela atxilotu dutelako: "Detenido cerca de Salamanca el presunto asesino del hostelero de Rekalde: A la izquierda, Rufino P.A., presunto asesino de Iván Gómez" *(El Correo,* 2014/02/19).

–Dela Ertzaintza bere bila dabilelako: "La Ertzaintza busca a este hombre como asaltador a una joyería en el centro de Bilbao" *(El Correo,* 2014/02/03).

Behin epaiketan erruduntzat jo eta gero, izen-abizenak ematea eta argazkia plazaratzea ohikoa izaten da... sexu-erasoei buruzko albisteetan kenduta. Erasotzaileak identifikatzea ezinbestekoa da, nortzuk diren jakin dezagun, gure burua defendatu ahal izateko. [...] Salaketaren uneko albisteak epaiari buruzkoak baino sarriagotan plazaratzen dituzte. Erasotzailea ezaguna denean, ordea, epaiketa bera ere albiste bihurtzen dute, Oscar Pistorius kirolaria, esaterako. Horren antzera, Paul Abasolo Amantegi futbol jokalariak eragindako sexu-erasoengatik bere karrera kaltetuta ikusi zuen. Hiru urteko espetxealdia jaso zuela azaldu zuten hedabideek, bere izena aipatu barik eta argazkirik gabe. [...]

Indarkeria sexistak emakume guztiak ditu jomugan. Horregatik, jendartearen erdia mehatxupean bizitzea borrokatzen ez duen kazetaritzak ez dio inori ekarpenik egiten. [...] Erasotzen gaituzten gizon matxistak identifikatzea, gainera, gure burua defendatzeko baliabiderik eraginkorrena da, bizirik jarraitu guran tematu ei garelako.

goiena"
KOMUNIKAZIO TALDEA

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
**Lehendakaria** Aitor Izagirre
**Zuzendari nagusia** Iban Arantzabal

**Zuzendaria** Eneko Azkarate
**Erredaktore burua** Ubane Madera
**Sailetako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

**Maketazioa** Iñaki Iturbe, Kepa Martelo
**Argazkilaria** Imanol Soriano
**Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Imanol Elortza
**Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate.
**Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia.
**Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

**EGOITZA NAGUSIA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
berriak@goiena.com

**PUBLIZITATEA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09
publi@goiena.com

**HARPIDETZA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** SS-965/2014
**ISSN:** 2174-369X
**Tirada:** 20.100 ale
**Difusioa:** 19.951 ale

GOIENAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK
Gipuzkoako Foru Aldundia | Arrasateko Udala | Bergarako Udala | Oñatiko Udala | Aretxabaletako Udala | Eskoriatzako Udala | Antzuolako Udala | Aramaioko Udala | Elgetako Udala | Leintz Gatzagako Udala

**Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria**

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

## GUTUNAK

# Gastu handiegia hauteskundeetan

**Josu Garitaonandia**
(Oparitu Zuhaitz Bat taldekoa)
Bergara

31 milioi euro baino gehiago gastatu ditu Espainiako Estatuak Europako hauteskundeetan.

14 milioi gastatu dira hauteskundeen prestakuntza gastuetan (boto-txartelak, tokiak, hautetsontziak...); eta beste 17 milioi Europan eserlekua lortu duten partiduen artean banatuko da beraien hauteskunde gastuak ordaintzeko.

Diru larregi da hori, gauden murrizte eta krisi garairako.

Hauteskunde legea beti aldatu dute partidu politiko handiek beraien interesak defendatuz, partidu politiko txikiak kaltetuz, eta, orokorrean, demokraziaren funtzionamendu egokiaren kontra joan dira.

Diru publiko banaketa honetan gehien kezkatzen nauena da eserlekua lortu duten partiduen artean jaso dituzten boto bakoitzeko 1,08 euro ordainduko duela estatu espainiarrak denon diruarekin.

Horrenbestez, ez bada bozkatzen, gastu publiko txikiagoa dago.

Beraz, hau ez da era egokia gizartea animatzeko bozkatzera.

Nik hauteskunde legeak beste zentzu batera aldatuko nituzke; diru publikoa interes jeneralak defendatzeko erabili behar da.

Ez da partidu batzuena bakarrik, eta beti pentsatu beharko genuke nola gastatu diru gutxiago emaitza berak edota hobeak lortuz.

Hau guztia esanik, proposatzen dut hauteskunde garaian non  bozkatu behar dugun txartela korreoz jasotzen dugun bezala, jaso beharko genukeela aldizkari formatuko txosten bat informatuz zenbat partidu politiko dauden eta beraien ezaugarri nagusiak eta dagozkion boto-paperak bozkatzeko, aukera emanaz txosten horrekin korreoz bozkatzeko, eta gauzak sinplifikatu.

# Utzi gaitzazue bakean

**Koldo Mediavilla**
(Arrasateko EAJren Udal Taldeak euskaratua: Juan Karlos Garitano, Maria Ubarretxena, Ibon Arrupe eta Juan Ramon Mendieta)
Arrasate

Hasia da dagoeneko Auzitegi Nazionalean iraungitako Segi erakundeko 30 bat gazteren aurkako makro-epaiketa, orain dela ez asko Euskadin eta Estatuan harturiko salbuespeneko neurrien ildotik.

Gure lehenengo hausnarketa auzipetu berri hauen zoria beren aurrekoen berdina izango dela pentsatzea da.

Hau da, gustatuko litzaiguke denak kargurik gabe aske geratzea.

Hau esanda, eta Azpeitian gertaturikoa kontuan izanda, non bost auzipetu babestu egin ziren, Auzitegi Nazionalaren zitazioari entzungor eginez, eta ondorioz epailearen aginduz, Ertzaintzaren parte-hartzea behartu, kolektibo horri esan nahi diogu ez dezala berriro ere EAJren elkartasuna eskatu.

Ez iezaguzue guri eskatu injustizien aurrean laguntzeko.

Kokoteraino baikaude, azkenean, EAJ izatea zuen haserrearen jopuntu.

Utzi gaitzazue bakean.

Utzi baita ere Ertzaintza probokatzeari, errepresioarekin lotzeko asmoz.

Nahi baduzue, manifesta zaitezte Auzitegi Nazionalaren ateetan.

Burutu bertan zuen "herri harresia" eta erakutsi bertan zuen desobedientzia.

Kokoteraino gaude beti EAJ edo eta herrialde honetako instituzioak izatea zuen "erantzuna" eta zuen irainak jasotzen dituena.

Eta norbaiti Estatu Espainol zapaltzailearen morroi izatea leporatu nahi baldin badiozue, indarrean dagoen legalitatea obeditzen duten zuen ingurukoei esaiozue.

Ez prebarikatzeko legeak betetzen dituztenei, bandera espainola udaletxeetako balkoietan jartzen dutenei, despatxu eta moketa instituzionaletatik, iraultza alde batera utzita, txintik esan gabe ordenamendu juridikoa betetzen dutenei.

Eta azken gogoeta bat.

Loiola sinbolo politiko bat da. Bertan, indar politiko ezberdinak –EAJ, PSE, Ezker Abertzalea– denbora berri baten hasiera izan zitekeen adostasun puntu minimo bat aurkitzeko gai izan ziren.

Baina ez dezagun ahaztu ETA izan zela aukera hark porrot egitea eragin zuena.

Beraz, aukera galdu hura aldarrikatu nahi duenak erantzukizunak eskatu ditzala. Bai, "armazain nagusiari".

# Palmerakuen esker ona KDDren biharamunian

**Unai Ziarsolo**
(Palmerakuak MBTren izenean)
Bergara

Juan zan igandian Palmerakuak MBTkuok antolatu ginuan 2. KDDra etorri zinaten guztioi gure esker ona adierazi nahi dotzuegu, goiz polita pasa zinutelakuan gure herrixetako bidetuxurretan zihar.

Eskerrik asko, batez be, Arizondo argazkizale elkartekuei, euren parte hartze barik ezinezkua izango baitzan KDD.

Baitta be, Gaittao harategixa, Bolintxo okindegixa eta Imprespal inprenta, kobrau barik edo prezio onian eren produktuak ematiagatik, Elgetako MBTkoak Karabitxa inguruko bazterrak erakustiagatik eta Udala infraestrukturagatik.

Ez dittugu ahaztu nahi gure ibilbidia pasautako basuen lurjabe eta baserritxarrak, eskerrik asko zuen laguntziagaittik.

Baimen barik pasautako zenbait lekutako lurjabiei, berriz, barkatu eragozpenak, ez baitzan gure asmua inoren gogoz kontra jardutia.

Hobetzekuen artian, bestiak beste, Goiena komunikazio taldeari gure desilusinua adierazi nahi gountzake, 150 lagun elkartu dittuen eta inungo diru laguntza barik antolatu dan doako kirol ekintza honi ez jatzuelako gure ustez merezi daben koberturarik eskaini.

Bukatzeko, mendi bizikleta zaliek badakizue, domekero goizeko 9etan ibargaraiko palmeratik irtetzen ga mendiruntz, etorri bildur barik!

**Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio.**
Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

Zorionak, Marilu!




**Marilu Orueta Biain oñatiarrak irabazi du iraileko sari nagusia.**

**Arrasateko Eroski Hipermerkatuak emandako 32 hazbeteko LG telebista eraman du etxera.**

**GOIENA KLUBEKO ABANTAILAK:**
**Deskontuak komertzioetan:** Debagoieneko hainbat komertziotan deskontuak.
**Goiena papera:** Astelehenetan ere etxean jasoko duzu asteburuko informazio guztiarekin.
**Deskontuak:**. Goienan jartzen duzun iragarki sailkatu eta eskela guztietan.
Urteko bukaera arteko kuota: **15 €** | **943 25 05 05** | *kluba@goiena.com* | *goienakluba.com*

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

# HERRIAK




Jose Felix Diaz de Tuesta erretratua ateratzen Goierri auzoko San Martin goikoa baserrian. | MARTA LETURIA

## Herri baten 'gatza' erretratutan bilduta

Leintz Gatzagako bizilagun guztien erretratuak ateratzen dihardu eta haiekin bilduma egingo du Jose Felix Diaz de Tuesta arrasatear argazkilariak

**UBANE MADERA** | LEINTZ GATZAGA

Oso-oso herri gutxik izango dute Leintz Gatzagak laster izango duen moduko dokumentazio lan ezohiko eta originalik: herriko bizilagun guztien erretratu-bilduma, hain zuzen ere.

Oso udalerri gutxik izango dute halako bilduma bat, oso udalerri gutxiren eskura dagoelako halako lan bat egin ahal izatea. Bi arrazoirengatik: batetik, udalerriaren bizilagun kopuruak baldintzatu egiten duelako proiektua bera gauzatu ahal izatea; eta bestetik, lan hori egingo duen pertsona behar delako.

Bada, Leintz Gatzagak bi ezaugarriok betetzen ditu: 240 bizilagun ditu; proiektua egingarri egiteko besteko dimentsio txikia, beraz. Eta proiektu hori gauzatuko duen pertsona ere badu: Jose Felix Diaz de Tuesta argazkilaria (Gasteiz, 1953).

**Banakakoak**

"Nik Gatzagako 200 bat lagunen argazkiak ditut orain; onespena eman didaten batzuk falta dira, horiek urrian egiteko asmoa dut. Beste batzuk, berriz, badakit ezingo ditudala egin, ez dutelako nahi, eta hori ere normala da, guztiek ez dutelako zertan nahi izan halakorik; edozelan ere, gutxi batzuk dira horiek.

Pertsona bakoitzarekin hainbat argazki egin ditut. Batzuk bakarka, beste batzuk lagunekin eta beste batzuk familiekin. Edozelan ere, nik nahi dudana da bakarka dauzkadan argazkiekin bilduma bat egin. Hau da, pertsonako argazki bana. Izan ere, proiektuaren muina herritar guztiak ateratzea da, gatzagar guztiak banaka, eta bakarka. Hortik aurrera, posible da, adibidez, familiakako argazki batzuk sartzea bilduman, edo ez. Prozesua irekia denez, ez dut erabakita. Baina bakarka izango direla, bai, hori segurua da", esan du argazkilari arrasatearrak.

**Estudiokoak, "demokratikoak"**

Bestalde, argazkiok badute beste berezitasun ezohiko bat, halako lan baten ikuspegi estandarretik aldentzen den ezaugarria: argazki guztiak modu berean eginda daudela: Gatzagako pilotalekuan eta hondo beltz batekin.

"Hasieran pentsatzen nuen pertsona bakoitza bere lanean, etxean… dagokion testuinguruan ateratzea; topiko-estandarra hori izaten da. Baina horrek teknikoki arazoak sortzen zizkidan. Gatzagan, konkretuki, jende asko baserrian bizi da, baina beste asko kalean bizi da; eta hor desoreka sortzen zen. Hori horrela, alde teknikotik soluzio ona zen biztanle guztiak hondo beltz baten aurrean erretratatzea, denak berdin, testuinguru berean. Nolabait esatearren, erretratu "demokratikoak" egin ditut, kamera aurrean gatzagar guztiek testuinguru eta egoera berberak izan dituzte-eta. Era berean, horrek proiektuari beste ikuspegi bat eman dio, bat datorrena, adibidez, Alemanian-eta dauden argazki-joerekin", esplikatu du Diaz de Tuestak.

**Bilduma bai, baina zelakoa?**

Erretratuon bilduma zela egin, edo, hobeto esanda, zela aurkeztu, hori da argazkilariak erabat erabaki barik duen proiektuaren erpin bat. "Aztertu behar dut zela eman batasuna lanari. Badakit paperean argitaratzea oso garestia dela. Aukera hori ere aztertuko dut, baina zaila iruditzen zait. Leintz Gatzagan 80 familia izanda, asko jota familia bakoitzak liburu bat behar du. Eta 80 aleko tirada egiteak ez du zentzurik. Ez dut ikusten, momentuz behintzat, hortik joko dudanik. Hala ere, aztertu beharra dago. Ez dago ezer baztertuta. Errazago ikusten dut argitalpen digital bat egitea. Ondo landutakoa, bere nortasunarekin. Adibidez, bilduma bat egin daiteke, eta Interneten argitaratu".

Bilduma zela bataiatu, hori bai, hori erabakita dauka Jose Felix Diaz de Tuestak, hitz joko eran: *Gatza gara*.

Bestalde, eta bere lanak argia zela ikusiko duen ez dakien arren, argazkilari arrasatearrak badakiena da proiektuko parte diren guztiei emango diela berak ateratako argazki bana opari, formatu digitalean. Eta Udalari bilduma bere osotasunean emango diola, hari ere opari.

**Hartu eta eman**

Izan ere, *oparia* izan daiteke Diaz de Tuestak bukatzear duen lana definitzeko berbetako bat. Oparia, berari inork ezer eskatu barik dabilelako lan antropologiko eta sozial hori egiten. Eta oparia, baita ere, musu-truk egiten dabilelako lan hori guztia, eta etorkizunean ere inolako etekin ekonomikorik ateratzeko pentsamendu barik.

"Orain dela 20 urte, seguru aski, horrelako gauzarik ez nukeen egingo. Baina orain bada Internetek ekarri duen sentsazio edo egiteko modu berri bat: Interneten dabilen jende askok gauza asko egiten ditu doan. Eta iruditzen zait lan hau dela nik egin dezakedan ekarpen bat; nik gatzagarren beharra nuen lan hau egiteko, eta gatzagarrek lagundu egin didate. Egia esan, nire lan gehienak horrelakoak izaten dira. Adibidez, egiten ditudan Santa Agedako argazkiak taldeak hartzen ditu gero, eta ez zait bururatzen horiek kobratzea; bidean irabazten dudana interesatzen zait niri, ikuspegi sozialetik. Eta ez dut ezer kobratzeko asmorik. Hasieratik izan dut hori argi. Hori da nire filosofia", adierazi du Diaz de Tuestak.

---

**JOSE FELIX DIAZ DE TUESTA** | ARGAZKILARIA

### "Niretzat exotikoa izan daiteke aldameneko pertsona edo paisaia hori"

Zaletasuna du argazkilaritza Jose Felix Diaz de Tuestak. Zaletasun indartsua izan ere. Arrasaten 27 urtean bizi izan da (azken 8 urteotan, Oñatin), eta plaza horietan ezagunak dira paisaien gainean, edo urteko ospakizunen gainean lantzen dituen argazkiak. Datu esanguratsu bat: iaz, Maritxu Kajoiren bueltan argitaratu zituen Flickr–eko bere 200 argazkiek 700.000 klik izan zituzten.



MARTA LETURIA

**Orain arte egindakotik oso bestelakoa da, aldiz, Leintz Gatzagan lantzen diharduzun proiektua...**

Aurretik parte hartu nuen beste proiektu batzuetan, eta izan ziren itxi samarrak. Adibidez, bagenekien guztiak ere liburuak izango zirela, idatzizko argitalpenak: *Arrasate iruditan*, *Oñati iruditan*, Gesalibarko liburuxka... Bestalde, 2005az geroztik nabil Flickr–en, *Goiena.eus*–en eta *Mondraberri*–n argazkiak jartzen modu digitalean. Kasu guztietan, argazki guztiak dira paisaiak edo ekitaldienak; eta Gatzagakoa egitea pentsatu nuenean, bakarrik nekien gauza bat: ez nuela paisaiarik atera nahi, jendearen erretratuak atera nahi nituela eta herri bat zer den erakutsi nahi nuela euren bitartez.

**Kasu guztietan, edozelan ere, zure argazki gehienak hemen ingurukoak dira; arrazoi batengatik ?**

Ni ez naiz motibo exotiko–zalea argazkietarako. Askok nahiago izaten dute palmeradun hondartzak ateratzea, edo Asia inguruko bizilagunak... Niretzat exotikoa izan daiteke aldamenean duzun pertsona hori, paisaia natural hori edo paisaia urbano hori. Tarteka, oporretan kanpoan ibili naizelako–edo, ateratzen ditut bestelakoak ere, baina ez horren bila nahita joan naizelako, baizik eta oporretan horixe tokatu delako. Une honetan, adibidez, hiruzpalau proiektu ditut buruan, horiek lantzeko argazki ugari ere bai, eta guztiak dira gure inguruarekin zerikusia dutenak: Arrasateko paisaia natural eta urbanoak, Arrasateko urteko ekitaldiak eta nire argazki erreferentzialen bertsioak.

Eta ez kobratzeaz gainera, gastua ere eragin dio lantzen diharduen proiektu pertsonal horrek: Gatzagara egin beharreko joan-etorrietan, materialean…

**Hasieran, erabateko harridura**
Filosofia horrekin, dagoeneko bi urte eta erdi daramatza argazkilariak gatzagarren argazkiak ateratzen, bere denbora librean eta ahal duen eran, edo nahieran. Eta horren ondorioetako bat da erabat ezezagun izatetik herri guztiak ezagutzera pasa dela Diaz de Tuesta Arabako mugan dagoen udalerri horretan.

"Harridura. Horixe izan zen herritarren hasierako erreakzioa. Harridura. Jende gehienak ez ninduen ezagutzen orduan. Orain badakite zertara noan, eta beti galdetzen didate: 'Norbaiten bila zabiltza? Norbait harrapatu guran?'. Hasieran dena esplikatu behar duzu. Lehenengotan, adibidez, neu joan nintzen lagun batekin, eta berak niri egin zizkidan argazkiak, probak egiteko. Eta jendeak tipo bat ikusi zuen aparailu handi batekin, aterki batzuekin, hondo beltz batzuekin… 'Hau tipo hau zerbaitetan dabil' pentsatzeko beste izan zuten. Gero azaldu izan da Goienan… horregatik ere behar nuen denbora nire proiektua lantzeko orduan, jendea nire presentziara ohitzeko. Eta nik neuk ere behar nuen denbora buruan nituen ideiak lantzeko", azaldu du Jose Felix Diaz de Tuestak.

**Interesa?**
Harago ere joan da argazkilari arrasatearra: "Ez da bakarrik beste inork ez duela izan hau egiteko interesik, baizik eta gatzagarrek eurek ere lehenengo ez zioten interesik ikusten nire lanari. Inori ez zitzaion bururatu. Ni joan nintzenean, harrituta hartu ninduten. Eta oraindik ere banaka batzuek ez dute ondo ulertzen zertarako, arraro egiten zaie norbaitek nahi izatea eurak erretratatzea. Baina egia da gero segituan sartzen direla proiektuan".

Eta justu horrexegatik, gatzagarrek erakutsi dioten aldarte onarengatik eta bere proiektuan parte hartzeko erabateko prestutasunarengatik esker ona eman gura die; baita Udaleko langileei eta zeregin honetan lagundu dioten guztiei ere; izan ere, eta batez ere hasieran, herritarrekin harremanetan jarri eta batzuetan haiek konbentzitzeko bitartekari lanak egiten ibili diren lagun asko behar izan ditu Diaz de Tuestak.

**Zailtasunak**
Gainera, produkzioari dagokionez, berezko zailtasuna ere izan du argazkiok ateratzeak: "Bizkor egin behar dira argazkiak. Ezin duzu jendea arratsalde guztian zain izan, adibidez, pertsona horiek ere ez daudelako prest arratsalde oso bat hor egoteko, edo ezin dute. Adibidez, askotan izan dira adinduak, umeak… bakarrik etorri ezin den jendea. Horren ondorioz, argazkiak bizkor-bizkor egin behar dira. 10 bat minutuan egin beharra dago pertsona bakoitzaren erretratua, ordu laurdenean asko jota, ze jende gehiago izango duzu-eta zain. Eta era berean, ezin dira erretratuak errepikatu… beraz, horrek ere baldintzatzen du argazkien nolakotasuna. Baina nik horri ez diot ematen garrantzirik. Nik testimonio grafiko bat egin nahi nuen: bi urteotan Gatzagan ze jende bizi den, eta horiek iruditan jaso".

**Testigantzaren balioa**
Kontuak kontu, hori guztia dagoeneko eginda dago, laster argia ere ikusiko du eta etorkizunerako proiekzioa duen proiektua dela konbentzituta dago argazkion egilea: "Bertako biztanle bakoitzarentzat polita izangi dela uste dut, eta herriarentzat ere bai. Ikusten diot proiekzioa denboran. Hemendik 20-30 urtera egongo da dokumentu bat, adibidez, Arrasaten ez dagoena. Badira, adibidez, tribu urbanoen argazki-bildumak… oso politak. Artistikoki politagoak ere bai, baina oso bestelakoak dira, ez dira herri oso bat. Eta horregatik uste dut honek testigantzaren balioa duela, dokumental inportantea. Ikustea hemendik 20-30 urtera ia herri osoa argazkitan. Hori da nik bilatu dudan ideia proiektu honekin.


Etxeberria baserriko familiaren erretratua. | JOSE FELIX DIAZ DE TUESTA


Erretratua egiten. | MARTA LETURIA


Alaba-aitak erretraturako posatzen. | JOSE FELIX DIAZ DE TUESTA

## Arrasateko altxorrak, argazkitan

Leintz Gatzagako bilduma bukatu osterako zeregina pentsatuta du Jose Felix Diaz de Tuesta argazkilariak: gutxienez, beste bi bilduma egin gura ditu, bata Arrasateko paisaia natural eta urbanoekin eta bestea Arrasateko urteko ekitaldiekin. "Argazki mordoa eginda ditut eta falta ditudanak baditut pentsatuta. Asmoa da Arrasate ateratzea ikuspuntu askotatik, alde dokumentaletik. Adibidez, paisaia urbanoaren barruan, azken 2-3 urteetan Arrasaten egindako graffiti guztiak ditut. Batzuetan alderdi estetikotik ateratzen ahalegintzen naiz, baina estetikoak ez izan arren, uste dut erakusten dutela momentuko gizartea".


Arrasateko ikuspegia. | DIAZ DE TUESTA


Txistulariak Arrasaten. | DIAZ DE TUESTA

**IÑAKI AGIRREURRETA**
KULTURA ZINEGOTZIA

## "Esperientzia berritzailea, haluzinagarria da, sorpresa hartu dugu"


GOIENA

Udaleko Kultura zinegotzi Iñaki Agirreurretarendako ere proiektu erabat berritzailea da Jose Felix Diaz de Tuesta egiten dabilena.

**Ezohikoa, ezta?**
Esperientzia berritzailea da, guk dakigunez sekula beste inon egin ez dena. Sorpresa hartu dugu. Hor geratuko da argazki-bilduma. Esperientzia haluzinagarria da.

**Herriarendako ze balio ikusten diozue?**
Testigantzaren ikuspuntutik balio handia du. Gainera, ez ditu aurpegiak bakarrik atera, beste ñabardura asko ere jaso ditu erretratuetan: eskuak, jantzerak, markak…

**Herri moduan, ze nahiko zenukete egin argazkiokin?**
Oraindik erabaki barik dugu zela batu hori guztia. Niretzat, adibidez, zentzu handiagoa hartuko luke urte batzuk barru berriro ere argazkiok errepikatuko bagenitu.


BEDOÑABE ETA MUSAKOLA HAURRESKOLAK
0-2 URTE
Matrikulazio epea urriaren 1etik 10era
2013-2014an jaiotakoentzat
BEDOÑABE HAURRESKOLA. Alfonso VIII 1. Arrasate
Tel.: 943 79 76 86. bedonabe.arrasate@haurreskolak.net
MUSAKOLA HAURRESKOLA. Elkano 8. Arrasate
Tel.: 943 79 13 03. musakola.arrasate@haurreskolak.net
Haurreskolak




# Maritxu badator, nahi baduzue etorri!

Dena dago gertu urteko egun dotoreenerako; eguraldi ona eta festa giro beroa espero dira, egun eta gau

**JOKIN BEREZIARTUA** | ARRASATE

1977ko urriaren 5ean ospatu zen lehenengoz Maritxu Kajoi. Festaren aitatzat Pepe Txantxote "txikitero, saltsero eta gizon alaia" dute Komisiñoko kideek: "Hau [txikitoa eskuan zuela] Maritxugatik!" esan zuenetik eta herriko kuadrillak Maritxu hori parrokiako fatxadan kaxoi baten barruan zegoen Ama Birjina zela konturatu zirenetik, ia lau hamarkada pasa dira. Ordutik, hazten joan da festa, arrasatearrendako urteko egun kutunena izan eta bisitaria dotore janztera behartzen duen jai bihurtzeraino.

Egun luzea izango da parranda egingo duenarendako, eta "polita" Komisiñoko kideendako. Goizean goiz suziria bota, Maritxu azpiko horma eta ingurua apaindu, lore eskaintza prestatu, eskapularioak saldu eta 20:30erako iragarrita dagoen mirarian Ama Birjinari lagundu; hori festaren egunean bertan, prestaketek dakarten buruhausteak aintzat hartu barik.

Badaude egitekoak, baina "gustura" egiten dituzte: "Eginbeharren bitartean eta ostean, lagunartean gustura egongo gara, dantza pixka bat egin, ondo jan eta ondo edan. Edozein arrasatearrek egiten dutena, jaia ondo ospatu!", diote Komisiñoko kideek. Uztailean hasten dira lehen bilerak egiten eta irailean ekiten diote lanari: "Kartela egin, eskapularioko gaia aukeratu... Hilabete baten dena gertu izaten dugu".

**Nobenaixua, 1987a ezkero**

Horrez gain, Nobenaixuan zein omendu ere erabakitzen dute: "Komisiñoak, urtero, herrigintzan ari den pertsona, talde edo eragile bati ematen dio inbutua, herriaren alde egindako lanaren esker ona adierazi eta euren ekarpena txalotzeko. SUDC eragile aktibo bat izan da beti, elkarte gastronomikoen bilgune izateaz gain, herri mailan ekimen mordoa antolatzen dituen gizarte eragilea da". 1987an egin zen Nobenaixua lehenengoz eta 1998ra arte urriko lehen zapatuan egiten zen, jaia berriro ere ospatzeko atzerako kontaketa iragartzeko. 1998a ezkero, egun handiaren aurreko egubakoitzean egiten da, festa badatorrela iragartzeko. Gazta eta ardoa barra-barra banatzen dira egun horretan.

**Zein izango da miraria?**

Horixe da urteroko galdera, eta aurten ere Maritxuk bakarrik daki erantzuna: "Miraria egiteko




Haurrendako Irri Herri Anitz ikuskizuna eskainiko dute Irrien Lagunek. | GOIENA



## MKJ 2014: EGITARAUA

**08:00** Suziri jaurtiketa.

**17:30** Irrien lagunekin *Irri Herri Anitz* ikuskizuna Seber Altuben. Euria bada, Biterin.

**18:00** Gaztetxoendako *Niri Bost* lehiaketa, gaztegunetik abiatuta. Euria egiten badu, gaztegunean egingo dute.

**18:30** Kiliki eta erraldoi txiki eta ertainen kalejira.

**19:00** Oria txaranga beteranoaren doinuak Herriko Plazaren inguruetan.

**20:30** Lore eskaintza Maritxuri.

**00:00** Dantzaldia Herriko Plazan Luhartz-en eskutik.

**ESKAPULARIOA EZINBESTEKO**

Komisiñoak eskapularioa zintzilik eta dotore-dotore jantzita irteteko dei egin die herritarrei.

**LORE ESKAINTZA ETA JARRERA SEXISTARIK EZ**

Maritxuk "ikaragarri" eskertzen du kuadrillengandik loreak jasotzea. Era berean, Maritxuk ez du jarrera sexistarik, homofoborik eta lesbofoborik onartuko.

## Goienaren 'photocall'-a Herriko Plazan

Urteko egunik dotoreenean, *photocall*-a jarriko du Goienak Herriko Plazan, Maritxu Kajoitik gertu. Beraz, gerturatzen direnek alfonbra gorriaren gainean eta fokupean horren berezia den eguna betikotzeko aukera izango dute.

*Photocall*-a eguerdian eta arratsaldean zehar egongo da martxan, 12:30etik 14:00etara eta 17:30etik 19:30era. Argazkilariak ateratako argazki guztiak *Goiena.eus* atarian egongo dira ikusgai hurrengo egunean, eta Whatsapp bidez 688 690 017 telefono zenbakian jasotakoak ere bertan egongo dira.

Jasotako argazkiekin lehiaketa egingo da *Goiena.eus*-en, eta erabiltzaileek argazkirik onena bozkatuko ahal izango dute. Argazki irabazlea urriaren 10eko GOIENA paperean argitaratuko da, poster moduan.

**ESANAK**

**"Mirarirako lanak erraztten dizkiogu, baina guk ere ez dugu jakiten"**

**"Eginbeharren artean eta ostean, jaiaz gozatuko dugu"**

MARITXU KAJOI KOMISIÑOA



Iaz Aretxabaleta olinpiar egin zuen Maritxuk. Aurten ere 20:30erako iragarri du miraria; ea zer prestatu duen. | GOIENA

lanak errazten dizkiogu, baina guk geuk ere ez dugu jakiten miraria zein izango den. Aurten gauza mordoa pasatu dira gure inguruan eta munduan, baina auskalo zerekin datorkigun aurten gure Herriko Plazako zaindaria".

Miraria 20:30erako iragarri du Maritxuk eta ordurako gertu izango du dena Astondoa piroteknia: "Maritxuren arkua petardo eta bengalekin dekoratzen dugu. Argiztapenerako eta inpakturako efektu piroteknikoak erabiltzen ditugu, jendea nahiko gertu egoten da-eta", adierazi dute arduradunek. Astondoak 30 urte baino gehiago daramatza miraria ikuskizun bihurtzen. Jaia gertutik ezagutzen dute, beraz: "Izugarri eskertzen dugu Arrasateko herriak gugan jarritako konfiantza. Egun handi horrekiko ilusioak gora egin dezala, jaia hazten joan dadin".

**Komisiñoa, erretratu eske**

Aurten ere argazkiak jasoko ditu Komisiñoak, urriaren 12ra arte. Honako helbide elektroniko honetara bidali behar dira erretratuak: *maritxuzaliak@gmail.com*. Parte hartzen dutenen artean, bertako produktuz osatutako saski bat zozketatuko dute urriaren 16an; *www.maritxukajoi.org* webgunean jakinaraziko da irabazlea.

Helburua da horren berezia den egunaren artxibo on bat osatzea: "Animatu gura ditugu arrasatearrak argazkiak bidaltzera; kuadrillan, familian, lagunartean, lanean, atzerrian... Dokumentu politak izango dira etorkizuneko argitalpenetarako".

Gaur egun bazkaria egiten dute kuadrilla gehienek, baina badira ohitura zaharrari eutsiz afaria egiten dutenak ere. Elkarte gastronomikoetan, jatetxeetan edo etxe partikularretan izan, gaurkoa mahaiaren bueltan luze egoteko eguna da.

**'Niri bost' eta kalabaza**

Baina Maritxu Kajoi ez da helduendako festa bakarrik. Haurrek ere modu berezian ospatzen dute; eskoletan askotariko materialez egindako loreak egin ostean herritarren artean saltzen dituzte, adibidez. Gaztetxoek ere izango dute zertaz gozatu. Gazte txokoek, esaterako, *Niri Bost* lehiaketa antolatu dute aurten ere: "*Gaztetxokeroak* kalera irtengo gara elegante jantzita eta gogotsu. Maritxu Kajoiren, Arrasateren eta Euskal Herriaren gaineko galderak erantzun beharko dira. Sariak ere izango dira. Parte hartu!".

Era berean, AEK-ko langileak kalabazarekin irtengo dira kalera; piezaren pisua zein den asmatzen duenak edo gehien gerturatzen denak, sasoiko produktuez osatutako saski eder bat jasoko du. 12:00etatik aurrera hartu ahalko da parte: "Zahar-Berriko teknikariaren lan dedikazioa mantentzea, aste bukaerako ekintzak eta euskaltegiko ekintzak prestatzea, Berbetan aldizkaritxoa kaleratzea, mintza taldeen jarraipena egitea eta hiztun berriei euskaraz bizitzeko bidea erraztea posible izan daitezen, diru sarrerak behar ditugu". Euria ohikoa bada ere, eguraldi iragarpen onekin dator aurten urteko egun dotoreena, Maritxu iturrira etorriko den eguna. Bartoloren antzera, nahi baduzue etorri zuek ere. Ondo pasa!

# Eskualdeko enpresetan jarduteko hamabi beka emango dituzte tituludun berriendako

J.I. / M.A. | ARRASATE

Arrasateko Udalak Saiolanekin lankidetzan martxan jarritako titulatu berrientzako programa horren bitartez bekadun aukeratzen dituztenek eskualdeko enpresa batean proiektu bat egiteko aukera izango dute.

Hiru eta sei hilabete arterako lana izango da, egunean sei ordu gehienez, Udalak 50.000 euro bideratuko ditu hamabi beka finantzatzeko, eta bekadunek 800 euro jasoko dituzte hilean.

Ekimenean parte hartuko duten enpresak Debagoiena Eraldatzen izeneko egitasmoan parte hartzen dutenak dira, eta bekadunek horietan egingo dituzten proiektuak askotarikoak izan ahalko dira; logistika, komunikazio eta ingeniaritza arloetakoak, adibidez.

**Izen-ematea zabalik**

Izena eman ahal izango da BAZen urriaren 6tik abenduaren 30era, eta interesatuei gomendatu diete ahalik eta bizkorren apuntatzeko, enpresetan proiektuak atera ahala unean dituzten hautagaien artean egingo dutelako aukeraketa, izena emateko epea oraindik irekita egon arren.


Garmendia, Azkarragaurizar eta Sagastigordia. | JULEN IRIONDO

NAFARROAKO PIPERRAK
Arrasaten egosita
Eroski hipermerkatuaren parkingean gaude
609 21 00 62

Ondo ibili Maritxutan!
www.citroen.es
GAUR EGUNGO GALDERA GUZTIEN ERANTZUNA AUTO HONETAN

Citroënek nahiago du Total
Kontsumo mistoa (l/100 km) / CO2 emisioa (g/km): Citroën C4 Cactus: 3,1-4,6 / 82-107
CITROËN C4 CACTUS BERRIA
Zergatik kontsumitzen dute horrenbeste motorrek? Zergatik ez dute zerbait asmatzen autoen ateak babesteko? Zergatik izan behar du hain konplikatua gidatze-panelak? Zergatik eseri behar dugu elkarrengandik urrun, elkarrekin bagoaz bidaian? Ondo pentsatuta, erantzun erraz batera garamatzate galdera horiek guztiek: Citroën C4 Cactus berria. Gaur egungo galdera guztiei erantzuten dien autoa. Gidatzeko modua irauli egin du eta erraz egiten du dena. Igo zaitez autora eta detaile bakoitzean igarriko duzu teknologia eta autoaren beraren diseinu intuitiboa; auto honek erantzun guztiak ditu.
BABES TERMIKO HANDIKO SABAI PANORAMIKOA KRISTALAREKIN 7"-KO UKIPEN-PANTAILA
SOFA-ESPIRITUA DUEN ESERLEKUA AIRBUMP AIRBAG ROOF TEKNOLOGIA MAGICWASH
CRÉATIVE TECHNOLOGIE
CITROËN
TALLERES CHAPIME
San Andres 5, 20500 ARRASATE • Tel.: 943 79 45 22

### Ibai eta erreka garbiketa, ahalik eta eragile gehienekin

Deba erreka eta Aramaio ibaia garbitzeko auzolana egingo dute Arrasateko Uraren eta Errekaren Astearen baitan –urriaren 11tik 19ra–. Atzo bilera egin zuten, garbiketa ahalik eta eragile gehienekin antolatzeko. Izan ere, iaz garbiketa egunak ez zuen Udalak esperotako erantzunik izan. Jende gutxik egin zuen bat, eta, horregatik, aurten beste era batera planteatu dute deialdia. Garbiketa urriaren 18an izango da, eta 09:30ean elkartuko dira Laubide plazan.

## OHARRAK

**1952KOEN KINTADA**
Zumaiara eta Zarautzera irteera egingo dute 1952an jaiotakoek urriaren 18an. Joan nahi dutenek 70 euro sartu behar dituzte urriaren 11 baino lehen zenbaki honetan: 3035 0001 51 00101128714 (Laboral Kutxa).

**1955KOEN KINTADA**
Bazkaria egingo dute 1955ean jaiotakoek Tobelos bodegan, Errioxan, azaroaren 8an. Interesatuek 60 euro sartu beharko dituzte hemen: 3035 0202 78 2021044267 (Laboral Kutxa).


Udal ordezkariak eta langileak Txaeta 3ko bulego berrietan, inaugurazio egunean. | MIREN ARREGI

# Gizarte Zerbitzuetako bulego berrietan lanean dabiltza jada

- Martitzenean izan zen inaugurazioa eta eguaztena ezkero dihardute han
- Larrañagak dio "oso toki onean" daudela, Txaeta kaleko 3. zenbakian

**M. ARREGI / I. GOITIA** | ARRASATE

Inauguratu dituzte Gizarte Zerbitzuetako bulego berriak. Martitzen goizean izan zen ekitaldia, hain zuzen, eta udal ordezkariak, langileak eta herritarrak batu ziren Txaeta kaleko 3. zenbakian dauden bulego berrien irekiera egiteko.

Inaugurazioaren hurrengo egunean, eguaztenean, hasi ziren zerbitzua bertan eskaintzen, betiko ordutegian: goizeko bederatzietatik arratsaldeko hiruretara.

**Zerbitzua "hobetu"**

Egoitza berrian hamar bulego daude. "Herritarren pribatutasuna bermatu nahi izan da gunea hamar bulegotan bereiztean", azaldu zuen Amaia Larrañagak, Ongizate zinegotziak, inaugurazio ekitaldian. Bulegoez gain, bi bilera gela, artxiboa, harrera, itxarongela, langileek bazkaltzeko tokia eta komunak ditu. Emaitzarekin oso pozik azaldu zen zinegotzia: "Badirudi jendeari gustatu egin zaiola nola gelditu den, eta hori da garrantzitsuena". Instalazio berriek zerbitzua hobetzea ekarriko dutela esan zuen. Besteak beste, eskainiko den pribatutasuna eta kokapena aipatu zituen. "Autobusa bertan gelditzen da, ez dago inolako maldarik edo oztoporik, ospitaletik gertu dago... Oso toki ona da".

Hamahiru langile ditu Ongizate Zerbitzuak eta hainbat egoeratan dauden herritarrei eskaintzen die laguntza: zailtasun ekonomikoak dituztenei, adingabeei, droga-menpekotasun arazoak dituztenei, etorkinei, eta abarri. Udaleko Gizarte Zerbitzutik adierazi dute helburua, elkartasuna ardatz, jendarte justu eta solidarioa eraikitzea dela, eta, horregatik, gizartean gertatzen ari diren aldaketei aurre egitea dela lehentasuna.

**DATUA**

**450**
METRO KARRATU

**Gizarte Zerbitzuetako bulego berriek 450 metro koadro erabilgarri dituzte.**



# Ekimenez betetako udazkena prestatu dute Udal Bibliotekan

Urriaren 24ko Bibliotekaren Egunaren bueltan hainbat ekintza egongo dira

TXOMIN MADINA | ARRASATE

Datozen asteotarako antolatu dituzten askotariko ekintzei erreparatuta, udazken betea izango da Arrasateko Udal Bibliotekan.

**Ume txikiendako**

Urriaren 14an, 21ean eta 28an, *Azalerako ipuinak* izeneko saioak egingo dituzte Santa Marinako liburutegian. Saiootan, masajeak eskaintzen duen hitzik gabeko komunikazioa baliatzen dute; eta ipuin, poema, hitz-joko, kantu, jolas eta liburuak erabili. 0-3 urte bitarteko umeei eta haien gurasoei eta hezitzaileei zuzenduta, hiru saioak 11:00etan hasiko dira eta Saroa Bikandik gidatuko ditu. Euskaraz eta doakoak izango dira, eta urriaren 10a baino lehen eman behar da izena.

**Bibliotekaren Eguna**

Urriaren 24an ospatuko duten Bibliotekaren Egunaren harira, Lur Korta ipuin kontalariak 5 eta 8 urte bitartekoendako bi saio egingo ditu, urriaren 15ean Kulturaten eta 22an Santa Marina liburutegian. 18:00etan hasiko dira bi saioak.

Urriaren 24an, bestalde, 19:30ean, *Munduaren neurria* izeneko musika errezitaldia egingo dute Rafa Ruedak eta Oier Guillanek Kulturaten.

Bibliotekaren Egunarekin lotutako azken ekitaldia urriaren 30ean izango da: Pai konpainiak *OH!NDAS: un espectáculo físico para los más iluminados* izeneko ikuskizuna eskainiko du Kulturaten. Bi emanaldi izango dira, 11:15ean eta 14:30ean, eta aurrez izena ematea komeni da.

**Literatura solasaldiak**

Irakurzaleendako literatura solasaldiek ere izango dute lekua datozen hilabeteetan. Euskaraz hiru saio egingo dituzte: urriaren 22an, Sofi Oksanen *Garbiketa* lanari buruz izango da saioa; azaroaren 19an, Joseba Sarrionandiaren *Hnuy illa nyha majah yahoo*-ri buruz; eta abenduaren 10ean, *Hobe kontatzen ez badidazu* izango dute berbagai, ipuin-antologia katalana.

Gaztelaniazko saioetan, aldiz, Europako literaturaz jardungo dute. Hiru saio izango dira, eta bakoitzean idazle bat hartuko dute berbagai: Albert Camus (urriaren 29an), Bohumil Hrabal (azaroaren 26an) eta Agota Kristof (abenduaren 17an).

**Zozketa**

Urrian liburuak maileguan hartzen dituzten helduen artean, gainera, liburu elektroniko bat zozketatuko du Udal Bibliotekak.



Joan den ikasturtean egin zuten *Azalerako ipuinak* saioetako une bat. | GOIENA

## Errezitaldia egingo dute domeka iluntzean San Juan parrokian

Urriaren 30ean Mozarten *Don Giovanni* opera eskainiko dute Arrasaten, eta, aurrerapen moduan, errezitaldia egingo dute domeka honetan, 19:30ean, San Juan parrokian.

Ozenki elkarteak antolatuta, Parisko soprano Celline Voces Benaventek eta Josean Garcia baritonoak abestuko dute, eta Joseba Candaudap eta Isabella Blezien arrasatearra izango dituzte lagun pianoan. Mozarten piezek hartuko dute errezitaldiaren zati handi bat.

## Pilatesean lehen urratsak egiteko saioak Musakolan

Urriko lehen bi asteetan, *Pilates hastapenak* izeneko saioak egingo dituzte Musakolako kiroldegian. Aukeatik adierazi dutenez, adimenaren eta gorputzaren arteko oreka mantentzeko balio du pilatesak, baita postura ohitura desegokiak saihesteko eta zuzentzeko.

Urriaren 6an, 8an, 13an eta 15ean, 11:15ean eta 17:30ean izango dira saioak; eta urriaren 7an, 9an, 14an eta 16an, 15:00etan. Kiroldegian bertan eman daiteke izena, edo 943-77 16 77 telefonora deituta.




Merkatariak eta Udaleko eta Ekoguneko ordezkariak, *Ontziratu zaitez!* kanpainaren aurkezpenean. | JAGOBA DOMINGO

# Bergara ere 'ontziratu' da, hondakinak murrizteko

Tuperren erabilera bultzatuko da, Kutxa Ekogunearen kanpainaren bitartez

**JULEN IRIONDO** | BERGARA

Kutxa Ekogunearen *Ontziratu zaitez!* kanpaina herrira ere iritsi da, eta, hainbat merkatariarekin eta Udalarekin elkarlanean, bereziki arrandegietan eta harategietan erabiltzen diren hondakinak –papera eta plastikoa dituzten bilgarriak– gutxitzeko saiakera egingo da. Ekimenarekin lortu nahi dena da jendeak etxetik eraman ditzala tuperrak dendara, erositakoa bertan sartzeko.

Horrela, herritarrek etxean dituzten ontziak erabiltzeko deialdia egiten bada ere, etxebizitza bakoitzeko ontzi berrerabilgarri bat eskuratzeko aukera ere izango da. Ontziok banatuko dituzte urriaren 11n egingo den EkoBira azokan. Orduan jasotzeko aukerarik ez dutenek beste aukera bat izango dute urriaren 15ean, udaletxeko arkupeetan, 17:00etatik 20:00etara: "Erosketa hauek egiterakoan hondakin kopuru handia sortzen da, produktu hauek paperean biltzeaz gain, plastikozko poltsa baten edo bitan sartzen baitira ondoren, eta bizitza oso laburreko materialak dira", zioen Ekoguneko Amaia Otazok kanpainaren aurkezpenean.

Tuperrak erabiliz, berriz, hiru gauza lortzen ei dira: "Batetik, erosotasuna irabaztea, erosleek, behin etxera iritsita, ontzia zuzenean hozkailuan sartzeko aukera izango dutelako, modu garbian; bestetik, saltokientzako kostu murrizketa, ez baitute hainbeste paper eta plastikozko poltsa erabili behar izango; eta, azkenik, hondakin gutxiago sortzea. Ingurumenerako positiboa izateaz gain, ekimen honekin denok irabaziko dugu".

**EkoBira azoka**

Ekoguneak 2011n *Ontziratu zaitez!* kanpaina Hernanin martxan jarri zuenetik, egitasmoa Gipuzkoako 30 herritara zabaldu da, eta 70.000 ontzitik gora banatu dituzte. Bergaran 3.000 banatuko dira, eta kanpainan parte hartuko duten saltokiak izango dira: Kabutzia, Joxan, Lete, Biak, Lamitxoa (azokan), Itxas Eder –arrandegiak–, Imaz, Joseba, Urzelai, Igarza, Rezola, Antia, Bixain (azoka), Leturia, Mercedes Altube (azoka) –harategiak–, Arantzazu Belategi (azoka) eta Migel Garitano –elikagai-dendak–; "Guretzako oso pozgarria da. Euren inplikazioa hasieratik handia izan da, eskertzekoa, eta animatzen ditugu herritar guztiak kanpainan parte hartzera", zioen Maren Belastegi alkateordeak.

EkoBira azoka ibiltariari dagokionez, berriz, San Martin plazan izango da datorren zapatuan, goiz eta arratsaldez. Produktu eta zerbitzu iraunkorrak –ingurumenean eragin edo inpaktu txikiagoa dutenak– kontsumitzeko aukerak azalarazi nahi ditu azokak. Laugarren urtez egingo du azoka hori Ekoguneak; oraingoan, Bergarara dator.

**ESANAK**

**"Hondakin kopuru handia sortzen da; dira bizi laburreko materialak"**

AMAIA OTAZO | KUTXA EKOGUNEA

**"Merkatarien inplikazioa handia izan da hasieratik, eskertzekoa"**

MAREN BELASTEGI | ALKATEORDEA

**'Ontziratu zaitez!'**

- 3.000 tuper banatuko dituzte, urriaren 11ko EkoBiran eta urriaren 15ean, udaletxeko arkupeetan.
- Arrandegi, harategi eta elikagai-denda artean, hamazazpi dira parte hartuko duten saltokiak.
- Sei hileko sustapenean, 20 euroko erosketa sariak zozkatuko dituzte.

Debagoieneko
**GREMIOAK**

**AROZTEGIAK**

**AZKARATE AROZTEGIA**
BERGARA
• Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzaileak, sukaldeak.
• K-21
Telleria 19 B02-B03
Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20
*blogak.goiena.net/azkarate*

**ERAIKUNTZAK**

**ARRASATE ERAIKUNTZAK SL**
ARRASATE
Meatzerreka auzoa
Tel.: 943 77 12 26 / 659 67 17 59
*e.arrasate@euskalnet.net*

**ITURGINTZA**

**EGIA ITURGINTZA**
ARRASATE
Gipuzkoa etorbidea 39, behea
Tel.: 943 77 01 85

**OYANGUREN ITURGINTZA**
ESKORIATZA
• Iturgintza eta gasa
• Berogailuak eta petrolio-produktuak
• Klimatizazioa
Aranburuzabala 15
Tel.: 943 71 47 14 / 606 00 73 69
*f.oyanguren@ctv.es*

**URKO MANTENIMIENTO SL**
ARETXABALETA
• Instalazioen mantentze-lan guztiak
• Berokuntza eta gasa
• Aire girotua eta haizeztatzea
Basabe industrialdea B-3
Tel.: 943 77 19 88
Faxa: 943 79 59 97

**LEIHOAK**

**ARGI-PLASTIK**
ARRASATE
Zigarrola kalea 1, 8 pab
Tel.: 943 77 11 30

**LOREZAINTZA**

**MAKAI KOOP. ELKARTEA**
ARETXABALETA
• Barruko zein kanpoko lorezaintza
• Ureztatzeko sistemak
• Loreontzi-euskarriak eta balkonerak
Basabe poligonoa D-2-1
Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98
Faxa: 943 79 78 45

**MARGOAK**

**APAIN MARGO ETA APAINKETA**
ARRASATE
• Pintura orokorrean
• Pareztatzeak
• Errotulazioa
Maitena 3-1.
Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17

Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu **943 25 05 05** zenbakira.



Neska taldea mozorrotuta. | JARDUN ELKARTEA

## Bihar, hilak 4, hasiko da martxan Jardunen Txapligu aisialdi taldea

M.B. | BERGARA

Bihar, zapatua, abiatuko du ikasturtea Jardun euskara elkartearen Txapligu asteburuko aisialdi taldeak.

Herriko 8 eta 12 urte bitarteko gaztetxoei zuzenduta dago eta zapatu eta domeketan –maiatz bukaerara arte– elkartzen dira, 17:00etatik 20:00etara, Zubietako eskola zaharrean.

Txapliguren helburu nagusia da herrian dauden eskoletako neska-mutikoen arteko harreman informalak euskaraz bermatzea, eta egunerokotasunean euskara erabiltzea.

Herrian bertan egiten dituzten ekintzez gain, ikasturtean barrena irteerak ere egingo dituzte. Prezioari dagokionez, urteko kuota 42 euro da –37 euro Jarduneko bazkideendako.

**Ate irekiak asteburuan**

Txapligu asteburuko aisialdi taldea ezagutzera emateko ate irekiak egingo dituzte asteburu honetan, urriaren 4an eta 5ean, eta baita hurrengoan ere, urriaren 11n eta 12an. Eta interesa duten gaztetxo zein guraso guztiak daude gonbitatuta bertaratu eta Txapliguren funtzionatzeko modua ezagutzera.

Biharko, urriak 4, 17:00etan egin dute hitzordua, San Martin plazan eta herrian barrena jolastuko dira. Urriaren 5ean, 11n eta 12an, berriz, Zubietako eskola zaharrean elkartuko dira guztiak.

Izen-ematea dagoneko zabalik dago Jarduneko bulegoan –Erroalde jauregian–. Informazio gehiagorako, deitu 943-76 36 61 zenbakira.

## OHARRAK

**1942AN JAIOTAKOEN BAZKARIA AZPEITXIN**

1963ko kintoek urriaren 25ean egingo dute ospakizuna. 14:30ean da bazkaria, eta aurretik talde argazkia egingo dute. Izen-ematea urriaren 21ean amaituko da –ordutik aurrera ez dira onartuko– eta horretarako 20 euro aurreratu behar dira Laboral Kutxan (0091146315).

**1959AN JAIOTAKOEN AFARIA TARTUFON**

Urriaren 25ean egingo dute. Izena emateko 30 euro sartu behar dira Laboral Kutxa: ES55 3035 0189 3118 9103 8671. Izena emateko azken eguna urriaren 20a da. Tartufora igotzeko irteera ordua 21:00etan izango da, azokako geltokian.

**1948AN JAIOTAKOEN IRTEERA LIZARRARA**

Urriaren 18an joango dira. Autobusa 09:00etan abiatuko da autobus geltokitik. Izen-emate epea zabalik dago: Laboral Kutxan bidaiarako espresuki zabaldu den kontu zenbakian 50 euro sartu beharko dira urriaren 13a aurretik.

**1957AN JAIOTAKOEN KINTADA AZAROAREN 29AN**

Ospakizunera joateko 70 euro sartu behar dira, urriaren 10etik aurrera, Laboral Kutxan ireki duten zenbakian.

# Euskara Sustatzeko Ekintza Plana onartu dute

2014-2017 epealdian euskara bultzatzeko esparruz esparru bideratuko diren egitasmoak batzen ditu; aho batez onartu zuten astelehenean

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Euskara Sustatzeko Ekintza Plana onartu zuen asteleheneko ohiko osoko bilkuran udalbatzak, aho batez. Dokumentu horretan jasotzen dira herriko esparru bakoitzean –familian, merkataritzan, kirolean...– euskara sustatzeko 2014-2017 epealdian bideratuko diren egitasmoak.

Plan hori Eusko Legebiltzarrak 2013ko irailaren 11n onartutako Euskara Planaren baitan kokatuta dago eta hainbat herritarren parte-hartzearekin diseinatu da. Eta parte-hartzea, koordinazioa eta elkarlana izango dira planaren ardatz nagusiak: bai udal barruan, departamentuen artean; bai herri mailako entitateei begira; bai bailara mailako udalekin; eta baita Gipuzkoako edo Euskal Herri osoko beste erakunde batzuen artean ere. Bestalde, onartu berri den plan hori plan bizia izango da, iraungo duen denboran etengabe aberasten joango dena.

**Aukerak zabaldu nahi dituzte**

Planaren helburu nagusia da bergararrei euskaraz bizitzeko aukerak zabaltzea eta herriko ohiko hizkuntza euskara izan dadin behar diren hizkuntza-politikako neurriak erabakitzea eta bultzatzea.

Hori horrela, Bergaran euskarak duen egoeraren diagnosia jasotzen du hasieran, eta egoera hori indartzeko egitasmoak proposatzen ditu, esparruz esparru. Hamar dira nagusiak; adibidez, familia. Hor, ikastetxeekin lankidetzan gurasoak sentiberatzeko proiektua bideratuko da, familia bakoitzak hizkuntzaren transmisioan egin dezakeen ekarpena optimizatzeko.

Irakaskuntza da planean jasotzen den beste esparru bat: haur eta gazteetan ahozko berbeta indartzeko programa pilotu bat abiatuko dute, ikastetxeekin, Soziolinguistika Klusterrarekin eta Foru Aldundiarekin lankidetzan.

Euskalduntze-alfabetatzeari dagokionez, euskara ikasteko bideak erraztuko dituzte eta praktikatzeko erraztasunak eskaini; Berriketan eta Auzoko programekin, esaterako.

Eskolaz kanpoko jardueretan eta bereziki kirolean euskara indartzeko programei jarraipena emango diete, Kirol Zerbitzuarekin batera: klubei ematen zaizkien laguntzetan euskarazko jarduna sarituaz, klubekin erabileraren gaineko konpromisoak adostuaz eta entrenatzaileak euskaraz prestatzeko ikastaroak eskainiaz.

Merkataritza ere indartu beharreko esparru garrantzitsua da planean. Komertzioetako kartelak, menuak... euskalduntzeko proiektu berri bat bultzatu du Udalak Jardunekin batera, horretarako berariaz sortutako boluntario-sare baten bitartez. Idazlaguna du izena proiektu horrek eta dagoeneko abian dago. Toponimia da beste esparruetako bat: herriko izendegi ofiziala onartu eta erabilera bateratua finkatzea ere badu helburu planak, inplikatutako erakundeen artean, hala nola Udala, Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza, Euskaltzaindia...

Plana *www.bergara.net* helbidean dago eskuragarri interesa dutenendako.

**'Diaro Fatxo'-ren pankarta**

Eskaera eta galderen atalak hartu zuen osoko bilkuraren beste zati handi bat, EAJko bozeramaile Aintzane Oiarbidek gobernu taldeari egindako galdera batekin: "San Martin bezperako danborradaren amaieran, plazako eszenatokian, udal azpiegitura baten pankarta bat zegoen *Diario Fatxo* -ren izenean. Zergatik Udalak ez zuen irain pankarta hori kendu bere azpiegituratik? Zergatik onartu behar dira jaietan guztiok ondo pasatzen ari garenean halako elementuak?"

Jaione Isazelaia alkateak honela esan zuen: "Gure oroimena da pankarta horretan bere osotasunean *Diaro Fatxo* azaltzen zela, eta adierazpen askatasunaren izenean, tartean mehatxurik egon ezean, utzi egiten ditugu. Hori bai, ez dugu inolaz ere konpartitzen jendea iraintzea, ezta gutxiagorik ere. Eta uste dut gure ibilbideak erakutsi duela hori. Dena den, ez konpartitu arren, uste dugu tartean badela kritika politiko bat eta gu ezin gara ibili kritika politiko horiek guztiak neurtzen".

Gogoratu behar da, bestalde, Aintzane Oiarbideren irudia zeramaten kartelak ere azaldu zirela herrian barrena jaietan. Eta honako hau ere azpimarratu nahi izan zuen alkateak: "Beti lotzen gaituzte ezker abertzalearen ibilbidearekin, baina garai berri baten gaude; ezker abertzalea sekulako esfortzua egiten ari da, eta, kasu honetan, bai modu pertsonalean eta bai modu publikoan adierazi zaio Oiarbideri elkartasuna, eta hori oso adierazgarria da, gure ustez".

Oiarbideri, bestalde, galdera erantzun barik geratu zela iruditu zitzaion: "Ez digute erantzun. Adierazpen askatasunaren barruan sartu dute, baina guk uste dugu hori ez dela adierazpen askatasuna. Irain bat da, eta hori izan daiteke baloratua batera edo bestera, baina iruditzen zaigu guztiz lekuz kanpo daudela halako elementuak jai giroan". Hori horrela, aurrerantzean halako pankartak agertzen badira ken ditzala eskatu zion gobernu taldeari.

TOKI-ONA
Bodegoia-taberna
Eguneroko janariak
Txitxizotzak
Kazolatxoak
Txabierroak
Matxiategi 1. BERGARA
Tel.: 943 39 53

Aitor Zabaleta
Tel.: 606 58 18 10
www.txipi.com
TXIPI
LEIHO ISOLATZAILEAK
Amillaga 5, behea - BERGARA

UGARTE
AROZTEGIA - ALTZARIAK
AROZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 76 54 91
ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 03 46 30
BERGARA

UREDERRA
ITURGINTZA
Iturgintza
Berogintza
Aire egokitua
Konponketa
Salmenta
Arruriaga 11
686 943 918

TELEIXA BILTEGIAK
Eraikuntza materialak
Telleria (Labegaraieta)
BERGARA
Tel.: 943 76 27 93



Mari Carmen Gallastegi. | GOIENA



Asier Altuna *Kixi*. | GOIENA

# San Joxepekoen hamabostaldi kulturala prest

Erretiratuek urriaren 6tik 18ra ospatuko dute

**IMANOL GALLEGO** | BERGARA

Hasi berri den urrian, San Joxepe erretiratuen elkarteak urtero ohi duen moduan, kultura hamabostaldia antolatu du.

Astelehenetik aurrera, hamabost egunez, elkartean ekintza ugari egongo da. Ohiturari uko egin gabe, hitzaldietako protagonistak herriko pertsona ospetsuak izango dira. Hamabostaldiari hasiera emateko, Jose Mari Eguren apaizak *Krisia erlijioan* hitzaldia egingo du. Asier Altuna *Kixi* herriko zine zuzendariak, eguaztenean, bere film laburrak erakutsi eta gero, solasaldia egingo du Migel Altuna Institutuan. Egun bat lehenago, herrian grabatutako *Aupa Etxebeste!* filma ere eskainiko dute.

Hilaren 15ean, Mari Carmen Gallastegi zientzialari bergararrak *Lurraren klima: zaindu beharreko ondarea* hitzaldia egingo du; hirugarren hitzaldi hori ere Migel Altunan izango da.

Elkartean sortutako ekimenek ere tokia izango dute. Datorren egubakoitzean 17:30ean egingo duten dantzaldiaren ostean, erretiratuek egindako eskulan, argazki eta artisautza lanen erakusketa egongo da elkartean. Arte mostra hori, gainera, 18an, 19an eta 20an ere egongo da ikusgai. Horrez gainera, herriko ikastetxeekin elkarlanean lehiaketa bat antolatu dute.

Hamabostaldia, baina, ez da herrira mugatuko, eta txangoak ere egingo dituzte. Ziortzako monasteriora irteera egingo dute eguenean (Bolibar, Bizkaia), eta hilaren 14an, Aramaio ezagutzeko egun erdiko bisita egingo dute. Batera zein bestera joateko izena eman behar da.

**Antzerkia eta musika**

Hilaren 16an antzerki emanaldia izango dute. Oñatiko Ikusi Makusi erretiratuen antzerki taldeak *Vivir en Tiritiitaina* obra taularatuko du, 19:00etan, Zabalotegin.

Hurrengo egunean, San Joxepeko eta Aramaioko abesbatzek emanaldi bateratua egingo dute, 20:00etan, Santa Marina parrokian.

Hilaren 18an, zapatua, itxiko dute kultura hamabostaldia, eta antolatutako egitarauari amaiera emateko, bazkaria egingo dute. Aurten, otordua Aitonak jatetxean egingo dute. Bazkalostean, oparien zozketa egongo da. Bazkarian parte hartzeko izena ematea beharrezkoa da.

## HAMABOSTALDIA: EGITARAUA

**URRIAK 6, ASTELEHENA**

**17:30** *Krisia erlijioan* hitzaldia elkartean.

**URRIAK 7, MARTITZENA**

**18:00** *Aupa Etxebeste!* filmaren emanaldia.

**URRIAK 8, EGUAZTENA**

**19:00** Asier Altunarekin solasaldia eta haren film laburren emanaldia.

**URRIAK 9, EGUENA**

**09:00** Ziortzako monasteriora irteera, Bolibarrera (Bizkaia), autobus geltokitik.

**URRIAK 10, EGUBAKOITZA**

**17:30** Dantzaldia eta ogitartekoak egongo dira, elkartean bertan.

**18:00** Erretiratuek egindako lanen erakusketa.*

**URRIAK 13, ASTELEHENA**

**15:30** Lehen Hezkuntzako ikasleen lehiaketa historiko-kulturaleko sari banaketa, elkartean.

**URRIAK 14, MARTITZENA**

**15:30** Aramaio ezagutzeko egun erdiko irteera. Autobus geltokitik.

**URRIAK 15, EGUAZTENA**

**19:00** Mari Carmen Gallastegiren eskutik, *Lurraren klima: zaindu beharreko ondarea* hitzaldia.

**URRIAK 16, EGUENA**

**19:00** Oñatiko Ikusi-Makusi taldearen *Vivir en Tiritaina* antzezlana, Zabalotegin.

**URRIAK 17, EGUBAKOITZA**

**20:00** Elkarteko eta Aramaioko abesbatzen kontzertua Santa Marinan.

**URRIAK 18, ZAPATUA**

**14:00** Herri bazkaria, Aitonak jatetxean.

*Erakusketa 18an, 19an eta 20an ere zabalik egongo da.

# Bihar ospatuko da herriko kulturaren egun handia

Ekitaldi guztiak plazan batzeaz gain, kultura eragileen arteko elkarlana ere sustatu nahi da

**I.G.** | BERGARA

Zapatuan Bergarak bere kultura aniztasuna erakutsiko du San Martin plazan. "Eskaintza guztia plazan batzea erabaki dugu", azaldu du Leire Iruinek, Kultura zinegotziak.

Bergara kultura eragile ugari dituen herria izan arren, jende guztiak ez ditu guztiak ezagutzen, eta horretarako sortu zuten ekimen hori. Kultura batzordearen barruan adostutako ekimen horrekin, "kultura, jendea eta ondarea batu nahi ditugu", dio Iruinek.

*Kultura kalean,* baina, ez da horretara mugatzen, eta, hain zuzen, bigarrena izango den edizio honetan, herriko kultura eragileen arteko elkarlana sustatu nahi izan dute.

**Elkarlanaren bila**

"Taldeen arteko elkarlana bultzatuz festa indartzen saiatu gara", esan du Iruinek. 11:00etatik aurrera talde bakoitzak bere erakustaldia egin eta gero, 13:00etan, Musirakak, Orkestra Sinfonikoak eta Beartek emanaldi bateratua egingo dute: "Sormena diziplina ezberdinak batzetik dator".

Eguerdiko atsedenaren ostean, arratsaldeko saioa parte-hartzaileagoa izango da. 17:00etan tailerrekin abiaraziko dute jaialdia. 18:30ean, Orfeoiak, Musika Eskolak eta Aritzeta eta San Joxepe abesbatzek kontzertua eskainiko dute eta saio horren amaieran, nahi duen guztiak Herrixa Dantzan ekimenarekin bat egiteko aukera izango du. Eguna borobiltzeko, Kantu Jira egongo da, 19:30ean.

Jendeak parte-hartzaileak hobeto ezagut ditzan, talde guztien informazioa batzen duten eskuorri batzuk banatuko dituzte. Horrela, herriko kultura eragileek euren proiektu eta lanen berri emango dute.



Iaz, Musika Eskolak instrumentuak kalera atera zituen. | GOIENA

## Sozialisten ustez, atez ateko bilketa da herria zikin egoteko arrazoia

Mari Carmen Barrenetxeak zehaztu duenez, Bergara "inoiz baino" zikinago dago. Haren ustez, atez atekoak eragindako egoera bat denez, Udalak abiaraziko duen garbiketa kanpaina ez da eraginkorra izango. Horrez gain, herrian dauden pintadak ere salatu ditu zinegotzi sozialistak.

## Anbulatorioan ere martxan da gripearen txerto kanpaina

65 urtetik gorakoentzat, gaixo kronikoentzat eta diabetesak edo, besteak beste, bihotz zein biriki gaitzek jotakoentzat izango da. Aurrez txanda hartzea beharrezkoa da. Anbulatorioan ez ezik, martitzenean (11:30-12:00) kanpaina Osintxun egongo da eta egunean, aldiz, (10:30-11:30) Labegaraietan.

MIZPILDI

OKINDEGIA
Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA

BERGARA
MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA
Sukalde eta bainu enzimerak
Urarte 8 BERGARA
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47
Faxa: 943 76 04 77

Kayak Taberna

Gosari bereziak
09:00etatik zabalik!
- Afariak
- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak
- Hanburgesak
- Sandwichak
- Entsaladak
Matxiategi 3, behea • Bergara • Tel.: 943 76 70 11

# Dena gertu txantxia erabiltzen hasteko, Oñatiko moneta soziala

- Askotariko 86 komertzio eta negoziok egin dute bat ekimenarekin
- Euroak txantxiengatik trukatzen dituztenek hobaria izango dute

TXOMIN MADINA | OÑATI

Hilabetetako lanketaren ostean, heldu da txantxia, Oñatiko moneta soziala.

*Elkarri lagunduz* proiektuaren baitan atera dute eta 2013an egindako Komertzioa Biziberritzeko Plana du abiapuntu: herritarren –batez ere gazteen– gastu-ihesa oso handia zela ondorioztatu zuten, eta, hain zuzen ere, gastu-ihes hori mugatu eta kontsumoa fidelizatzea du helburu moneta sozialak. "Ikusi genuen gastu-ihesa geratu egin behar genuela denon artean, Udaletik eta herriko komertzioetatik konpromisoak hartuz eta hitzetatik ekintzetara pasatuz", azaldu zuen eguaztenean Sozioekonomia zinegotzi Josu Lizarraldek, ekimenarekin bat egin duten komertzioetako ordezkariei azken orduko azalpenak emateko egindako bileran.

Oñatin ez bizi arren herrian lan egiten dutenen gastua suspertzea eta egoera ekonomiko zaila bizi dutela-eta tokiko saltoki txikien eskaera sostengatzea eta erraztea ere badira moneta sozialaren helburuak; eta herritarrei eta enpresei tokikoa denarekiko konpromisoa gerturatu eta ikusaraztea ere gura dute.



Udal ordezkariak eta hainbat merkatari eguazteneko bileraren ostean. | T.M.



Sei billete ezberdin egongo dira. | T.M.

ESANAK

**"Gastu-ihesaren kontra, hitzetatik ekintzetara pasatu beharra ikusi genuen"**

JOSU LIZARRALDE
SOZIOEKONOMIA ZINEGOTZIA

### 86 komertzio

Frutategiak, okindegiak, jantzi -dendak, ile-apaindegiak, garajeak, ostatuak, tabernak... Denera, askotariko 86 komertzio, establezimendu eta negoziok egin dute bat ekimenarekin [ikus taula], eta euren establezimenduetan jarriko dituzten pegatinen bidez identifikatu ahal izango dira.

Txantxiaren zabalkundeari dagokionez, Josu Lizarraldek azaldu duenez, lehen hilabeteetan Udala bera izango da txantxiak banatuko dituena: "Udalaren partetik ematen diren sariak txantxitan emango dira. Jaiekin lotuta, aurreikusten dugu 15.000 euro inguru banatzea txantxitan, besteak beste, biharko Herri Egunean".

Udalaren asmoa da, gainera, datorren urtean zerga eta tasen bonifikazioak txantxitan ematea; denera, 25.000 euro.

### Txantxiak erosteko aukera

Txantxi bat euro baten baliokidea izango da, eta sei billete mota aterako dituzte: 10 eta 50 zentimoko txantxiak eta txantxi bateko, bosteko, hamarreko eta 20ko balioa izango dutenak. Herritarrek izango dute txantxiak erosteko aukera, eta urri amaieran edo azaro hasieran zabalduko dute horretarako bulegoa. Euroak txantxiengatik trukatzen dituen herritarrak %5eko hobaria izango du: 100 euro aldatzen dituenak, esaterako, 105 jasoko ditu. Eskuratzeko orduan, gutxieneko kopurua 20 euro izango da eta gehienekoa, 500.

Udala herriko enpresekin ere ari da hartu-emanetan moneta soziala dela eta: "Langileekin edo izan ditzaketen kanpainekin eta promozioekin kontzeptu hau nola txertatu aztertuko dugu. Izan ere, uste dugu herriko industriak ere paper garrantzitsua izan ahal duela *Elkarri lagunduz* proiektuan", dio Lizarraldek.

### Iraungitze data

Txantxiek iraungitze data izango dute: urtean lau, denera. Hala, orain banatuko dituzten txantxiak abenduaren 31 baino lehen erabili beharko dira. Aukera egongo da iraungitze data eguneratzeko, baina horrek ekarriko du txantxiaren balioa murriztea; %3, hain zuzen ere. Era berean, txantxiak ezingo dira itzuli.

Urtebeteko frogaldia izango dute txantxiek, eta udal ordezkariek aurreikusten dute epe horretan 160.000 euro egongo direla txantxitan. Txantxiaren erabilerarekin, gainera, gizarte funts bat sortuko da, udalerrian proiektu solidarioak garatzeko eta tokiko merkataritza sustatzeko helburuarekin.

## TXANTXIAK NON?

- Argi elektrizitatea
- Txantxiku elektrizitatea
- Beloki iturgintza
- Barue interiorismoa
- Muñoz margoak
- Tomas Gezalaga margoak
- Gereta ardoak
- Errekalde autozerbitzua
- San Lorentzo fruta-denda
- Sustrai fruta-dendak
- Txantxiku frutategia
- Bidebarri okindegia
- Errota okindegia
- Eskolatxo okindegia
- Irazola okindegia
- Irizar okindegia
- Txokolateixia
- Antxon harategia
- Garai harategia
- Tarsicio harategia
- Txantxiku harategia
- Fernandez arrandegiak
- Kresala arrandegia
- Ene Bada moda
- Lantzen oihalak
- Letamendi
- Luar
- Marku
- Ni moda
- Urrutia Emakumeak
- Urrutia Gizonak
- Olalde oinetakoak
- Patxi oinetakoak
- Caravanas Oñate
- Lizarralde kirolak
- Mendizabal kirol-denda
- Ane mertzeria
- Arantza mertzeria
- Kuttun lentzeria
- Laket lurrindegiak
- Belar SA
- Aranburu altzariak
- Eurodenda
- Berrerabili
- 2Kode informatika
- Haritza liburu-denda
- Hirukar
- Urzai
- Aranburu bitxitegia
- Sua bitxitegia
- Jabier Erostarbe Studio Grafikoa
- Orpix ikus-entzunezkoak
- Adela ile-apaindegia
- Agurtzane ile-apaindegia
- Dor estetika zentroa
- Guztiz Eder estetika zentroa
- Lamiak
- Sesiñena ile-apaindegia
- Xarma estetika zentroa
- Amaia Diaz de Monasterioguren dietetika
- Amalur belar-denda
- Bidebarrieta fisioterapia zentroa
- Miren Lizarralde fisioterapeuta
- Eskolatxo dentista
- M. Angeles Mendizabal aho sendagilea
- Arkauz optika
- Itziar optika
- Plazola optika
- Mimau albaitaritza eta ile-apaindegia
- Goiko Benta ostatua
- Soraluze ostatua
- Aldapa taberna
- Aloña taberna
- Bikoitz taberna
- Galicia taberna
- Garoa jatetxea
- Olakua taberna
- Zotz jatetxea
- Zurrust jatetxea
- Amets (Ford)
- Berezao (Opel)
- Oñati garajea



PERTSONA NAGUSIEN ZAINTZARAKO ZERBITZUA

BIDEBARRI Enplegu Zentrua

Tel.: 943 71 64 79
bidebarri@terra.com
iurrutia.bidebarri@gmail.com

ZAINTZAILE ETA FAMILIEN ARTEKO BITARTEKARITZA LANAK

ADMINISTRAZIO LANAK
- Kontratu egitea.
- Gizarte Segurantzan alta ematea.
- Nominak egitea.

HAUTAGAIEN AZTERKETA
- Enpresako konfiantzazko langileak.
- Esperientziadunak.

# Oñatiko Margo Taldeko kideen pinturak ikusgai daude kultura etxean

Erakusketa urriaren 12ra arte egongo da, eta egunero zabaltzen dute 18:00etatik 20:00etara

**OIHANA ELORTZA** | OÑATI

Oñatiko Margo Taldeko kideen pinturen erakusketa dago zabalik kultura etxeko erakusketa gelan. Jaietako aire libreko pintura lehiaketako hainbat lan eta Pake Lekuko margolarien lanak ere badaude horiekin batera. "Erakusketa gelara sartzen zarenean, baina, ondo berezituta daude denak. Sarreran, pintura lehiaketako lanak daude eta fondoan, eskumatara, erretiratuen elkartekoak. Bien artean daudenak, erdikoak, dira Oñatiko Margo Taldeko lagunena", azaldu du talde horretako kide Bixente Elgerok.



Erakusketan dauden koadroetako batzuk. | O.E.

**Museora irteera**

Teknika ezberdinak erabilitako margoak dira erakusketan daudenak. Batzuk, oleoan egindakoak, eta beste batzuk, berriz, akuarelekin. Koadro denetan ikusten dena, berriz, paisaia edo erretratua da. Hala, Sta. Marina plaza, Patrue kalea, Lazarraga kalea Olakua auzo parean, Antixena parkea, Arantzazu, itsas bazterrak, etzanda dagoen emakumea edo margotzen ari diren bi neska dira pinturetako batzuk.

Luis Laskurain dute irakasle Oñatiko Margo Taldea osatzen duten kideek, eta astean behin bi orduko saioa jasotzen dute Bidebarri kalean ikastaroak emateko Udalak duen lokalean. "Udalak antolatzen dituen ikastaroen artean, pinturakoan ematen dugu izena guk. Hala ere, talde moduan ere eratuta gaude. Hau da, gure estatutuak ditugu eta urteko batzar orokorra ere egiten dugu. Bestalde, 10 euroko kuota ere ordaintzen dugu urtean", azaldu du Bixente Elgerok.

Hala, urteroko erakusketa horretan parte hartzeaz gain, irteeraren bat edo beste ere egiten dute urtean zehar. "Guggenheimera, Bilboko Arte Ederren Museora, Beasain, Azpeitia edo beste herri bateko museoren batera joaten gara. Ondo ibiltzen gara", dio Elgerok.

# Emakumeendako tailerrak Jabekuntza Eskolan

Dantza afrikarrak, batukada feminista eta emakume zaintzaileendako tailerra dira eskaintzak

**O.E.** | OÑATI

Dantza afrikarrekin emango dio hasiera ikasturte berriari Oñatiko Jabekuntza Eskolak, gorputzaren beste perspektiba bat garatzeko eta transmititzeko helburuarekin. Urriaren 8an izango da lehen saioa, eta asteazkenero emango dituzte, abenduaren 17ra arte. Eteon izango dira saioak, 18:00etatik 19:30era, eta Anne Agirre izango da irakaslea, berdintasun agentea, antropologoa eta Afrikako kultura hainbat arlotan aztertzen dabilena.

Horrez gain, baina, batukada feminista eta emakume zaintzaileendako ikastaroa ere antolatu ditu. Batukada astelehenetan izango da, Eteon, 18:00etatik 21:00etara. Urriaren 13an hasiko da eta martxora arte iraungo du. Emakume zaintzaileendako tailerra, berriz, eguenetan izango da, urriaren 16tik abenduaren 11ra. Hori ere, Eteon.

**Emakume guztiendako**

Oñatiko Jabekuntza Eskola Andraitz emakume talde feministak sortutakoa da, emakumeen topaketarako, prestakuntzarako eta gogoetarako gune izateko. "Elkar eta elkarrengandik ikasteko, emakumeon arteko harremanak saretu, bultzatzeko edo ondo pasatzeko topalekua izatea" gura du Andraitzek

**San Juan kalean**

Tailer horiek Oñatiko emakume guztiei daude zuzenduta eta plazak mugatuak dira; gutxienez zortzi pertsona eta gehienez, 25. Prezioari dagokionez, langileek 30 euro ordaindu beharko dituzte eta langabeek eta ikasleek, berriz, 15 euro.

Informazio gehiago gura izenez gero, San Juan kalean du egoitza Andraitz taldeak. Helbide honetara idatzita ere jar daiteke eurekin harremanetan: *a.jabekuntzaeskola@gmail.com*.

# Hemendik aurrerako pausuak adostu ditu Gure Esku Dagok

**KOMUNITATEA GOIENA** | GURE ESKU DAGO
LIERNI OLMEDO | OÑATI

Gasteizen egin zuen bilera Gure Esku Dagok hemendik aurrerako pausoak zehazteko, eta norabidea adostu genuen bileran parte hartu genuen herri ezberdinetako taldeetako ordezkarion artean.

Hala, hogei ebazpen eztabaidatu genituen eta horietatik hemeretzi izan ziren onartuak. Besteak beste, adostu genuen Gure Esku Dago dinamika erabakitzeko eskubideaz mintzo denean, estatus politikoaren inguruko erabakitzeko eskubidea izango duela ardatz. Antolaketari dagokionez, adostu genuen orain arteko izenarekin, logoarekin eta herri dinamikarekin jarraitzea. Dinamikaren oinarria herriak direla ere bai, eta hileroko herrialde mailako gune bat sortzea ere adostu genuen. Finantzaketaren inguruan, berriz, onartu genuen autofinantzaketa dela Gure Esku Dago dinamikaren jardunbide ekonomikoa, eta unean uneko edo tokian tokiko balizko diru laguntza publikoek ez dutela dinamikaren autonomia urratuko ezta baldintzatuko. Baita estaturik gabeko nazioekiko elkartasuna sustatzea ere.

Egutegiaren inguruan, azaroaren 8an Donostiako Zurriolan mosaiko erraldoia egitea adostu genuen.

# Hilaren 14an hasiko dira Ilunpetan taldearen argazki ikastaroak

**O.E.** | OÑATI

Ilunpetan argazkilari taldeak bi ikastaro antolatu ditu ikasturte berrirako: Argazkilaritza Hastapena izeneko ikastaroaz gain, Argazkilaritzan Sakontzen izenekoa ere antolatu du. Bigarren hori, gainera, lehen aldiz.

Argazkilaritza Hastapena ikastaroa betiko formatuan eskainiko da: ordu eta erdiko hamar saio izango dira, urriaren 14an hasita. Martitzenetan izango dira eskolak, 18:00etatik 19:30era. Prezioa 60 euro da.

Argazkilaritzan Sakontzen ikastaroa, berriz, aurten eskainiko dute lehenengo aldiz. Aurretik hastapen ikastaroa eginda dutenei edo argazkilaritzaren oinarrizko teknikak menperatzen dituztenei zuzenduta dago. Ikasturte osoko iraupena izango du ikastaro horrek eta hiru hiletan banatutako monografikoetan oinarrituko da; Paisaia, erretratua eta argazkigintza dokumentala landuko dira. Ikastaro hori ere urriaren 14an hasiko da, eta astean behin izango dira saioak, 19.30etik 21:00etara. Prezioa 60 euro da hiru hileko.

Izena urriaren 12a aurretik eman behar da *ilunpetan@gmail.com* helbidera idatzita.

## ERRETRATU ZAHARRA



# Kilometroak Oñatin duela 25 urte

Urriaren 1ean, eguaztena, bete ziren 25 urte Kilometroak Oñatin ospatu zela. Harrezkero ez da berriro egin Oñatin Kilometroak jaia. Eli Galdos zen 1989an Oñatiko alkatea, Imanol Murua Gipuzkoako ahaldun nagusia eta Jose Antonio Ardantza lehendakaria. Horiek denak izan ziren Oñatin, milaka lagunekin batera. Txantxiku Ikastolak antolatu zuen jaia.

**Argazkiaren egilea:** Andres Arlanzon. **Jabea:** Oñatiko Udala. **Urtea:** 1989.

# Jarrai dezatela festek, onena gelditzen da-eta!

Artzallus, Agirre, Arregi, Iturriaga, Egaña eta Martin bertsolarien saioa 22:30ean da gaur, Zubikoan


Herritar asko joan ziren Udal Musika Bandak San Migel egunean Lazarragan egin zuen kontzertura.

**OIHANA ELORTZA** | OÑATI

Urriko lehen asteburuan izaten dira herriko jai nagusietako ekitaldi herrikoienetako asko, eta oñatiarren gustukoak izaten dira horiek. Herri Eguna eta Bixamona Eguna izaten dira, adibidez, jaietako egunik onenak askorendako.

**Bertso saioa gaur**

Aurtengo Herri Eguna ere goiz hasiko da. Ohi den moduan, herriko elkarte gastronomikoak zabalik egongo dira salda hartu edo txorizoa jan gura duena sartzeko. Bestalde, animalien eta fruta eta barazki azokaren inguruan, ardien erakusketa izango da aurten lehiaketa izan beharrean, horren antolaketaren ardura duen Nekazarien Elkarteko presidente Jabier Markuletak azaldu duen moduan. Ahuntzak ere izango dira aurten ikusgai. Herriko taberna, artisauak eta sagardo dastatzea ere egongo dira. Baita herri bazkaria ere. Aurten, gainera, segurtasun neurriengatik, 650 lagunendako bazkaria prestatuko dute, bertako produktuekin. Txartelak kultura etxean (arratsaldez) edo udaletxean (goiz eta arratsalde) eros daitezke, 19 eurotan.

Musikak girotuko ditu herriko txoko asko egun osoan. Bestalde, 18:00etan izango dira herri kirolak, eta, horren ostean, lehenengo aldiz, Erdizka Lauetan taldeak joko du Foruen plazan bertan. Dantzari baten gidaritzapean euskal dantzak ikasi eta praktikatzeko aukera egongo da.

Domekan, besteak beste, haur parkea egongo da Etxaluzen –eguraldi txarra egiten badu kiroldegian– 12:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. 13:30ean, berriz, ibilgailu klasikoen karabana ikusi ahal izango da herriko kaleetan zehar. 20:30ean, Balkoitik Balkoira bertso saioa egongo da, Kale Zaharrean, Irazu eta Zubeldiarekin. Astelehena. Errosaixo Bixamona eguna: parranda, mozorroak, paella jana eta Di-Bertsioak jaialdia txosnagunean, 18:00etan, besteak beste.

Gaur, bestalde, bertso saioa dago Zubikoan, 22:30ean. Nagusiendako sarrera zortzi euro izango da eta sei, gazteendako.

**Informazio gehiago:** eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.


Preso eta iheslariei elkartasuna adierazteko bazkaria txosnagunean.


Nagusien danborrada.


Urtean zehar jaiotako haurrei ongietorria egin diete udal ordezkariek.


Sokamutarra.


Oreka TXren ikuskizun ibiltariak herritar asko erakarri zituen.


La Pulga, Atzeko kalean.


*Zuk ekarri zuk jan* familien bazkaria gaztelekuan egin zen.


Julen Aranburu eta Jokin Leibar garaile herriko pilota txapelketan.


Foruen plaza erdia bete zen Mikel Urdangarinen kontzertua entzuteko. | ARGAZKIAK: IRATI GOITIA, IÑIGO BIAIN, IMANOL BELOKI, IMANOL GALLEGO

# Kiroldegia ez dela itxiko argi utzi gura izan du Ana Bolinaga alkateak

- EAJko Uribetxebarriak dio herritarren "kezka iturri" dela kiroldegia
- Kutxabanken gainean ere eztabaidatu dute ohiko osoko bilkuran

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Ohiko osoko bilkura izan zuen Aretxabaletako udalbatzak astelehenean, eta mozioak izan ziren protagonista; Kutxabanken gainekoa, besteak beste. Bestetik, taxien tarifak onartu zituzten: aurten ez dute igoerarik izango.

**Ohiko fundazio izendatzea**

EAJk *eus* domeinuaren gaineko mozioa aurkeztu zuen, eta eskatu Udalaren webguneak domeinu hori izan dezala Euskararen Nazioarteko Egunerako. Dagoeneko erosita dagoela jakinarazi zioten Bilduko kideek; hala ere, aho batez onartu zuten.

Bigarren mozioa Bilduk aurkeztu zuen, alkateen aukeraketaren gainean PPk egin gura duen erreformaren aurka. Hor ere bat etorri ziren kide guztiak eta aho batez onartu zuten.

Hirugarren mozioa Kutxabanken izaeraren gainekoa izan zen. EH Bilduk aurkeztu zuen eta horrekin eskatu ohiko fundazio bihurtzeko pausoak ematen hastea; hala, izaera publikoa eta soziala bermatzeko. Ana Bolinaga alkateak zera azaldu zuen: "Kutxabanken kontrol soziala eta politikoa herritarrengandik ahalik eta hurbilen egotea ezinbestekoa da". Akzioak erakundeen artean banatzea proposatu zuten Aldundiaren eta Gipuzkoako udalen artean, besteak beste. "Gure proposamena onartuz gero, Aretxabaletari 4.000 akzio pasatxo dagozkio".

EAJko zinegotzi Mikel Uribetxebarria ez zen bat etorri mozio horrekin. Aldundiak egindako proposamena ez dela bideragarria aipatu zuen, eta "porrota" ekarriko duela.

PSE-EEko zinegotzi Jorge de Castrok, ostera, aipatu zuen udaletxeko osoko bilkura ez dela "makroekonomiaren gainean eztabaidatzeko gunea". Hala, Bildukoen eta Aralarkoen botoekin onartu zuten mozioa; beste biek aurka bozkatu zuten.

**ESANAK**

**"Abenduaren 31ra arte dago UTEa kiroldegian, eta urtarrilaren 2an zer?"**

MIKEL URIBETXEBARRIA | EAJ

**"Kiroldegia kudeatzeko moduaren berri egunotan emango dugu"**

ANA BOLINAGA | ALKATEA

**Kiroldegi "defizitarioa"**

Ohiko osoko bilkura izanik, galderendako tartea egon zen eta hori aprobetxatu zuen EAJko Uribetxebarriak Ibarra kiroldegiaren kontua mahai gainera ateratzeko. Kiroldegiaren kudeaketaren ardura duen UTEak, hau da, hiru enpresak osatutako elkarteak, abenduaren 31n "utzi" egingo diola kudeatzeari aipatu zuen, eta urtarrilean zer gertatuko den jakin gura izan zuen, "herritarrak kezkatuta" daudelako.

Bada, alkateak argi utzi gura izan zion: "Kiroldegia ez da itxiko, eta zurrumurruetan oinarritutako politikarik ezin da egin".

Onartu zuen kiroldegia "defizitarioa" dela, bideragarritasun planak zioen 3.000 abonatu kopurura ezin delako iritsi. Hala ere, UTEarekin negoziatzen dabiltzanez eta akordio batera iristear daudenez, "diskrezioarekin" jokatu gura duela aipatu zuen: "Kudeatzeko moduaren berri datozen egunetan emango dugu".

## Herriko iturriak ezagutzeko ibilaldia dago urriaren 12an

Uraren eta Errekaren Astea antolatu du Debagoieneko mankomunitateak urriaren 13tik 19ra bitartean, eta hainbat ekintza egingo dituzte egun horietan.

Aretxabaletako Ingurumen Sailak bere aldetik, herriko lau iturri ezagutzeko ibilalditxoa egingo du urriaren 12an, domeka. Herriko Plazatik irtengo dute, 10:00etan, eta goiz pasa joan lau iturriok dauden lekuetara. Antolatzaileek jakinarazi gura izan dute umeei egokitutako ibilbidea izango dela.

## 'Kondaira baten truke' umeen txalo eske dator Patata Tropikala

Antzerkiak zabaldu du Arkupeko urriko egitaraua, eta domekan, 17:00etan. *Kondaira baten truke* izango dute umeek Patata Tropikala taldearen eskutik. Natura eta mitologiako pertsonaiak bat eginda elkartasunaren eta errespetuaren gainean hausnartzera bultzatuko ditu neska-mutikoak, beti legez kolorea, irudimena eta umorea erabilita.

Hurrengo domekan, ostera, Poxpolo eta konpainia pailazoen ikuskizuna izango da.





AMAIA MURGIONDO

## Murubideko jolasparkea gertu

Itxura polita hartu du Murubide plaza inguru osoak. Batetik, plazaren berritze lanak egin dituzte: igeltserotza eta zolaketa lanak; ur hornikuntza eta drainatze lanak; argiteria eta galdaragintza; eta pintura eta lorezaintza lanak. Eta bestetik, jolasparke berria jarri dute: erabilera askotariko kirol kantxa –futbola, saskibaloia, boleibola, hockeya eta badmintona egiteko– eta umeendako gunea helikoptero itxurako jolasarekin. Lan guztien kostua 196.762 euro izan da.

# Hondakinen larrialdi-guneak automatizatuta funtzionatuko du orain

943-25 22 88 telefono zenbakira deitu behar da, eta pausoak jarraitu

M.A. | ARETXABALETA

Astelehenetik aurrera (urriak 6) Aretxabaletako hondakinen larrialdi-guneak, Markole auzoan dagoenak (futbol zelai ondoan), automatizatuta funtzionatuko du. Hala, herritarrek ez diete udaltzainei deitu beharrik izango.

Ingurumen zinegotzi den Lore Martinez Axperen esanetan Aretxabaleta, Oñati eta Debagoieneko mankomunitatea "aitzindari" izango dira Gipuzkoan, larrialdi gune automatizatua eskaintzen: "Telefonoz deitu eta azalpenak jarraituta, atea irekitzeko kodea jasoko da; gero, hondakinak sartu ahal izango ditugu gaikako edukiontzietan", argitu du, eta era berean gogorarazi: "Larrialdi-gunea egoera berezietarako da".

**Kodea eskatzeko pausoak**

Zerbitzu hori behar duenak honako telefono zenbaki honetara deitu beharko du: 943-25 22 88. Erantzungailu automatikoak erantzuten du hor, eta pauso hauek jarraitu beharko dira: hizkuntza aukeratu: euskaraz (sakatu 1) edo gazteleraz (sakatu 2). Norberaren telefono zenbakia aurretik emanda izanez gero, hurrengo pausora pasatuko da; bestela, honako hau eskatuko du: hamabi zenbaki dituen zabor kodea, hau da, ontzietako goiko zenbakia, pegatinan agertzen dena.



Markole auzoan dagoen hondakinen larrialdi-gunea. | LORE MARTINEZ AXPE

Herria aukeratuko da gero: Aretxabaleta aukeratzeko sakatu 1; herri baten baino gehiagotan izanez gero etxea, aukera ematen du beste herri horretako posta kodea sartu eta hango larrialdi-gunera eramateko. Horren ostean, erantzungailuak larrialdi-gunea zabaltzeko kodea emango du (24 ordutan baliagarria). Gero, kode hori onartu egin behar da 1 sakatuta; hori egin aurretik berriro entzun gura izanez gero zein den kodea, itxaron. Telefonoa erregistratu gabe izanez gero, sisteman gordetzeko aukera ematen du 1 zenbakia sakatuta; hala, hurrengoan, ontzietako kodea sartu beharrik ez da izango. Bukatzeko, larrialdi-gunera jo eta erantzungailuak emandako kodea sartu besterik ez dago atea zabaltzeko.

Bestalde, hondakinen informazio bulegoaren ordutegia aldatu egingo dute. Hona berria: astelehenetan, 10:00etatik 14:00etara; eguaztenetan, 10:00etatik 14:00etara eta 15:00etatik 19:00etara; eta egubakoitzetan, 10:00etatik 14:00etara.



Maite Marcos aretxabaletarra filmeko beste protagonista batekin. | MAITE MARCOS

# Maite Marcos agertzen den filma western zinemaldian

## Almerian estreinatuko dute Araban grabatutako 'Algo más que morir' filma

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Urriaren 10etik 12ra bitartean Almeriako Taberna herrian egingo duten western zinemaldiko lehiaketan *Algo más que morir* filma emango dute (2014, 74 min.). Orain dela lau bat urte grabatu zuten Kuartango herrian (Araba) eta aktoreen artean dago Maite Marcos aretxabaletarra. "Nork pentsatu behar zuen gure filma lehiaketa batean egongo zenik, eta film handien alboan, gainera!", dio hunkituta.

**Estreinaldia urriaren 11n**

Kuartangon eta inguruko parajeetan grabatu zuten. Diru laguntza gutxirekin baina ilusio handiarekin: "Jasotako laguntza apurrarekin herria egokitu genuen. Nire jantzi guztiak neuk josi nituen, baita beste batzuenak ere, eta elkarri makillatzen genion", dio Marcosek, eta gaineratu: "Abentura handi bat izan zen guztia, eta orain, abentura horren saria dator". Izan ere, uste du "aparteko" saria dela Almeriako zinemaldian lehiatzea: "Nire ilusioa filma pantaila handian ikustea zen, Gasteizko zinemaren baten-edo, baina lehiaketa batean estreinatzea? Hori Maestranzan toreatzea da!".

Datorren egubakoitzean joango dira Tabernara, filma zapatuan estreinatuko dute-eta (Udal Antzokian, 12:00etan). Kuartangotik 70 bat lagun doaz, alkatea gidari hartuta. "Oraindik inork ez dugu ikusi filma. Nik neuk zatirik ere ez muntatzen ibili zirenean, desilusiorik ez nuen izan gura-eta", dio. Eta emanaldiaren ostean solasaldia egingo dute.

Arrakasta handia izan duten *El llanero solitario*, *Mil maneras de morder el polvo* eta beste hiru filmen alboan lehiatu ondoren, *Algo más que morir* Gasteizko zinemaren batera eroateko asmoa du produkzio-etxeak.

**FITXA**




'ALGO MAS QUE MORIR'

**Zuzendariak eta gidoilariak:** Jose Luis Murga eta Oier Martinez de Santos.

**Aktoreak:** Jose Luis Murga, Maite Marcos, Laida Burguera, Javier Salazar, Kepa Jimenez.

**Musika:** German Ponte.

**Produktorea:** Prosopopeya.



M.A.

# Kantuan eginda agur Kultura Asteari

Ekitaldiz ekitaldi ibili dira Basotxoko erretiratuak Kultura Astean. Hitzaldiak eta aisialdi kontuak tartekatu dituzte eta astea bukatzeko mendi buelta egin zuten Izurieta, Galartza eta Gellao elizatetatik. Sanmigel zapatuan, ostera, herriko bazterrak girotu zituzten Arrasatetik eta Eibartik etorritako erretiratuekin batera.

# Kurtzebarri eskolako ortuaren proiektuak hogei urte bete ditu

KOMUNITATEA GOIENA | MIREN BEREZIBAR
KURTZEBARRI ESKOLA | ARETXABALETA

Eskola eremutik kanpo badago non eta zer ikasi, badago zer deskubritu eta non disfrutatu. Uste horiekin jarri genuen duela hogei urte Eskola Ortuaren Proiektua martxan. Udalarekin harremanetan jarri ginen lursail txiki bat eskuratzeko. Horrekin batera, Udaleko langile eta ortu kontuetan aditu eta saridun Jose Lonbide gure aholkulari eta laguntzaile izendatu ziguten. Zorionekoak gu, eskatutakoa eman ziguten-eta. Honela, Eskola Ortuaren Proiektua ikastetxeko hezkuntza proiektuan eta curriculum proiektuan txertatu genuen.

**Sanmigeletako azokan**

Azpiegitura horrekin eta eskolan pilatutako ilusioaz lur zatitxo hori poliki-poliki ongarritzen hasi ginen 1. eta 2. mailetako ikasleak eta irakasleak.

Esku artean landareak, eskuak eta oinak lurrean, ukitu, busti, erein, jaso, landatu berriro, hazien txikitasunetik garatu daitekeenaren aurrean begiak harrituta zabaldu... Eta ikasi: sustraiak non dauden; piper landarea eta tomatearena bereizten; zulotxoak lurrean egiten; aitzurtxoa eta pala erabiltzen... Animalia ezberdinak ezagutu, naturarekin harremanak sendotu, natura zaindu, produktu ekologikoak landu, garaiko produktuak ezagutu...

Ekimen honek, gainera, badauka aparteko erakusleihoa: Aretxabaletan urtero ospatzen den sanmigeletako azoka ekologikoa. Sasoiko produktuak eramaten ditugu saltzera. Han, eragiketa matematikoak eta marketin lanak egiteko aukera egoten da. Eta hau guztia herritar eta gurasoekin konpartitzen dugu.

Ortuan ikusi eta ikasi dugu lurrak bere sekretuak erakusten dizkigula, disfrutatzen eta ikasten dugun bitartean. Eta segitzen dugu proiektu honekin aurrera, egunero, zerbait ikasiz, ilusio handiz...




Kurtzebarri eskolako kideak Jose Lonbiderekin, azokan. | IMANOL SORIANO

# Alkoholaren gaineko hausnarketa Peter Roberts mimoarekin

M.A. | ARETXABALETA

Peter Roberts mimo ospetsuaren bisita izango dute gaur, egubakoitza, Kurtzebarri institutuan. Alkoholaren kontsumoaren gaineko hausnarketa bultzatuko du hark ikasleen artean. Udaleko Prebentzio Zerbitzuarekin elkarlanean antolatutako saioa da, eta horren ondoren, *www.teatromimo.com* webguneari lotutako hainbat proiektu landuko dituzte.



Mimo ezaguna. | PETER ROBERTS

## Zaragozara irteera antolatu dute urriaren 12rako, Pilareko Amaren Eguneko ospakizunak ezagutzeko

Urriaren 12an, Pilareko Amaren Eguna, Zaragozara egun-pasa joateko aukera izango dute herritarrek. Gura duenak meza entzun ahal izango du, eta ondoren hirian izango den jai giroa ezagutu: azoka, kalejirak, musika...

Autobusa 06:00etan irtengo da Aretxabaletatik eta 22:30ean itzuliko da Zaragozatik; prezioa 50 euro da. Izena eman gura dutenek dei egin dezatela telefono zenbaki honetara: 943 53 38 89 (Mertxe).

## Areto futbola bete-betean sartuko da denboraldian

M.A. | ESKORIATZA

Areto futboleko talde guztiek hasiko dute denboraldia aste bukaeran. Partidu guztiak, gainera, etxean dituzte; hortaz, zaleak eztarriak gertatu beharrean dira.

Domekan dira hiru partiduak, kiroldegian: 13:30ean, gazteen ohorezko taldeak jokatuko du Castro Urdialesen aurka; 16:15ean, lehen mailako erregionalak hartuko du Marianistas taldea (Gasteiz); eta 18:00etan, Euskal Ligak Soloarte Berriz izango du aurkari.

Gazteen ohorezko taldearendako eta Euskal Ligakoarendako denboraldiko lehen partiduak dira. Lehen mailako erregionalarendako, ostera, hirugarrena. Lehenengoa galdu egin zuen etxean, bigarrena berdindu eta hirugarrena irabaztea tokatzen zaio.

# Haurren heziketan laguntzeko prestakuntza zikloa egingo dute

▶ Hezkuntza Foroak antolatu du eta Nerea Mendizabal adituak gidatuko du
▶ Emozioak, zigorrak eta komunikazioa landuko dituzte, batez ere

MIRARI ALTUBE | ESKORIATZA

Haurren heziketa eta komunikazioa ardatz dituen prestakuntza zikloa antolatu du udazkenerako Eskoriatzako Hezkuntza Foroak: Koldotxo guraso elkartea; Arizmendi ikastolako gurasoak; eta Luis Ezeizako gurasoak. Aurten egingo duten bigarren zikloa da, maiatzean nerabezaroaren gainekoa egin zuten-eta. Oraingoan, Nerea Mendizabal adituak gidatuko ditu eskola horiek, eta txikienak izango ditu ardatz.


Nerea Mendizabal aditua. | N. MENDIZABAL

**12 urte artekoen gurasoendako**

"Haurren heziketan eta komunikazioan aditua den Nerea Mendizabalekin antolatu dugu zikloa, hiru gai nagusi jorratzeko", jakinarazi du Maider Etxanizek, Gazteria teknikariak. Eta gai horiek dira: emozioak eta mugak; zigorrak eta aukerak; eta errespetuzko komunikazioa. "Psikopedagogian lizentziaduna da Mendizabal, Gizarte Hezkuntzan diplomaduna, hezitzailea haur masajean eta guraso, hezitzaile eta haurren harremanetan aditua", gaineratu du Etxanizek. Saio horiek, batez ere, 12 urte bitarteko haurrak dituzten gurasoei, hezitzaileei eta irakasleei zuzenduta daude, baita interesa duten gainerakoei ere.

**Izen-ematea urriaren 8tik**

Izena emateko epea datorren eguaztenean, urriak 8, zabalduko dute. Eta eman ahal izango da honako leku hauetan: Jose Arana; Luis Ezeiza; Almen; eta kultura etxea (Gazteria Zerbitzua).

Hitzaldi bakar batean edo hiruretan (euskaraz eta gazteleraz egingo dituzte hirurak) eman daitekeela jakinarazi dute antolatzaileek "norberaren interesaren arabera". Azken eguna urriaren 21a da.

### SAIOEN EGUTEGIA:

**URRIAK 23**
**Hitzaldia:** *Haurren emozioak eta mugak.*
**Non:** Kultura etxean.
**Ordua:** 15:00etan, gazteleraz.
**Ordua:** 17:30ean, euskaraz.

**URRIAK 30**
**Hitzaldia:** *Zigorren aurrean beste alternatiba batzuk.*
**Non:** Kultura etxean.
**Ordua:** 15:00etan, gazteleraz.
**Ordua:** 17:30ean, euskaraz.

**AZAROAK 6**
**Hitzaldia:** *Errespetuzko komunikazioa bizitzarako komunikazioa.*
**Non:** Kultura etxean.
**Ordua:** 17:30ean, euskaraz.

**AZAROAK 17**
**Hitzaldia:** *Errespetuzko komunikazioa bizitzarako komunikazioa.*
**Non:** Kultura etxean.
**Ordua:** 15:00etan, gazteleraz.

# Irteera eta 'gaba baltza' urrian gaztelekuan

Gaur eta bihar apaintze lanetan jardungo dute, eta domekan sukaldean

M.A. | ESKORIATZA

Orain dela hamabost bat egun zabaldu zituzten gaztelekuko ateak denboraldi berriari begira, eta orain, urriari ekiteko gogoz daude gazteak. Ekintzaz betetako aste bukaerak iragarri dituzte; gaur eta bihar, esaterako, apaintze lanetan jardungo dute, Xabi Arenatza begiraleak dioenez: "Gaztelekura hurbildu diren lagun berriek ere lokala eurena senti dezatela gura dugu, gustura egon daitezela, eta, horretarako, hormaren bat euren gustura apaintzeko aukera izango dute". Hori bakarrik ez: domekan erretiratuen egoitzara joango dira eta sukaldean jardun.


Gaztelekuaren irekiera ofiziala orain dela hamabost egun. | XABI ARENAZA

**Otxandiora irteera**

Urriaren 10etik 12ra, ostera, bidaiak izango dira protagonista. Batetik, hainbat eskoriatzarrek egindako bidaien berri emango diete gazteei, eta bestetik, gazteek eurek ere aukera izango dute kontu kontari jarduteko.

Urriaren 17tik 19ra bitxiak egingo dituzte askotariko materialekin; fimoarekin eta alanbrearekin, esaterako. Eta hilaren 25ean, zapatua, irteera egingo dute: "Otxandioko parkera joatea pentsatu dugu, baina gazteei azalduko diegu lehenengo proposamena eta guztion artean erabaki", argitu du Arenatzak. 26an, ostera, *Pura vida* dokumentala emango dute. Eta urria bukatzeko, 31n, *Gaba baltza* egingo dute: "Gau paganoa izango da, ouija taula eta guzti erabiliko dugu".


ESKORIATZAKO UDALA

## Bazkariko nagusienei oparia

Erretiratuak omendu zituen joan den domekan Udalak, beste behin. Bazkaria eskaini zien, eta, horren ostean, bazkarira joandako emakume eta gizonezko nagusienak omendu zituzten: Elena San Vicente 91 urteko emakumea eta Pablo Ganboa 96 urteko gizonezkoa. Jose Mari Herce eta Arantza Iregi zinegotziek banatu zizkieten opariak; gainerako erretiratuek ere jaso zuten oroigarria.

ESKORIATZAN
LURSAILA EROSIKO NUKE
(NAHIAGO HERRITIK GERTU)
618 76 34 40

### Mantenu ikastaroan izena emateko azken eguna da gaur

*Kirol instalazioen mantenua eta herri lanak* izeneko ikastaroa antolatu du Udalak eta izena emateko azken eguna gaur da, urriak 3. Horretarako, Gizarte Zerbitzuetara deitu behar da: 943-71 31 36.

Eskolak euskaraz dira, urriaren 27an hasiko dituzte eta abenduaren 5ean bukatuko dira (ordutegia: 15:30-19:30).

### Umeen capoeira ikastaroa astelehenean hasiko dute

Astelehenean hasiko dituzte capoeira eskolak umeek, baina oraindik eman daiteke izena. Hona: *www.senzalaeuskadicapoeira.com* eta 625 77 22 95. Eskolak astelehenetan izango dira eta bi talde egingo dituzte: 4 eta 6 urte artekoak, 17:00etatik 17:45era; 7 eta 9 urte artekoak, 17:45etik 18:45era. 20 euro da hilean.

### Kremak eta pomadak egiteko ikastaroan izena eman daiteke

*Zuk zeuk egin* izeneko ikastaroen barruan, kremak eta pomadak egiten irakatsiko dute urriaren 25ean, zapatua. Sara Letamendia izango da ikastaroaren gidaria eta gazteleraz egingo du.

Izena emateko epea astelehenean zabalduko dute. Kultura etxera jo behar da (943-71 46 88). Prezioa 10 euro da eta plaza mugatuak daudela jakinarazi dute.

### Mendekotasunen bat dutenen zaintzaileen taldea osatu gura dute

Mendekotasunen bat duten herritarren zaintzaileendako laguntza taldeak finantzatzen ditu Aldundiak, eta Eskoriatzan ere osatu gura dute talde hori. Izena emateko epea zabalik dago urriaren 17ra arte. Taldea hileko laugarren eguenetan elkartuko da Ibarraundin. Izena emateko Gizarte Zerbitzuetara jo behar da (943 71 31 36).

# Beltzuntze elkarteari herriko bandera

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Martitzen arratsaldean ezohiko osoko bilkura egin zuten. Bertan, aho batez onartu zuten zinegotzi guztiek Aiherrako Beltzuntze elkarteari herriko bandera ematea. "Antzuolako herriaren izena zabaltzen lagundu du eta bi herrien arteko senidetzea indartu du 30 urtean; azaroaren 22an herriko bandera emango diogu", dio Ima Beristain alkateak.

**Kutxabanken mozioa**

Osoko bilkuran zer esana eman zuen Bilduk aurkeztutako Kutxabanken gaineko mozioak. EAJko zinegotziek euren desadostasuna azaldu zuten. Aldundiaren proposamena berandu iritsi izana eta legez kanpokoa dela adierazi zuten: "Ez da legala, azken orduko kontu bat izan da. Ezker Abertzalea ez da batzarretara azaldu. Beren ustetan kontrol publikoa horrela bermatuko litzateke: Kutxak erakunde publikoei berezko duen ondarea doan emanda. Txostena egin duen abokatuari galdetuz gero, kontu handia dauka baiezkoa erantzuteko orduan; txostenak ez duela horrelakorik jasotzen dio. Inola ere ez dugu nahi Kutxa Espainiako bankuaren eskuetan uztea", dio Maria Eugenia Arrizabalagak. Bilduk, ordea, Aldundiak egindako proposamena legala dela dio. "Abokatuek landutako proposamena legala da. Hor erabaki politikoa dago. Banku fundazioa sortu nahi dute, eta ez fundazio ordinarioa. Zoritxarrez, ondorioak urte batzuetara ikusi beharko ditugu eta agian ez dute atzera bueltarik izango. Pena da, ez dute proposamena aztertu ere egin, mahai gainean aztertzera jarri ere ez dira egin eta bertan behera bota dute", gaineratu du Beristainek.

**Auzi-errekurtsoa**

Bestalde, jakinarazi zuten Udalak Udalbiltzari diru laguntza emateagatik auzi-errekurtsoa jaso duela. Auzi-errekurtsoak dio Udala herrira mugatu behar dela soilik eta Udalbiltzari diru laguntza ematea lurraldetasun printzipiotik kanpo dagoela. Beraz, laguntza hori nulua dela. Alkateak azaldu duenez, auzia errekurrituko dute: "Denen artean abokatu bat kontratatu dugu gaia eramateko".

**Hitzarmena**

Musika Eskolaren eta Udalaren arteko lan-hitzarmena ere onartu zen. "Herritarrekin landutako hitzarmena da. Gurasoekin egin ditugu moldaketak", argitu du alkateak.



Olaran etxea da herritarrekin aztertuko den eraikinetako bat. | MAIDER ARREGI

# Abian da eraikin eta espazio publikoen aurre-diagnosia

## Azaroa eta abendua bitartean herritarrekin partekatuko da aurre-diagnosi proposamena

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Herriko eraikin eta espazio publikoen erabilera hausnartzeko eta aztertzeko prozesua abiatu du Udalak. Asmoa, baina, herritarren parte-hartzearekin egitea da. Eraikinak eta espazioak zein egoeratan dauden, ze erabilera duten eta nola egoki daitezkeen herritarren premietara aztertu gura da. Izan ere, asmoa da horien erabilera egokia eta funtzionamendu egokiagoa bideratzea. "Hauteskundeetan eta legegintzaldi hasieran agindu genuen gauza bakarra da. Izan ere, herrian sumatzen da herritarrek ez daukatela garbi herriarena zer den. Aurrekontuen gaineko parte-hartze prozesuan gai honek kezka sortzen duela ikusi genuen", dio Ima Beristain alkateak. Horregatik, orain teknikoak eta politikoak elkarrekin, aurre-diagnosi bat egiten dihardute gero, herritarrekin lantzeko. "Iraila eta urria bitartean diagnosia egingo dugu; azaroa eta abenduan, aldiz, herritarrekin partekatuko dugu", gaineratu du.

"Herriko gune guztiak aztertuko dira; batzuk ez ditugu ukituko, baina azalpena emango diegu herritarrei, jakin dezaten ze erabilera duten. Olaran, esaterako, erabilera handiena duen eraikina da. Publikotasuna indartu edo pribatuari lekua egin arautuko dugu herritarrekin".

**Udaletxeko irisgarritasuna**

Udaletxeko irisgarritasun lanek daukatela lehentasuna azaldu du Beristainek. "Jende askorendako ezinezkoa da bulegoetara etortzea. Horregatik, sarrera egokitu behar dugu eta igogailua jarri. Hori ez da aukera bat, derrigorrezkoa den beharra da".

**Diagnosi teknikoa**

Hirigintza teknikari Valen Monuxek azaldu duenez, espazio eta eraikin publikoen gaineko fitxa informatiboak egingo dituzte: "Udalaren eraikinen eta aisialdiguneen gaineko azterketa teknikoa egingo dugu. Bakoitza nolakoa den definituko dugu eta hauen ezaugarri teknikoa jasoko da fitxan". Ondoren, fitxa horietan jasotzen dena herritarrekin kontrastatuko da azaroan.

# 100 urte bete ditu Miguel San Sebastianek

Irailaren 29an bete zituen Miguel San Sebastian antzuolarrak 100 urte. Torresoroako babespeko etxebizitzan bizi da eta egoitzan bertan omenaldi xume eta hunkigarria egin zioten. Han batu ziren familiako kideak eta etxebizitzetako kide eta langileak. Ima Beristain alkateak lore sorta eman zion San Sebastiani.



GIZARTE ZERBITZUAK

### Gaztetxeak bigarren urteurrena ospatuko du, gaurtik hasita

Gaur, barikua, eta bihar, zapatua, adin eta gustu guztiendako ekintzekin gozatzeko aukera izango da. 20:30ean afari parte-hartzailea; ondoren, Bergako Orkestrako hari taldearen kontzertua. Bihar, 11:00etan umeendako jolasak, 14:30ean bazkaria, 19:00etan poteoa eta 23:00etan kontzertuak: Guri5 erromeria eta Elvis Caino DJ.

NIRE USTEZ



AITZOL ITURBE

# Gauza gehiegi

Gauza asko eta leku gutxi. EAJ, PSE eta PPk ez dute onartu Kutxen akzioak udalen eta Diputazioaren esku uzteko Gipuzkoako Foru Aldundiaren proposamena. Hau da, kontrol publikoa bermatu dadin, denona dena denon eskuetan uzteari ezetz esan eta pribatizazioarekin jarraitzea erabaki dute. Beraien konfiantzazko lagunak ipiniko dituzte zuzendaritzetan, eta agur kontrol publikoari. Lapurreta larria obra sozialaren aurka, ehun industrialaren aurka... Urte luzeetan eraikitako finantza tresna publikoa interes espekulatibo hutsen esku geratuko da. Erantzuleek izen eta abizenak dituzte. EAJ, pertsona helburu?

Beste eraso larri bat ere gertatu zen joan zen astean. 28 euskal herritar gazteren aurkako epaiketa hasi zen Madrilen, eta Herri Harresia burutu genuen Loiolan epaiketara ez aurkeztea erabaki zuten bostei (eta gainerakoei) babesa emateko. Espainiako legeei desobedientziaz erantzun zieten gazteak atxilotzera bidali zituzten ertzainen jarrera: lotsagarria. Nahikoa azalpen da kazetariak kanporatu izana. Urkullu, Estefania... Jakin ezazue (badakizue) noizbait Espainiako lege eta agindu injustuei menik ez egin eta Ertzaintza euskal herritarrak atxilotzera bidaltzen ez duzuelako Guardia Zibila zuen bila etortzen bada, Herri Harresian izango garela. Egun horretan Euskal Herriak bi aldiz irabaziko du.

**"Finantza tresna publikoa interes espekulatiboen esku geratu da"**

LARREA
TABERNA
Kalebarren 17
ANTZUOLA

GAILUR
taberna eta gozotegia

Buztinzuri 13 ANTZUOLA
Tel.: 943 78 70 32

MUJIKA HARATEGIA
Berezitasunak:
Etxean hazitako zekorrak eta oilaskoak
Kalebarren 1
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 64 34

# "Astiro" baina "eten gabe", aurrera doa biomasa proiektua

Udala elkarlanean ari da erakundeekin; sentsibilizazio kanpaina, laster martxan

**JOKIN BEREZIARTUA** | ARAMAIO

Legealdi honetako Udalaren proiektu estrategikoen artean dago, zalantza barik, biomasa proiektua. Basoetako egur baliabideak erabilita sortutako energiari esker, herriguneko etxeetan ur beroa banatzea da proiektuaren funtsa eta Udala buru-belarri ari da horretarako lanean.


Ramon Ajuria alkatea irailean Zaragozan egindako aurkezpenean. | ARAMAIOKO UDALA

**Udala, "itxaropentsu"**

Proiektua aurrera doa, "astiro" baina "eten gabe": "Kanpoko diru -laguntzen menpe dago proiektuaren bideragarritasun ekonomikoaren bermea. Proiektua zenbait diru laguntza lerrotara aurkeztu du Udalak, eta gainerako erakundeekin harremanak sendotu dira, denon artean proiektua bideragarria izateko asmoz. Erakundeendako ere interes handiko proiektua da, gaur egun ez dagoelako halako proiektu integralik estatu mailan".

Udaleko ordezkariak "itxaropentsu" daude: "Pausoak espero baino astiroago ari gara ematen, beste erakundeen babesa ezinbestekoa baita. Zentzuz eta arduraz jokatzea ezinbestekoa da une honetan", adierazi dute.

**Biomasa batzordea, astero**

Udaleko ordezkariek, alkatea buru dutela, hainbat irteera egin dituzte azken hilabeteotan; azken irteera Zaragozakoa izan zen: "Energiaren inguruko hainbat adituk hartu zuten parte, eta oso jardunaldi aberasgarria izan zen. Estatu mailan garatuko diren bi proiektu aurkeztu ziren: Vilafranca del Penedesko proiektua –*Vinyes per calor*– eta Aramaioko burujabetza energetikoa lortzeko proiektua". Era berean, hainbatek erakutsi dute interesa Aramaioko proiektuarekiko. Egun, Biomasa batzordea ari da gaia lantzen; ordezkari politikoek, teknikariek eta herritar talde batek osatzen dute eta martitzenetan elkartzen dira: "Askotariko jendea dago: ingeniariak, baso kudeaketan adituak... Aberasgarria da, ikuspuntu eta sentsibilitate ezberdinak biltzen ditu-eta".

Bestalde, herritarren inplikazioa ezinbestekotzat dutenez, sentsibilizazio kanpaina abiatuko dute laster; askotariko ekintzak egingo dituzte.

## Elikaduraren eta kontsumoaren gaineko saioa gaur

**J.B.** | ARAMAIO

EHNE sindikatuak antolatuta, *Elikadura eta kontsumoa iraultzarako bideak* izeneko jardunaldia hasi zen atzo kultura etxean. Leku berean egingo da bigarren saioa gaur, hilak 3. Honako hau da helburua, antolatzaileen arabera: "Kontsumoa eraldaketa sozialerako tresna izan daitekeela aztertzea da jardunaldion helburua. Kontsumoa da, hain zuzen, eredu ekonomiko neoliberalaren oinarrietako bat. Pertsona bakoitzak egunero hainbat aldiz kontsumitzen du: eguneroko ekintza horren balio eta izaera politikoa berreskuratu beharra dago".

**Hainbat esperientzia ezagutzen**

Helburu hori nola bete aztertzeko asmoarekin, kontsumoaren inguruan beste herrialde batzuetan garatutako esperientziak ezagutzen dihardute eta baita maila lokaleko esperientziak partekatu eta eztabaidatzen ere: "Gehiago ikasi gura dugu, guztiok parte hartzen dugun aldaketa prozesuan aurrera egiteko", adierazi dute EHNEkoek. Gura duenak parte hartzeko aukera izango du; argibide gehiagorako: 658 70 60 23.

## Parte-hartzea asko jaitsi da Aranaren omenezkoan

KOMUNITATEA GOIENA
ORIXOL ELKARTEA | ARAMAIO

Aitor Aranaren omenezko XVIII. mendi martxako 31 kilometroak egiteko 58 mendizale animatu ziren eta gehienek amaitu zuten. Parte-hartzea asko jaitsi da aurten, nahiz eta eguraldi bikaina egin. Eskerrik asko animatu zineten guztioi eta antolakuntza lanetan aritu zinetenoi. Datorren urtean gehiago!


HAIXEOLA

NIRE USTEZ


**ANDERE ARRIOLABENGOA**

## Aramaio herri euskalduna

Zenbat aldiz entzun ote dugu Aramaio dela Arabako herri euskalduna. Uemako partaide, gainera! Askok inbidiaz begiratzen dute gure herria eta ez gutxik eredutzat gaituzte.

Akaso itsututa egongo naiz, baina nik ez dut gure herrian euskararen egoera hain osasuntsu ikusten. Bi dira bereziki kezkatzen nauten esparruak: alde batetik, haur eta gazteak. Beste leku askotan gertatzen den bezala, eskolan euskaraz egiten dute, kasu gehienetan etxean ere bai, baina lagunekin elkartzean gaztelera da sozializaziorako hizkuntza.

Bigarren multzoa gurasoak gara. Ni ere bertan sartzen naiz, ez nago-eta erantzukizunetik at. Eremu orotan bezalaxe, euskaraz jarduten ez duen norbait egonez gero, beste denok egiten dugu salto gaztelerara.

Eskolako atean, parkean edo plazan, ohikoa da euskara ez beste hizkuntzaren bat entzutea. Norbere buruarekin hausnartu beharrekoa dela deritzot, ohitura txikiak aldatuz eraldaketa erraldoiak lortzea posible baita.

Erlaxatu egin ote gara? Berezko euskaldunak garela uste al dugu? Aramaioarron RHa euskararekin bat datorrela uste al dugu?

Esamoldeak dioen bezala, gauza bat argi izan behar dugu: hizkuntza bat ez da galtzen ez dakitenek ikasten ez dutelako, dakigunok hitz egiten ez dugulako baizik!

**"Erlaxatu egin gara? Berezko euskaldunak gara?"**

## Urriaren 7an kobratuko da ondasun higiezinen zerga; borondatezko epea, azaroaren 18ra arte

Udalak urriaren 7an kobratuko du ondasun higiezinen zerga, IBIa. Egun horretan, helbideratuta dauden ordainagiriak kobratuko dira eta helbideratuta ez daudenak, berriz, gutun bidez jakinaraziko dira. Borondatezko epea azaroaren 18ra arte dago irekita; ostean, premiazko prozedura betearazleari ekingo zaio eta ordaindu gabeko kuotak %5eko gainkarguaz kobratuko dira. Jarduera ekonomikoen gaineko zerga azaroaren 11n kobratuko da.

## Bertso Eskolaren ikasturte hasiera hilaren 10ean, Miren Amuritzaren eta Agin Labururen saioarekin

Aramaioko Bertso Eskolak urriaren 10ean ekingo dio ikasturteari. Aurten, nobedade moduan, Miren Amuritza eta Agin Laburu bertsolariek saioa eskainiko dute; Sastiñan izango da, 20:00etan. Gero, Izarra elkartean afalduko dute, eta, eskolakoen arabera, ateak irekita daude gura duenarendako. Izena emateko: 615 73 92 55 (Manex).



Amuriza eta Laburu.

## Euskara ikastaroetan izena emateko epea zabalik dago eta mintzalagun berriak behar dira

Udalak euskara ikasi edo hobetzeko aukera emango die herritarrei. Hasiera baten, hiru maila eskainiko dituzte: hasierakoa, erdi mailakoa eta goi mailakoa. Astero bi ordu egingo dituzte eta eskolak laster hasiko dira. Era berean, mintzalagunen programa martxan dago dagoeneko eta ateak zabalik daude oraindik. Ikastaroetarako zein mintzalagun programarako izena eman behar da udaletxean edo liburutegian.

## Gaur hasiko du denboraldia areto futboleko Aramaixo taldeak, Bar Edu Team taldearen aurka

Aste bukaera honetan hasiko da Araban areto futboleko 2014-2015 denboraldia. Aramaixo taldeak bihar jokatuko du Bar Edu Team taldearen aurka, Gasteizko Hegoalde kantxan, 18:00etan. Taldeko koordinatzaile Andoni Elexalderen arabera, erregulartasunari eustea izango da aurtengo erronka: "Hori lortzen badugu eta aste barruko entrenamenduetan lana ondo egiten badugu, emaitzak ere etorriko dira", dio.

ELGETA

# Laster banatuko dituzte txipak eta kuboak herritarren artean

## Udalak martxan nahiko luke bilketa sistema berria urria amaitu aurretik

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Ate joka dugu hondakinak biltzeko sistema berria Elgetan. Aurreko astean hasi zen informatzaile lanetan Ane Ibarguren bergararra. Herriko merkatariekin eta enpresariekin elkartu da egunotan hondakinen bilketa non eta nola egin behar duten azaltzeko eta zalantzak argitzeko.

Udaletik jakitera eman dutenez martxan nahiko lukete bilketa sistema berria urri amaierarako. Hala, laster egingo dute edukiontzi marroia eta grisa zabaltzeko txipen banaketa herritarren artean. Baita etxebizitza bakoitzeko kubo biren —marroia eta berdea— banaketa ere.



Ane Ibarguren informatzailea herriko merkatariekin, eguaztenean. | L.Z.

**Ekarpen-guneak egokitzen**

Asteon erretiratuko dituzte herriko ekarpen-guneetatik edukiontzi berdeak. Berriak hurrengo asteotan ekarriko dituzte. Azkenean bi edukiontzi izango dira txiparekin —marroia eta grisa—. Horiak, azkenean, ez du txipik izango. "Ikusita Bergaran ontzi arinen edukiontziak ez duela txipik eta emaitzak onak direla, Mankomunitateko teknikariek gomendatu digute edukiontzi horiari txipik ez ipintzea, eta Udaleko talde guztiok eman dugu ontzat proposamena". Erabiltzaileei gauzak erraztuko dien aldaketa dela esan du Erostarbek. Hala ere, helburua zein den ekarri du gogora: "Hondakinen %39,9 sailkatzen dugu egun. Helburua da %70-80ra iristea".

# Urrian, bisita gidatuak familiendako

L.Z. | ELGETA

Intxortako ibilbide tematikoa familia giroan ezagutzeko aukera egongo da urrian, doan. Bi bisita izango dira: lehenengoa domekan, hilak 5, eta bigarrena urriaren 26an. "Ohiko bisitaren antzerakoa izango da", adierazi du Mankomunitateko Turismo Saileko Ana Herizek. Hori bai, "azalpenak umeei eta nagusiei egokituak izango dira". Ez da lehenengo aldia Intxortako ibilbide tematikotik familiendako eskaintza egiten dutela. "Gerra Zibilaren gaia ikuspuntu honetatik lantzea ere egokia dela deritzogu", azaldu du Herizek. Mankomunitatetik adierazi dutenez, ibilbideak ez du zailtasunik, eta edozein adinetako umeek har dezakete parte. Bisitok hiru ordu eta erdi inguruko iraupena izango dute, eta Iraitz Lazkano elgetarrak gidatuko ditu, euskaraz, Espaloia kafe antzokian dagoen Memoria Historikoaren Euskal Interpretazio Zentrotik 10:00etan abiatuta. Ezinbestekoa da aurrez izena ematea. Erreserbak egiteko deitu 943-71 89 11 edo 943-79 64 63 telefono zenbakira, edo, bestela, idatzi *turismo@debagoiena.net* helbide elektronikora.




2012ko apirilean umeekin eta gaztetxoekin egindako bisita gidatua. | L.Z.

### Espaloiaren etapa berriari hasiera emateko ipuinak, pintxoak, kontzertua eta bi ikuskizun

Bihar, hilak 4, umeendako ipuin kontalari saioa egingo du Belen Azkaratek, 17:00etan. Inaugurazio ekitaldiko aurreskua 19:45ean egingo dute, eta 20:00etan *Molestias Clównicas* ikuskizuna egingo du Virginia Imazek. 23:00etan, boleroak izango dituzte zuzenean. Domekarako umeendako puzgarriak eta 17:00etan *Burutik jota* umeendako saioa iragarri dituzte. Sarrerak salgai daude.

### Beteranoen pilota txapelketa antolatzeko bilera deitu du Udalak astelehenerako, 18:00etan

Udazkenean hasi eta Urtezahar egunera bitartean jokatzen den herri mailako pilota txapelketa antolatzeko bilera deitu du Udalak. Urteotan antolatzaile lanetan aritu den taldea erretiratu egin da zeregin horretatik, eta txapelketak aurrera egin behar duen eta nola aztertzeko deitu du bilera Udalak. Interesatuak astelehenean, urriak 6, 18:00etan, udaletxean egingo den bilera irekira deitu ditu Udalak.

### Dozena bat lagun elkartu zen, eguaztenean, kirol eskaintzan berria den lehen zumba saioan

Herritar talde batek eskaera egin ostean gehitu du Udalak zumba udal kirol jardueren zerrendara. Eguaztenean, 17:30ean, egin zuen lehenengo saioa Maier Irazabal elgetarrak. Saio irekia izan zen, gehienbat, interesatuei zumba zer den erakusteko eta ikastaroaren funtzionamendua zein izango den azaltzeko. Dozena bat lagun gerturatu zen gimnasiora. Aurrerantzean, astelehenetan eta eguaztenetan izango dira zumba saioak, 17:30ean.



L.Z.

## Zahartzaro aktiboa helburu

KOMUNITATEA GOIENA
XALBADORPE ELKARTEA | ELGETA

Erretiratuen elkarteak antolatuta, eguaztenean, zahartzaroari buruzko hitzaldia egin zuen Martziel Andrinuak. Erretiratu elkartetik azaldu dutenez, hogei bat lagun elkartu ziren berbaldian, eta elizgizonak zahartzaro aktiboari hitz egin zien. Harreman sozialak, boluntario lanak, ondokoari laguntza eskaintzea... "On egin eta ona izaten hor ezin da jubilatu", esan zien, besteak beste, Andrinuak.

LEINTZ GATZAGA

# Bilbo 'handia' bisitatuko dute 'sorginek' hilaren 11n

## Hamasei emakumek eman dute urteko txangorako izena; 30-80 urte bitartekoak, hain justu ere

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

Urriaren 11n 09:00etan Gatzagatik atera eta 21:30 inguruan bueltatuko dira herrira Sorginak elkarteak antolatutako txangoan Bilbo bisitatuko duten emakumeak. Ordu horiek guztiak ondo okupatzeko moduko egitaraua antolatu dute, gainera, Bizkaiko hiriburutik zapore ona ekartzeko: "Lehenengo, Erriberako azoka bisitatuko dugu; gero, alde zaharrean bazkalduko dugu, eta bazkalostean Zazpi Kaleak bisitatuko ditugu, bisita gidatuan. Eguna bukatzeko, eroskeṭatxo batzuk egingo ditugu, eta gero buelta", esan dute elkartetik.

Txangora joateko izen-ematea oraingo asteko eguaztenean bukatu da, eta hamasei emakumek eman dute izena. Nagusienak 80 urte inguru ditu eta 30 bat, berriz, gazteenak. Ohi bezala, beraz, hainbat belaunalditako emakumeak elkartuko dira Sorginak elkartearen ekimenaren bueltan.

**Ondoren, San Milixan**

Horixe da etorkizun hurbilerako *sorginek* duten plana, kasu horretan, aisialdiarekin lotura duena. Edozelan ere, ez dira geldi egotekoak Gatzagako emakumeak, eta azarorako badute "ordu libreak" zerekin okupatu: San Milixaneko azokako eginbeharrekin, hain justu.

Izan ere, ez da txikia ospakizun horren bueltan udalerriko emakumeek egiten duten ekarpena. Batetik, azokak dirauen bitartean talo postu tradizionala jarriko dute, eta jo eta ke jardungo dute bertakoen zein bisitarien tripak goxoki betetzen laguntzen.

Eta bestetik, euren ardura izango da, beste urte batez, San Milixan azokan parte hartuko duten artisauei eta bestelakoei egun horretako bazkaria ematea. Antolaketa lanetan dihardute.



Maila nazionaleko emakumezko taldeak izango dira Eskoriatzan. | GOIENA

SASKIBALOIA

# Eskoriatzak hartuko du Euskal Kopa

Gizonezkoen torneoa Arrasaten jokatu ostean, emakumezkoena dator asteburuan

**XABIER URZELAI** | ESKORIATZA

Senior mailako Eskoriatzako neskek etxetik kanpora hasiko dute liga asteburuan, Donostian, Antiguaren kontra (zapatua, 18:00), baina etxeko zaleek izango dute zerekin gozatu, Euskal Kopako partiduek Manuel Muñoz kantxa hartuko dute-eta. Hala, joan den asteburuan Iturripen hasitako ikuskizunak Eskoriatzan izango du orain jarraipena, baina emakumezkoen bertsioan. Izan ere, Espainiako lehenengo eta bigarren mailetan lehian dabiltzan lau ordezkari izango dira bertan.

**Bihar, kanporaketak**

Arrasaten gertatu zen moduan, Euskal Herri mailan emakumezkoen kategorian puntan dabiltzan ordezkariak batuko ditu Euskal Kopak. Hala, lau talde izango dira zein baino zein gehiago, LF-1 ligan lehiatuko diren Gipuzkoa EHU eta Gernika Bizkaia –elkarren arteko derbiarekin hasiko dute liga urriaren 15ean– eta LF-2 ligan jardungo duten Ibaizabal Galdakao eta ADB Araski taldeak.

Noski, zapatuko kanporaketari begira ez dituzte kategoria bereko taldeak elkarren kontra jarri; hau da, 18:00etan jokatuko duten lehen finalerdian, Ibaizabal Galdakao eta EHU Donostia izango dira aurrez aurre, eta segidan, Gernika Bizkaikoek eta Araskikoek neurtuko dituzte indarrak (20:00).

**Kontuz ezuskekoekin**

Lau taldeak ere liga prestatzen dabiltza, eta datorren astean hasiko dute benetako txapelketa. Hala, Eskoriatzan erakutsiko dute denboraldi-aurreko lanak ze punturaino dituzten aurreratuta. Hasiera baten, Gernika Bizkaia eta EHU dira domekako finalera sailkatzeko faborito (12:00), baina kontuz ezustekoekin; galdetu, bestela, Easoko mutilei, hain zuzen, joan den astean Zilarrezko LEB mailako taldeen gainetik pasa ziren EBAko ordezkari bakarrei.

**Erronka berriak, Eskoriatzak**

Lehen aurreratu bezala, Eskoriatzako neskek asteburuan hasiko dute liga, eta Gipuzkoako txapelketan lan txukuna egiteko asmoz jardungo dute. Aldaketa askoren ondoren, aurten ezin izan dute Lauko Fasean egon. Hor dute erronka.

ESKALADA

## Ander Lasagabaster arrasatearrak 9a zailtasuneko beste bide bat eskalatu du, bigarrena bere ibilbidean

Iaz lortu zuen *Il Domani* bidea eskalatzea (9a), Baltzolako hormetan, eta, horrekin konformatu barik, zailtasun horretako beste lorpen bat egin du Arrasatekoak aurtengo udan, *Celedon* izeneko bidea igota, Ilarduian. Hala, *Desnivel* atari espezializatuak eman du lorpenaren berri, gaineratuta udan ezagun bilakatu den bidea izan dela *Celedon*. Izan ere, 2012an Iker Pouk bidea zabaldu zuenetik punta-puntako bederatzi eskalatzailek lortu dute *Celedon* igotzea.

MUSHINGA

## Azaroaren 15eko eta 16ko asteburuan Euskadiko mushing txapelketa absolutua Bergaran

Iaz Gorlan egin zuten lasterketak utzitako zapore gozoari jarraipena emanaz, azaroaren 15eko eta 16ko asteburuan Euskadiko mushing txapelketa absolutua egingo dute Bergaran. Azaroan bertan hasiko dute lasterketa denboraldia, eta Bergarakoa egutegiko hirugarren lasterketa izango da; izan ere, lehenengoa Larrabetzun egingo dute eta bigarren asteburuan, berriz, Burgosen lehiatuko dira.

TXIRRINDULARITZA

**Eneko Lizarralde** | Gipuzkoa taldeko txirrindularia

# "Ilusiotik ezin badugu tira egin, amorrutik egin behar"

Proiektu profesional batean parte hartzeko aukera izatetik talderik ez izatera pasatu da Eneko Lizarralde astebetean: "Oraindik sinistu ezinda gaude"

**XABIER URZELAI** | BERGARA

Bizikleta gainean inoiz kolperik hartu badu –seguru baietz–, ez du joan den astean jasotako albiste txarrak besteko minik eman. Eneko Lizarraldek (Bergara, 1993) urte ederra egin du Gipuzkoa taldearekin. Urteak dira bailarako ziklista batek amateur mailan lasterketarik irabazten ez zuena, eta Lokatzako harrobiko ziklistak birritan jaso ditu besoak aurten, Tolosan eta Oñatin. Jon Odriozolaren aginduetara egin ditu bi urte, eta berba onak baino ez ditu: "Datorren urtean zer egin erabakitzeko iritzia eskatuko diot".



Eneko Lizarralde, Oñatiko helmugan duela hiru aste. | IMANOL SORIANO

**Zelan bizi izan duzue gertatu den guztia?**

Harrituta, sinistu ezinda, penatuta, amorruz... Dena ondo joatetik okertzera pasatu zen egun batetik bestera. Lehenengo esan ziguten 23 urtez azpiko taldea desagertu egingo zela, eta lau egun geroago, Jonen proiektu berria bertan behera geratu zen. Astebetean joan zen dena pikutara.

**Kolpe handia...**

Nik uste dut Euskal Herri mailako zaleendako izan dela kolpea, ez guretako bakarrik. Arlo pertsonalean, taldean badaude ni baino txarrago geratu direnak. Oraindik 21 urte ditut, eta amateur mailan beste urte bat egingo dut. Taldekide asko ditut, baina, profesional mailara salto egiteko aukera izatetik bizikleta uztera pasatu behar dutenak. Oso gogorra da hori.

**Odriozolaren proiektu berrian egoteko itxaropena zeneukan?**

Bai, ez dakidana da datorren denboraldian bertan lehenengo taldean egongo nintzatekeen edo beste urtebete amateur mailan egingo nukeen. Aukeran, nahiago lehenengoa, baina Jonek [Odriozola] esanez gero beste urtebete egiteko amateurretan, ez nukeen arazorik izango. Dena dela, Jonek beti utzi digu garbi sinatu arte ez genuela ezer lotuta, eta halaxe izan da.

**Odriozolak berak adierazi du aurten egin duzuen lana ikusgarria izan dela.**

Ziklista gipuzkoarrez osatutako talde batek erakutsi du Espainia mailan onenak izan garela. Eta hori horrela izateko Jonek prestatu gaitu mentalki, horretarako gauza ginela sinestarazi digu: giro ona izan dugu, ilusioz lehiatu gara eta benetako talde bat izan gara.

**Bi lasterketa irabazi dituzu. Espero zenuen halakorik?**

Iaz ere gustura ibili nintzen, eta taldeko zuzendariek komentatzen zidaten aurten beste pauso bat eman behar nuela. Helburua lasterketaren bat irabaztea zen, jakinda, amateur mailan hori oso zaila dela. Tolosan lortu nuen lehenengoa, eta Oñatin duela gutxi. Baina, bestela ere, urte ona izan da, aurrealdeko postuetan ibili naiz-eta sarritan.

**Atseden hartzeko hilabeteak dira hauek, eta datorren urteari begira hastekoak. Baduzu eskaintzarik?**

Bai; zorionez, hainbat eskaintza izan ditut, bai Euskal Herriko taldeenak, bai Espainiako taldeenak eta baita Frantziakoenak ere. Ekonomikoki Frantziatik jaso dut eskaintza politena, baina dena utzi eta ziklismoaren aldeko apustua egin beharko nuke, eta ez dakit horretarako prest nagoen, hemen ikasten nabil-eta. [Oso aurreratuta ditu Ingeniaritza ikasketak] Ondo pentsatu beharko dut dena, eta Jonekin [Odriozola] berba egin nahi dut, eta iritzia eskatu.

**Oraingo egoera ez da aproposena denboraldi berria ilusioz prestatzeko. Eta ilusio barik, negua luzea egiten da.**

Bai, hala da. Txirrindularitzan motibazioa bilatu behar da uneoro, eta ilusioa bada motibazio horri eusteko modu ona. Eta, ilusiotik ezin badugu tira egin, amorrutik egin beharko dugu, horretatik ere sobera daukagu-eta.



Tolosan lortutako denboraldiko lehen garaipenean. | GTXF



MBT taldeak antolatutako irteeran batu ziren batzuk. | GOIENA

TXIRRINDULARITZA

# Palmerakuak taldeak antolatutako irteerak emaitza bikaina izan du

IMANOL BELOKI | ARRASATE

Irailaren 28an, Bergarako Palmerakuak MBTk –mendiko bizikleta taldea– 30 kilometroko mendi bizikleta irteera antolatu zuen, Bergarako bazterrak ezagutzeko eta, bide batez, gaixotasun mitokondrialak ikertzeko dirua batzeko.

Izan ere, gaitz hori duen Iker Galan 3 urteko bergarararri laguntzeko ekimena izan zen. Horretarako, txartelak saldu zituzten, eta "Ikerren familiakoak oso pozik geratu ziren jasotako harrerarekin".

**Antolakuntzakoak pozik**

MBT taldeko Bikendi Lazkanok hauxe esan du: "Ez genituen hainbeste partaide espero eta guretzat poztasun handia izan da". 150 bat laguneko taldea elkartu zen eta ez zen inongo ezbeharrik egon. "Eskertzekoa da erakunde, baserritar eta kolektibo ezberdinek eskaini diguten laguntza eta esan beharra dago partaideek lore asko bota zizkigutela amaieran. Guretzat, hori da jaso ahal dugun saririk onena".

**Txartel guztiak salduta**

Zozketan ateratako txartel guztiak salduta, oso pozik ziren bai antolakuntza eta baita Ikerren familiakoak ere. "Oso polita izan zen Markel Irizarren presentzia; eta eskertzekoa da parte-hartzaile guztien ekarpena gaixotasun mitokondrialaren ikerkuntzaren alde egiteko".

ERRUGBIA

## Kanpanzar Arrasatekoak, bigarren garaipenaren bila

Aurreko astean Getxo Artearı 19-40 irabazita bueltatu ziren etxera Isasiren mutilak. Aste honetan, berriz, domekan 12:00etan jokatuko dute Mojategin bigarren jardunaldia. Oraingoan, etxean jokatuko dute Elorrio La Parra taldearen aurka, eta, sailkapenean goiko postuetatik jaits ez daitezen, garaipena lortu beharko dute. Izan ere, bigarren postuan egon arren, denboraldia hasi besterik ez da egin eta bide onetik jarraitzeko irabazi egin beharko dute.

ATLETISMOA

## Arrasate-Oñati herri lasterketako izen-ematea zabalik

Urriaren 11n izango da Antxintxiketan KEk eta Arrasateko Atletismo Taldeak prestatu duten Arrasate eta Oñati arteko 31. lasterketa. 17:00etan Arrasateko Portaloian hasiko da, eta Oñatiko Foruen plazan izango da helmuga. Izena, berriz, *www.kirolprobak.com* webgunean eman daiteke urriaren 10era arte. Txipak lasterketa egunean, 15:30ean lasterketako irteeran jaso ahal izango dituzte parte-hartzaileek eta 10 edo 12 euroko prezioa izango dute.

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

**FUTBOLA**

**OHOREZKO ERREGIONALA**
**Anaitasuna-Aretxabaleta**
Zapatua. 17:00. Txerloia.
**Usurbil-Aloña Mendi**
Zapatua. 16:30. Harane.
**Ostadar-Bergara**
Zapatua. 17:15. Michelin.
**Antzuola-Beti Gazte**
Domeka. 16:30. Estala.

**ERREGIONAL PREFERENTEA**
**Aretxabaleta B -Ikasberri**
Domeka. 16:30. Ibarra.
**Zumaiako-Mondragon**
Zapatua. 17t:15. Aita Mari.

**EMAKUMEZKOEN ERREGIONALA**
**Bergara-Arizmendi**
Zapatua. 15:30. Ipintza.
**Ilintxa-Mondragon**
Zapatua. 18:30. Bikuña.

**GIZONEZKO JUBENILEN OHOREZKOA**
**Mondragon-Ilintxa**
Domeka. 16:00. Mojategi.
**Bergara-Zestoa**
Zapatua. 17:30. Ipintza.
**Amaikak bat-Aretxabaleta**
Zapatua. 16:30.Errotazar.
**Aloña Mendi-Ordizia**
Domeka. 16:00.Azkoagain.

**ARETO FUTBOLA**

**EUSKAL LIGA**
**Eskoriatza-Soloarte**
Domeka. 18:00.Manuel Muñoz.

**JUBENIL OHOREZKO MAILA**
**Eskoriatza-Castro Urdiales**
Domeka. 15:30.Manuel Muñoz.

**GIPUZKOAKO LIGA**
**Kirukide plomix fronton kafetegia-Aretxabaleta**
Egubakoitza. 20:30. Eskolapioak.
**Denak taberna-Mondrate**
Egubakoitza. 20:30. Belabieta.

**ESKUBALOIA**

**LEHEN NAZIONAL MAILA**
**Ford Mugarri-Anaitasuna**
Domeka. 12:30. Iturripe.
**SENIOR GIZONEZKOAK**
**Ereintza Aguaplast-Bergara**
Domeka. 17:30. Errenteria.

**SENIOR EMAKUMEZKOAK**
**Aloña Mendi-Aiala**
Egubakoitza. 20:00.Zubikoa.

**SASKIBALOIA**

**GIZONEZKOEN 2.MAILA**
**GDKO Ibaizabal-Natra Oñati**
Domeka. 12:00. Urreta.
**Zarautz Sharks-Soraluce Bergara**
Zapatua. 16:00. Antonianos.

**SENIOR EMAKUMEZKOAK**
**Antigua Luberri-Eskoriatza**
Zapatua. 18:00. Benta Berri.

**ERRUGBIA**

**EUSKAL LIGA, SENIORRAK**
**Kanpanzar Arrasate-Elorrio La Parra taberna**
Domeka. 12:00. Mojategi.



UDAko eta Touringeko jokalariak. | GOIENA





XABIER ATXA ZUGASTI . 2013ko Sari Nagusiaren irabazlea.



ARKAITZ LASKURAIN . 2013ko bigarren sariaren irabazlea.



MIKEL ZAMORA. 2013ko hirugarren sariaren irabazlea.

## UDAKO ARGAZKIEN X. GOIENA LEHIAKETA

# Irabazleen izenak

**Astelehenean, urriaren 13ko Goiena paperean emango ditugu.**

**Eskerrik asko parte-hartzaile guztiei!**

**Argazki guztiak fotoblog honetan: *blogak.goiena.eus/argazkiak***

**Jarraitu gaitzazu:** udakoargazkiak udakoargazkiak

**ANTOLATZAILEA:**

goiena KOMUNIKAZIO TALDEA

**LAGUNTZAILEAK:**

kb photoestudio www.kbphotoestudio.com

ARRASATE BIDAIAK

GURE AMETSA JATETXEA

Arrasateko hipermerkatua EROSKI zurekin

karibu munduko zaporeak karibumundukosaporeak.com

# KULTURA



*Don Giovanni* operako protagonista nagusia emanaldiaren une batean. | M. PAULOVIC

# Mozarten 'Don Giovanni', Amaia antzokian izango da

- Opera 2001 konpainiak taularatuko du, Ozenki elkarteak gonbidatuta
- Urriaren 30ean Arrasaten izango den operarako sarrerak salgai daude

A. ARANBURUZABALA | ARRASATE

Nazioartean gehien interpretatu izan duten opera da Ozenki elkarteak Arrasateko Udalaren laguntzarekin hilaren 30ean (19:30) Amaia antzokira ekarriko duen *Don Giovanni*. Wolfgang Amadeus Mozart (Salzburgo, 1756 -Viena, 1791) konposatzailearena da musika eta Lorenzo da Ponte poetarena (Treviso, 1749- New York, 1838), berriz, libretoa.

Obra barregarria da; komediaren eta tragikoaren arteko nahasketaren ikurtzat dute adituek. Bi ekinalditan banatuta dago, ia hiru orduko iraupena du eta amodiozko tramak ditu oinarrian. Don Juan mito ezagunaren azkeneko egunak; hori kontatzen du istorioak.

**Don Juan pertsonaia, oinarri**

XVII. mendeko Sevillan dago kokatuta. Don Giovanni, haren morroia den Leporelloren laguntzarekin, komendadore edo agintariaren alaba den Donna Anna limurtzen saiatuko da, haren senargaia (Don Ottavio) dela esanaz. Alabaren ohorea defendatu guran, komendadoreak amorantearekin borrokan egingo du, eta, ondorioz, bizitza galduko du. Don Ottavio nobleak emaztegaiaren aita mendekatuko duela zin egingo du orduan, eta ihes egin duen hiltzailearen bila hasiko da. "Maitasun istorioez baliatuz moraltasun handiko garaiko gizartearen eta Don Giovanni moduko pertsonaien arteko talka ederto islatzen du", diote Ozenkikoek.



Don Giovanni eta Donna Anna pertsonaiak. | M. PAULOVIC

**Punta-puntako abeslariak**

Atzeko lanetan jarduten dutenez gainera, 80 lagunetik gora daude taularen gainean. Amaia antzokiko aurreko operetan moduan, oraingoan ere, askotariko herrialdetako musikariak batzen dituen Bulgariako Pleven Orkestra Sinfonikoa izango da. Abeslariak berriz, italiarrak dira. Ibilbide eta maila handikoak dira guztiak; askotariko ikasketa eta sariak dituztenak.

**Sarrerak agortuaz doaz**

Astebetean saldu dituzte txartel guztien hiru laurdenak. Gelditzen diren sarrerak honako toki hauetan daude 30 eurotan eskuragarri: Amaia antzokiko leihatilan eta *arrasate-mondragon.org* eta *ticket.kutxabank.es* helbideetan, hain zuzen ere.

Era berean, badago sarrerak lortzeko beste bide bat ere: *ozenkielkartea@hotmail.es* helbidera eskaria eginda.

**Hurrengoetan pentsatzen**

Urtean bina opera ekartzeko asmoarekin jarraitzen dute Ozenkikoek, eta, lotuta ez badute ere, honako aukera hauek aztertzen ari dira: Verdiren *Un ballo in maschera* (maskaren dantza) edo Pucciniren *Tosca*.

Datorren domekarako, berriz, Mozarten doinuak (tartean, *Don Giovanni* obrakoak) kantatuko dituzten emanaldia antolatu dute Ozenkikoek; San Juan Bataiatzailea parrokian, 19:30ean.

IKUSPUNTUA

MANU GALLARDO
OZENKI ELKARTEA
'ozenkielkartea@hotmail.es'

## Antzerki-musikatu ederra da honakoa

Arrasatera ekarriko dugun bosgarren opera da *Don Giovanni*. Oso gustura eta eskertuta gaude aurrekoek izan duten harrerarekin; Amaia antzokia bete egin dugu guztietan. Orain hiru urte sortu genuen elkartea, errotuta dagoela esango nuke; horren erakusle, operaz gainera, antolatu ditugun bestelako formatu eta estiloetako ekitaldiek izan duten erantzuna.

Tragikoaren eta komikoaren arteko oreka paregabea duen opera da *Don Giovanni*. Orain gutxi Oviedoko Operan ikusteko aukera izan nuen eta bete-betean txunditu ninduen. Gustukoen dudan operen artean dut honakoa; musikari dagokionez, maila gorena du, nahiz eta ez dituen operako generoko ariarik onenak. Antzerki musikatu eder moduan definituko nuke.

FITXA ARTISTIKOA

**Don Giovanni:** (baritonoa) Giulio Boschetti.
**Leporello:** (baxua) Nicola Ebau.
**Donna Anna:** (sopranoa) Linda Campanella.
**Donna Elvira:** (sopranoa) Natalia Lemercier.
**Zerlina:** (sopranoa) Francesca Bruni.
**Masetto:** (baxu-baritonoa) Javier Galan.
**Don Ottavio:** (tenorea) Paolo Antognetti.
**El Commendador:** (baxua) Ivaylo Dzhurov.



Nagore Aranburu da Aitor Arregiren *Zarautzen erosi zuen* film laburreko protagonista nagusia. | KIMUAK

# Altuna eta Arregi film labur egileen lanek, nota ona Zinemaldian

Asier Altunak 'Soroa' erakutsi du; Aitor Arregik, berriz, 'Zarautzen erosi zuen'

**A. ARANBURUZABALA** | ARRASATE

Iraupenari begiratuta txikiak dira, baina kalitateari erreparatuta lan handiak daude film laburretan; horren erakusle dira Donostiako Zinemaldian erakutsi dituzten Bergarako Asier Altuna *Kixi*-ren *Soroa* eta Aitor Arregi oñatiarraren *Zarautzen erosi zuen.*

Zinemaldiko azkeneko egunean Belodromoan erakutsi zuten, pantaila erraldoian eta 2.500 lagunen aurrean. "Film luze baten aurretik, lauzpabost alditan erakutsi zuten *Soroa*, baina benetan inpresionatu ninduena Belodromokoa izan zen, iaz toki berean beste lan bat erakutsi nuen arren. Belodromoko beteranoa nintzen aurten", dio Bergarakoak. Aitor Arregi ere gustura da Donostiako erakustaldiekin, nahiz eta aitortzen duen parte hartu duen *Loreak* filmaren tsunamiak ia gainditu egin duela: "Zortzi emanaldi izan dira, lehenengo egunean erakutsi zuten lehenekoz, baina *ginda,* duda barik, Belodromokoa izan zen. Balorazio ezin hobea egiten dut; izan ere, sentsazioa dut kontatu nahi nuena ikusleek ondo ulertu dutela".

### Kimuak katalogoan daude biak

Bataren zein bestearen ibilbidea hasi besterik ez da egin, Eusko Jaurlaritzak eta Etxepare Institutuak kudeatzen duten Kimuak programaren aurtengo katalogoan daude-eta bi film laburrak. "*Soroa* Bilboko Zinebi jaialdian izango dela esan didate, eta beste hainbatetan izateko aukerak ere badituela. Oso gustuko dut Kimuak-ek egiten duen banaketa lana". Iritzi berekoa da Arregi ere: "Ibilbide luzea dute eta oso onak dira euren lana egiten. Aurrez film labur gehiago egin izan ditudan arren, estreinakoz nago Kimuak-en".

Jaialdietan, gainera, herriz herriko erakustaldi eta solasaldietan parte hartzeko gogoz daudela diote: "Urriaren 8an, Bergarako San Joxepe erretiratu elkartekoen hamabostaldiaren barruan, Migel Altuna Institutuan izango naiz (19:00). Aberasgarria da ikusleekin zure lanak aztertzea", gaineratu du Altunak.

### Altuna, luze bat filmatzen

Altunak eta Arregik ez dute, bada, lan makala orain, egindako lanak saltzen; baina proiektu berrietan ere murgilduta daude. "Bi aste barru, film luze baten bost astetako errodajea hasiko dugu", gaineratu du Asier Altunak.



Asier Altuna *Kixi*-k Bardean grabatu zuen *Soroa* film laburraren pasarte bat. | KIMUAK

# Erotismoa eta erotasuna batzen dituen lana gaur Zabalotegi aretoan

Umorea da osagai nagusia eta ezer ez da dirudiena Taupada taldearen antzezlanean

**MAIDER ARREGI** | BERGARA

Elgoibarko Taupada antzerki taldeak dio egin dituen lan guztietatik "potenteena" dela. *Erotik* antzezlanean umorea da oinarria; ez da oharkabean pasako den lana gainera. Ikusleari barre egiteko osagai apartak uztartzen ditu: erotismoa eta erotasuna.

Erakargarria dela eta zirrara eragiten duela diote Taupadako kideek. Gertaerak toki itxi eta kezkagarri batean kokatzen dira, psikiatriko batean, hain zuzen ere.

Protagonistek, misteriozko abentura zoroak biziko dituzte, nahiz eta, beraien nahia maitasuna lortzea besterik izan ez. "Ezertxo ere ez da dirudiena: errealitateak, fikzioak, umoreak eta pertsonaien portaerak logikarekin talka egiten dutenean sortzen dira antzez joko zirraragarriak", horrela deskribatzen dute Taupada taldeko kideek *Erotik* lana.

### Euskaren normalizazioa

Taupada antzerki taldea 1977an sortu zen, Elgoibarren. Beti helburu bera izan du taldeak: antzerki zaletasuna sustatu eta euskararen normalizazioaren alde lan egitea. Gaur egun ere taldearen helburu nagusiak horiek dira, gainera.

Zabalotegi aretoan gaur, urriak 3, gaueko hamarretan hasita izango da *Erotik* euskarazko antzezlanaz gozatzeko aukera. Sarrera 8 euroren truke eskuratu ahal izango da.



*Erotik* antzezlanaren une bat. | TAUPADA ANTZERKI TALDEA

# 'Ostegun kontalariak' lehiaketan izena eman daiteke gaurtik aurrera

**M.A.** | ARETXABALETA

Debagoieneko gazteei kontakizunak jendaurrean plazaratzeko gonbidapena egiteko asmoz sortu da *Ostegun kontalariak* lehiaketa Aretxabaletako Udalaren eta Artemanen eskutik. Debagoienean jaio, bizi edo lan egiten duen edonork har dezake parte, banaka zein lagunduta. Helburua da kontatzaile grina dutenei bidea ematea eta udazken-neguko ostegunetan Aretxabaletako tabernetan herritarrei zuzendutako eskaintza kulturala sustatzea.

### Baldintzak

Kontakizunak mota askotakoak izan daitezke (bakarrizketak, ipuinak, txisteak, magia ikuskizunak… eta horien artean lekua dute beldurrezkoek, barregurazkoek, erotikoek…), baina erabilitako hizkuntzak euskara izan behar du eta parte-hartzaileek gehienez 40 urte izan behar dute. Izena ematen dutenen artean aukeraketa egingo da, proposamenaren txukuntasuna, originaltasuna eta diziplina kontuan hartuta. Hala, jasotako proposamenetatik lauk izango dute kontakizuna jendaurrean plazaratu eta lehiaketan parte hartzeko aukera. Emanaldiaren iraupena 30-40 minutu artekoa izango da. Irabazleak 150 euroko saria jasoko du.

### Publikoaren saria

Irabazlea publikoak aukeratuko du. Ikusleek emanaldien ostean bakarrik eman ahal izango dute bozka tabernan bertan kokatutako postontzian.

### Izen-ematea zabalik

Interesatuek urriaren 20a aurretik izena eman behar dute *gazteria@aretxabaleta.net* helbidera idatzita edo 943-08 10 01 telefonora deituta. Lagungarria izango da prestatutako kontakizunaren gaineko proposamena aurkeztea.



Pier Paul Berzaiz pianoan (kontzertuan akordeoi eta perkusio-jotzailea) eta Joxan Goikoetxea kantuan. | BERGARAKO UDALA

# Bihar hasiko da Organo Erromantikoaren XV. zikloa

Eguaztenean aurkeztu zuten aurten hiru herritarako antolatutako egitaraua

MAIALEN TORRES | BERGARA

Zapatuan ekingo diote Organo Erromantikoaren XV. zikloari Bergaran. Egitaraua inauguratzeko, Pier Paul Berzaiz zuberotarraren ahotsak eta Joxan Goikoetxearen akordeoi doinuek osatuko dute Ana Belen Garcia organo-jotzailearen emanaldia.

Edurne Korta Bergarako Kultura teknikariak esan du irekiera kontzertua "berezia" izango dela, eta hiru artisten doinuak "ondo uztartuko" direla.

Berzaizek zuberotar kantagintza tradizional baina garaikidea landu ohi du sentiberatasun handiz, eta Goikoetxeak ere badu halako berrikuntzarako grina. Biak ere, zalantzarik gabe, gustura arituko dira Garciaren organoaren doinuan.

Azken urteetan bezala, Santa Marina parrokian izango dira kontzertuak, 20:00etan, San Pedroko organoa erabiltzeko baimenik ez baitute lortu antolatzaileek. Izan ere, San Pedro parrokian konponketa lanak iaz amaitu zituzten arren, organoa oraindik "egoera larrian" dago, Kortak azaldu duenez. Edonola ere, Santa Marinakoak zikloan parte hartzeko baldintzak betetzen dituela ziurtatu du Kortak.

Hurrengo emanaldia hilaren 11n izango da eta Franz Hauk alemaniarra arituko da bakarlari lanetan. Egitarauari amaiera emateko, berriz, Bergarako Orfeoiak abestuko du, Aitor Olea organo-jotzailearekin; ikuskizun "polita" espero du Kortak hilaren 18an, "etxeko artisten" eskutik.

**Guztira, bederatzi kontzertu**

Azkoitiko parrokiak eta Azpeitiko Loiolako basilikak ere hartzen dute parte zikloan eta horietan ere hiruna kontzertu izango dira, Esteban Elizondoren lanari esker. Azkoitiko kontzertuak Bergarakoen data eta ordu beretan izango dira, baina Loiolakoak domeketan eskainiko dituzte.

Besteak beste, Aretxabaleta abesbatzak parte hartuko du urriaren 19an zikloa ixteko Loiolan eskainiko den kontzertuan, Jose Luis Franzesena eta Itziar Urbieta organo joleekin batera.

Elizondok berak ere eskainiko du kontzertua, Azkoitian, hilaren 11n. Lan handia egin du musika ikertu, zabaldu eta irakasten eta urteetako esperientzia nabarmena da bere jardunean.



AIURRI

## Edu Muruamendiaraz, Urnietar Prestu

Edu Muruamendiarazek ohiko euskal dantzak erakusteagatik eta dantza horiek ikuspegi berritzailez eraldatzeagatik jaso du Urnietar Prestu izendapena. Bergararrak esan du "urteetako lanaren aitortza" izan dela eta ekitaldian "herri osoaren babesa" jaso zuela. Izan ere, omenaldian, ehun urnietar inguruk agurra dantzatu zioten.

# Espaloiko kultura agenda irri artean inauguratuko dute

M.T. | ELGETA

Elgetako Espaloiak ziklo berriari ekingo dio bihar, Oihulari Klown taldearen gidaritzapean. Arduradun berrien izaeraren erakusle, irekiera ofizialerako, irriz betetako asteburua antolatu dute, haur zein helduentzat.

Zapatuan, Virginia Imazen eskutik, helduei zuzendutako *Molestias Clownicas* ikuskizuna eskainiko dute, 20:00etan. Irekiera egun ofiziala izanik, ordea, ekintza gehiago ere antolatu dituzte; besteak beste, ipuinak, pintxo dastaketa, bertsoak eta, nola ez, gauean, kontzertua.

Domekan, berriz, gazteenentzako ikuskizuna izango da, eta *Burutik jota* ikuskizunaren Euskal Herri mailako estreinaldia egingo dute Trokolo Teatro taldekoek, 17:00etan. Dena den, goizean ere izango da zer egin, haurrentzako jolasak eta puzgarriak egongo baitira, kafe antzokian bertan. Ekintza guztietarako sarrerak leihatilan izango dira salgai.

**Ildo bera, apustu berriak**

Oihulari Klowneko Virginia Imazek eta Jose Carmelo Muñozek "gogoz eta ilusioz" hartu dute Espaloiaren lekukoa eta ziurtatu dute kafe antzokiak lehen zuen ildoari eusteko asmoa dutela, baina kabareta, dantza eta emakumeek sortutako lanak ere sustatu nahi dituzte.

Datozen hilabeteetarako, "menu inklusibo eta irisgarria" prestatu dute Imazek eta Muñozek, baina edozein ekarpen egin nahi dutenei parte hartzeko dei egin diete.



Domekan *Burutik jota* ikuskizuna eskainiko dute. | TROKOLO TEATRO

# Tribu urbanoen istorioak erritmo bizi eta indartsuan, Marian Porcelen eskutik

Egubakoitzean aurkeztu zuen Porcelek bere lehen nobela laburra: 'Todo saldrá bien'

M.T. | ARRASATE

Duela hogei urteko edozein hiriburutako kaleetan girotuta dago *Todo saldrá bien*, Marian Porcelen lehen nobela laburra. Autorearen ibilbideari begiratuta, ez da harritzekoa liburuak estilo azkar, zuzen eta indartsua izatea, gidoigintzan aritua baita Porcel. Punk eta *skin* giroan gertatzen da istorioa, eta, idazlearen hitzetan, liburua irakurtzea "pelikula bat ikustea" bezala da. Porcel "pozik" dago lortutako emaitzarekin, "argitaratzeko asmorik gabe" hasi baitzen lanean.

Liburua erosi nahi dutenek argitaletxearen webgunera jo beharko dute, Debagoieneko liburu-dendetan ez baitago salgai, oraingoz.

**Argitaletxearen laguntza**

Ediciones Civicas.O argitaletxearen eskutik jaso zuen Porcelek *Todo saldrá bien* kaleratzeko aukera, eta "oso gustura" dago bertan jasotako tratuarekin. ECO irabazi askorik gabeko argitaletxea da, "hain ezagunak ez diren" idazleei euren lanak publikatzeko aukera ematen diena, eta horixe eskertu du gehien Porcelek. Izan ere, haren esanetan, "mundu honetan zaila da zerbait argitaratzea, inor ezagutzen ez baduzu".

**Martin Berrizbeitia** | Lekaixoka bertso-eskolako irakaslea

# "Atletismoa oso ondo datorkit gero bertsoak botatzean burua argi eta garbi izateko"



Martin Berrizbeitia, Aretxabaletako herriko plaza aurrean.

IMANOL BELOKI

**IMANOL BELOKI** | ARETXABALETA

Martin Berrizbeitia (Aretxabaleta, 1992) Aretxabaletako Lekaixoka bertso-eskolako irakaslea da. Aurten hasi da irakasle Lekaixokan eta oso gustura ari da gaztetxoei bertsolaritzaren oinarri, zailtasun eta jokoak irakasten. Gainera, hasi berri diren eskolek arrakasta bikaina izan dute orain arte; izan ere, iaz baino gazte gehiagok eman dute izena bertso-eskolan.

**Noiztik datorkizu bertsolaritzarako zaletasuna?**

Txikitatik datorkit bertsoetarako zaletasuna. Irratian eta telebistan asko entzuten nituen. Gainera, etxekoek ere gogoko dituzte bertsoak, eta hala hasi nintzen, familian bertsoak entzunda.

**Nola ikasten da bertsotan?**

Bertsotan eginez ikasten da. Doinuak, errimak, bertsoak idazteak bere garrantzia du maila hobetze aldera. Baina nire ustez, lagun artean eginda ikasten da gehien. Batzuek berezkoa dute, eta, pixka bat landuta, maila handiagoa berehala hartzen dute.

**Zer behar da bertsolari ona izateko?**

Zer esan nahi duzun garbi izateak du garrantzia. Ideia bat transmititu behar duzunean, ideia nagusia bertsoaren amaierarako uzten da, eta amaiera ona izatean dago gakoa. Lasai egotea ere oso garrantzitsua izaten da.

**Irakasle moduan hasi zara aurten; zer moduzko esperientzia izan da?**

Proposamena egin zidaten eta asko poztu nintzen. Gaztetxoekin oso ondo konpontzen naiz eta haiei bertsolaritza irakastea eta zaletasuna barneratzea oso garrantzitsua iruditzen zait.

**Nola hasi duzue Lekaixoka bertso-eskolan ikasturtea?**

Ikasturteari hasiera bikaina eman diogu. Hilaren hasieran Arizmendi eta Kurtzebarri eskolara joan ginen gelaz gela bertso batzuk botaz gaztetxoei bertso eskolara gerturatzeko asmoz. Uste baino harrera hobea izan genuen bertso-eskola irekian, eta oso pozik gaude.

**Bertsolariak, bertsozaleak... zein mailatako jendea batzen da bertso-eskolan?**

Mota guztietako jendea gerturatzen da. Batez ere, bi motatakoak daude: bat-batean botatzeko arazorik ez dutenak eta besteak, bertsoak idaztea nahiago dutenak. Ordutik, bi klase egin ditugu. Ni nagusiekin egongo naiz eta bost ikasle izango ditut, 14-15 urte bitartekoak. Gero, beste talde bat dago, gaztetxoagoak direnentzat, baina oraindik jende gehiagok izena emango duen itxaropenarekin gaude.

**Lehiatzen zara? Txapelketaren batean hartu duzu parte?**

Ez naiz lehiatzen, baina hainbat ekintza egin ditugu herrian, eta bat edo beste herritik kanpora. Gabonetan, abenduaren 24an, baserriz baserri joan ginen Aretxabaletan bertso-eskolakoak kantuan, Euskararen Egunean udaletxean saio labur bat egin genuen, triki-poteoak egin izan ditugu... baina lehiatzea oraindik ez zait burutik pasatu ere egin.

**Etorkizunean gustatuko litzaizuke txapelketetan lehiatzea?**

Asko gustatuko litzaidake lehiaketetan ibiltzea, baina oraindik maila hobea lortu behar dudala uste dut. Gaur egun gazteei eskolak ematearekin nahikoa dut.

**Bertsoez gain, beste hainbat afizio dituzu; zeintzuk dira?**

Kirola egitea asko gustatzen zait; mendian ibiltzea... baina atletismoa da nire pasioa. Egia esan, atletismoari bertsoei baino denbora luzeagoa eskaintzen diot. Gainera, atletismoa oso ondo datorkit bertsoak botatzean burua argi eta garbi izateko.

**Lehiatzen zara atletismoan?**

Bai; Arrasaten entrenatzen naiz, eta Irungo Bidasoa taldean ari naiz. Euskal Selekzioan ibili naizenean marka onak lortu ditut, baina ez dut txapelketarik irabazi. Poliki-poliki markak hobetzen joatea da nire asmoa.

**Azken bitxikeria moduan: bertsolariak parrandazaletzat hartzen dituzte askok; bertso afarietara joan, jan eta edan... hala da?**

Bertsoak egin daitezke parranda barik. [Barre] Baina bertsolari parrandazale asko ere badago.

### PERTSONALA

**Zure herriko txoko maiteena:** Otala Zelai.

**Kantu gustukoena:** Hertzainak taldearen *Aitormena*.

**Bidaia gustukoena:** Pirinioetako edozein herritara.

**Bertsolari bat:** Igor Elortza.

**Bertso gustukoena:** *Nigarri begian*.

**Doinu bat:** *O, baserritxo*.

**Janari gustukoena:** Mahatsa.

**Momentu gogoangarri bat:** Anaia jaio zen eguna.

## 1. ETXEBIZITZAK

### 103. ERRENTAN EMAN

**Eskoriatza.** Berriztutako baserria ematen da errentan. 18:00etatik21:00etarabitartean deitu mesedez. 693 21 52 62

**Eskoriatza.** Etxebizitza berria ematen da errentan Eskoriatza erdian. Hiru logela eta bi komun. 652 70 08 00

**Oñati.** Etxebizitza ematen da errentan. Lau logela, egongela -jangela, bi komun eta sukaldea. 650 56 62 06

### 104. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** Bi logelako etxebizitza behar dut errentan, ahal bada erdigunean. Hilean 500 € ordain ditzaket gehienez. 688 48 47 76 edo 610 99 42 03

**Arrasate.** Bi logelako etxebizitza behar dut errentan. Hilean 500 € ordain ditzaket gehienez. 651 54 10 26 edo 634 12 56 87

**Arrasate.** Etxebizitza behar dut errentan. Hilean 500 € ordain ditzaket gehienez. 662 68 56 03

**Bergara.** Etxebizitza behar du errentan. Hilean 400 euro ordain ditzaket. 637 18 07 23

**Debagoiena.** Etxebizitza hartuko nuke errentan. 602 00 57 93.

### 105. ETXEAK OSATU

**Aretxabaleta.** Logela bat ematen da errentan. Etxe berria da, argitsua eta balkoia dauka. 662 38 14 18

**Aretxabaleta.** Logela bat errentan ematen da. Bainua barruan dauka. Argitsua eta balkoiarekin. 678 73 66 54

**Arrasate.** Erdigunean etxebizitza osatzeko 25-40 urte bitarteko pertsona arduratsua behar dugu. 678 82 69 77 (Aritz)

**Oñati.** Etxebizitza osatzeko pertsona bat beharko genukeen bi langile gara. Deitu mesedez 18:00etatik aurrera zenbaki honetara: 653 74 87 51

**Pisukide bila.** Etxea osatzeko pisukide bila nabil. Logela handi bat, bi oherekin, eta etxeko gune guztiak erabiltzeko aukera. Logelak 250 euro balio du hilean eta gastuak erdibana ordainduko genituzke. 631 34 97 91

## 2. GARAJEAK

### 203. ERRENTAN EMAN

**Bergara.** Plaza bateko garaje itxia ematen da errentan Ibargarain, autobus geltoki parean. 665 73 98 32

### 204. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** Garajea hartuko nuke errentan Malvina inguruan. 628 51 40 91

**Bergara.** Auto handi batendako garajea hartuko nuke errentan Bergarako erdigunean. 686 24 68 92

## 4. LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Bergara.** Emakume euskalduna behar da bi ume zaindu eta etxeko lanak egiteko. 669 83 06 97

### 402. ESKAERAK

**Arrasate.** Astean zehar ume eta nagusiak zaindu edota garbiketa lanak egingo nituzke. 682 31 97 37

**Arrasate.** Mutila gertu nagusiak zaindu, janaria prestatu, etxeko lanak egin, pasioan atera eta abarrerako. Sukaldari eta egoitzatan esperientzia eta elikagaiak erabiltzeko titulua daukat. 722 45 33 59

**Bergara.** Emakumea umeak eta nagusiak zaintzeko gertu. Bertakoa naiz. 610 34 97 88

**Bergara.** Lehen hezkuntzako gradua eta haur hezkuntzako zikloa duen neska gazte euskalduna eta langilea. Goiz eta arratsaldetan haurrak zaintzeko eskaintzen da. 648 01 32 76

**Bergara.** Neska euskalduna goiz zein arratsaldetan umeak zaintzeko prest. 685 77 40 26

**Bergara.** Neska euskalduna Haur Hezkuntzako titulazioarekin, goizetan umeak zaintzeko prest. 684 14 95 54

**Bergara.** Pertsona arduratsua, informeduna, garbiketa lanak egiteko gertu. 696 27 25 34

**Bergaran, Arrasate edo Oñati.** Mutila gertu nagusiak zaintzeko. Esperientziaduna eta sei hilabetez San Juan de Diosen lan egindakoa, erizaintza ofizial moduan. Gauetan ere lan egingo nuke. 639 66 57 88 edo 943 78 62 19

**Debagoiena.** Asteburuetan nagusiak zaintzen lan egingo nuke. 697 66 89 20

**Debagoiena.** Banatzaile, kamioi gidari edota zaintza lanetan arituko nintzateke. 603 06 66 71

**Debagoiena.** Bertako neska, esperientziaduna, nagusiak etxean zaintzeko gertu. 637 18 07 23

**Debagoiena.** Emakume espainiarra, eskarmentuduna, nagusiak zaintzeko gertu. 633 84 65 30

**Debagoiena.** Emakume euskalduna gertu umeak edo nagusiak zaintzeko. Ospitalean gaua pasatzeko ere bai. Esperientziaduna. Ainhoa. 671 35 22 60

**Debagoiena.** Emakumea lanerako gertu. Etxean bizi izaten, orduka edota gauetan ere bai. 630 20 12 03

# ZURE IRAGARKIAK

**IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:**

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.eus/sailkatuak

Egueneko 16:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu. Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere. GOIENAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:** PREZIO BEREZIA GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

**- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.**

**- Profesionalen moduluak.**

**Debagoiena.** Eskarmentudun neska orduka lan egiteko gertu. 671 97 19 30

**Debagoiena.** Esperientziadun pertsona asteburuetan nagusiak zaintzeko gertu. 695 96 98 74

**Debagoiena.** Etxean bertan bizi izaten edo orduka lan egingo nuke. 606 64 16 09

Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**BERGARA:**
- Justo Garate 80 m², 3 logela. Garaje bikoitza eta trastelekuarekin. 265.000 €.
- Martoko 60 m², 2 logela. 32.000 €.
- San Antonio 86 m². 3 logela, trastelekua eta garajearekin. Igogailua. 204.000 €.
- Angiozar 170 m², duplexa. Garajea, txokoa eta 180 m2ko lur sailarekin.
- Artekale 47 m², 2 logela. Berriztua. Trastelekuarekin. 100.000 €.
- Matxiategi 88 m², 4 logela. Igogailua. Ganbara. Prezio jeitsiera. 190.000 €.
- Barrenkale 113 m², 3 logela, duplex berria. Igogailuarekin.
- Masterreka 72 m², 2 logela, duplexa. Trastelekuarekin. Berria estrenatzeko. 160.000 €.
- San Lorenzo 65 m², 2 logela. Garajea eta trastelekua aukeran. Berria. 200.850 €.
- Zubiaurre 70 m², 2 logela. Erabat berriztua 180.000 €.
- Simon Arrieta 82 m², 3 logela. Igogailuarekin. 160.000 €.
- Ibargarai 57 m², 2 logela, oso ondo. Garajearekin. 215.000 €.
- Zabalotegi 80 m², 3 logela, erabat berriztua. Igogailua eta balkoiarekin.
- Bidekurutzeta 71 m², 2 logela, er.abat berriztua. Igogailua eta terraza haundiarekin. 204.344 €
- Angiozar 60 m², 2 logela, erabat berriztua. Trastelekuarekin. 92.000 €.
- Madura 57 m², 2 logela, erabat berriztua. 149.000 €.
- Zabalotegi 54 m². 2 logela. 78.280 €. PREZIO JEITSIERA.
- Zubiaurre 104 m², 2 logela. Berria. Igogailua. Trastelekua, Terrazarekin.
- Martoko 60 m², 2 logela, berogailua eta igogailua. 60.000 €.
- Aranerreka 79 m², 3 logela, berogailua, trastelekua. Garajea aukeran. 164.850 €.
- Iraburu 82 m², 3 logela, berogailua. 120.000 €.
- San Pedro 70 m², 4 logela. Erabat berriztua. Garajea aukeran. 138.000 €. AUKERA.
- Bidekurutzeta 65 m². 2 logela. Trastelekua. 100.000 € PREZIO JEITSIERAREKIN.
- Ibargarai 90 m², 3 logela. Igogailua 235.000 €.
- Masterreka 73 m², 2 logela, berogailua, igogailua. Oso ondo. 195.000 €.
- Ibarra 129 m², 4 logela, berogailua. 150.000 €.
- Martoko 140 m², 4 logela. Berria.Oso ondo. 225.000 €.
- Ibargarai, 60 m², 2 logela. Berria. Oso ondo. 229.000 €.
- Matxiategi, 115 m², 3 logela, trastelekua eta balkoia. Berriztua. Oso ondo.

**ANTZUOLA:**
- Sagasti 140 m², duplexa. 250.000€
- Sagasti 86 m². 3 logela. 163 m2ko terrazarekin. AUKERA BIKAINA. 216.364 €.
- Beheko Auzoa 60 m². 2 logela. Oso ondo. Prezio jeitsierarekin.
- Errekalde 94 m². 3 logela. Igogailu eta berogailuarekin. 120.202 €.
- Sagasti 90 m². 3 logela. Oso ondo. Prezio jaitsierarekin.
- Aiherra 83 m². 3 logela. Igogailua eta balkoia.Oso ondo. Prezio ona.
- Kale Goi. Oso ondo. AUKERA BIKAINA. 125.000 €.

**SORALUZE:**
- Sagar Erreka, Rabal, Atxuri, Loralde eta Rekalde. Etxe onak.

**ELGETA:**
- Torrealdea 77 m². 3 logela. Berria. Oso ondo.
- Domingo Iturbe, adosatua 150 m2 + 45 m² garajea + 90 m² lursaila.

**OSINTXU:**
- Osintxu m². 3 logela. Igogailua. Berriztua. 130.000 €. AUKERA BIKAINA.

**Debagoiena.** Garbiketa lanetan, nagusiak edo umeak zaintzen edo zerbitzari lanetan lan egingo nuke. 20 urte ditut. Diana. 663 46 65 17

**Debagoiena.** Neska gertu nagusiak eta umeak zaintzeko edo garbiketak egiteko. Orduka, gauez, etxean bertan bizi izanda edo bestela. 674 55 02 98

**Debagoiena.** Garbiketak egiten eta nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Etxean bertan bizi izanda edo bestela. Lege paperak daukzat. Berehala hasteko gertu. 603 63 31 55

**Debagoiena.** Lan bila nabil umeak eta nagusiak zaintzeko. Etxean bertan bizi izaten edota orduka. 610 99 70 46

**Debagoiena.** Mutila lanerako gertu. Nagusiak zaindu edota baserri lanetarako. Baita eraikuntzan ere. Gidabaimena daukat eta baita elikagaien manipulazio baimena ere. 602 06 33 80

**Debagoiena.** Mutila lanerako gertu: eraikuntzan, gidari, sukaldeko laguntzaile edota nagusiak zaintzen. 636 60 48 51

**Debagoiena.** Nagusi eta umeak zainduko nituzke. Baita asteburuetan ere. 632 53 64 11

**Debagoiena.** Neska arduratsua eta esperientziaduna umeak zaintzeko, orduka garbiketak egiteko, zein nagusiak lagundu edo paseoan ateratzeko gertu. 695 73 87 95

**Debagoiena.** Neska gertu arratsaldetan ume eta nagusiak zaintzeko. 696 84 19 51

**Debagoiena.** Neska gertu umeak zaintzeko, garbitasun lanetarako eta sukalde laguntzaile aritzeko. 608 77 60 27

**Debagoiena.** Neska lan bila: ume eta nagusiak zaindu edo taberna eta atariak garbitzen. Etxean bertan bizi izaten, egunez, orduka eta baita asteburuetan ere. 631 28 22 03

**Debagoiena.** Neska lanerako gertu. Sukalde laguntzaile, zerbitzari, nagusiak zaintzen edota garbitasunean lan egindakoa naiz. 663 40 92 67

**Debagoiena.** Orduka lan egingo nuke zerbitzari edo etxeko lanak egiten. 603 65 88 95

**Debagoiena.** Neska lanerako gertu: denetariko garbiketak, ume eta nagusiak zaindu etxean, ospitalean edota egoitzan, gidari, banatzaile eta abar. 696 32 13 69

**Debagoiena.** Neska lanerako gertu: nagusiak eta umeak zaindu, denetariko garbitasunak, baita ostalaritza eta baserrietan ere, edo tabernan sukaldari. Etxean bertan bizi izaten edo orduka. Esperientziaduna. Autoa daukat. 697 20 00 86

**Debagoiena.** Neska lanerako gertu: nagusiak zaindu, tabernan sukaldari, garbiketak eta abar. Autoa daukat. 636 11 23 40

**Debagoiena.** Neska orduka etxeko lanak egin eta nagusiak zaintzeko gertu. 943 25 05 72 edo 658 70 56 94

**Debagoiena.** Mutila lanerako gertu. Erreferentzia onak eta eskarmentua dut nagusiak zaintzen eta etxeko lanetan. Etxean bertan bizi izaten, egunez edo orduka. Baserrietan ere bai. 662 43 08 54

**Eraikuntzan** eta obra publikoetan lan egingo nuke. Deitu 628 74 12 13 telefonora.

**Ile-apaintzailea.** Ile-apaintzailea eta estetizista eskaintzen da lanerako arratsaldetan, 15:30etik aurrera, eta larunbatetan. Esperientzia handia. 605 72 64 43

**Ile-apaintzailea.** Ile-apaintzaile moduan lan egingo nuke arratsaldetan eta zapatutan egun osoz. 622 59 39 87

**Lanerako gertu.** Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan lizentziatutako gaztea lanerako gertu, Bergaran edo inguruan. 662 10 14 41

**Umeak zaintzeko prest.** Umeak eskolara eraman eta zaintzeko prest. 605 71 09 07

**Zaintza.** Gaixo eta nagusiak zainduko nituzke: etxean, ospitalera lagundu, paseoan lagundu eta abar. Baita baserrietan ere. Erizaintza eta ebakuntza-gela laguntzailea naiz. Gidabaimena daukat. 678 37 32 43

## 5. IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Arrasate.** 4. DBH-ko eta 6. mailako bi ikasleri eskola partikularrak emango dizkien norbait behar dugu. 677 52 48 34

### 502. EMAN

**Arrasate.** Esperientziadun psikopedagogo eta ingeles irakaslea eskola partikularrak emateko eskaintzen da, LMH eta DBHn. Banaka zein talde txikitan. Ingeles eskolak goizetan ere bai. 658 70 67 84

**Eskola partikularrak Arrasaten.** Eskola partikularrak emango nizkioke Lehen Hezkuntzako edota DBH mailetako ikasleari. Gaztetxoekin esperientziaduna. 24 urte. 676 58 96 74

## 7. ANIMALIAK

### 703. EMAN

**Akuriak.** Akuriak (kuiak) dauzkat opari emateko. Deitu 605 73 68 70 telefonora.

**Arratoi txakurrak.** Arratoi txakur txikiak, emeak, ematen dira opari. 669 89 55 74

**Katakumeak.** Bikatakume ematen dira opari. Uztailaren 22an jaiotakoak dira. Baserri edo txaletrako egokiak. 663 65 76 06

**Txakurkumeak opari.** Lau txakurkume ematen dira opari. Emeak. Hilabete eta erdi dute. 619 15 39 31

**Txakurkumeak.** Arratoi txakurkumeak ematen dira opari. 685 75 86 49

## 8. DENETARIK

### 801. SALDU

**Lursaila Aretxabaletan.** 1.132 metro koadro. Etxebizitza berrien atzealdean, polikiroldegitik gertu. 618 76 34 40

**Ohe artikulatuak.** Bi ohe artikulatu salgai. Egoera onean daude eta gutxi erabilita. Bergaran. 696 38 67 26

**Trastelekuak Oñatin.** Bi trasteleku saldu edo errentan ematen dira Ugarkaldeko lehenengo blokean. Bata 9,11 metro koadrokoa eta bestea 11,04 metro koadrokoa. Lurpeko garajeetan daude. 659 35 06 53 edo 656 74 29 49

### 802. EROSI

**Eskoriatza.** Lursaila erosiko nuke. Nahiago herritik gertu. Salgai baduzu deitu telefono honetara: 618 76 34 40

### 804. HARTU

**Eskola liburuak.** Arrasateko Institutuan, Batxilergo 1. mailako Gizarte adarrean erabiltzen diren bigarren eskuko liburuak hartuko nituzke. Ikasgaiak: ekonomia, matematika, gaztelera eta ingelesa. 696 13 91 22

**Eskola liburuak.** Oñatiko Elkar Hezi eskolan, 2. DBHn erabiltzen diren bigarren eskuko liburuak hartuko nituzke. Ikasgaiak: natur zientziak eta matematika. 696 13 91 22

### 805. TRUKATU

**Hizkuntza trukea.** Frantsesa praktikatu gura nuke eta trukean euskara edota gaztelania erakutsiko nizuke. Arrasatekoa naiz. Interesatuok deitu telefono honetara: 685 76 59 73

**Hizkuntza trukea.** Ingelesa praktikatu gura nuke eta trukean euskara edota gaztelania erakutsiko nizuke. Aretxabaletakoa naiz. Interesatuok deitu telefono honetara: 628 51 22 78

### 808. BESTELAKOAK

**Folk Musikaria.** Irlandar, eskoziar eta euskal musika herrikoia 'session' eran jotzeko musikari bila gabiltza (gitarra, trabesera, soinua, zeka instrumentuak, eta abar). Momentuz Arrasaten entsaiatzen gabiltzan hiru musikari gara, ondo pasatzeko asmoarekin. 645 73 12 16 edo 695 78 52 49

## 9. HARREMANAK

### 904. BESTELAKOAK

**Debagoienetik Gasteizera.** Goizetan Gasteizera joan behar dugun bi pertsona gara eta Debagoienetik autoz doan norbaiten bila gabiltza. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 666 74 14 33

**DISEINATZAILE GRAFIKOA**

Diseinatzaile Grafikoa behar da:

- Debagoiendarra.
- Esperientziaduna.

bidali CVa:cv@azk-taldea.com

azk

# MARITXU KAJOI 2014

Maritxutan elegante pasau!

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN



# ASTEA GOIENAN



GOIENA

## Donostiako Zinemaldia

Aurtengo Donostiako Zinemaldiak eman duena ikusi ahal izango da gaur, egubakoitza, eskainiko den erreportajean. Imanol Gallego kazetaria Donostian izan zen aktore eta zinegileekin eta bertan jasotakoak erakutsiko dira Zinemaldiaren saio berezian.

**'Donostiako Zinemaldia'**
Egubakoitza, 19:30



GOIENA

## Oñatiko jaiek ematen dutena, astelehenean

San Migel jaien ostean, Errosaixo jaiak ospatuko dira Oñatin asteburuan. Zapatuan Herri Eguna izango da eta feriaz gozatu ahal izango da. Astelehenean, berriz, kuadrillak mozorrotuta irtengo dira kalera. Hori guztia ikusi ahal izango da astelehenean.

**'Debagoiena zuzenean'**
Astelehena, 20:00

# GOIENA TELEBISTA

### EGUBAKOITZA, 3

**12:00** Debagoiena zuzenean
**12:30** Amaia DJ
**13:00** Ikusi irratia
**13:55** Zorion Agurrak
**14:00** Debagoiena zuzenean
**14:30** Berriak
**15:00** Amaia DJ
**15:30** Onein
**16:00** Debagoiena zuzenean
**16:30** Berriak
**17:00** Moda desfilea
**18:30** Berriak
**19:00** Amaia DJ
**19:30** Donostiako Zinemaldia
**20:00** Debagoiena zuzenean
**20:30** Berriak
**21:00** Debagoiena zuzenean
**21:30** Berriak
**22:00** Donostiako Zinemaldia
**22:30** Debagoiena zuzenean
**23:00** Berriak
**23:30** Amaia DJ
**00:00** Debagoiena zuzenean
**00:30** Berriak

### ZAPATUA, 4

**10:00** Amaia DJ
**10:30** Idemtitateak
**11:00** Debagoiena zuzenean
**12:00** Astea iruditan
**12:10** Donostiako Zinemaldia
**12:40** Euskal egitura
**13:10** Onein
**13:40** Ertzak
**14:30** Amaia DJ
**15:00** Debagoiena zuzenean
**16:00** Astea iruditan
**16:05** Donostiako Zinemaldia
**16:35** Ikusi irratia
**17:30** Amaia DJ
**18:00** Ertzak
**18:55** Zorion Agurrak
**19:00** Debagoiena zuzenean
**19:55** Astea iruditan
**20:00** Idemtitateak
**20:30** Amaia DJ
**21:00** Donostiako Zinemaldia
**21:30** Euskal egitura
**22:00** Debagoiena zuzenean
**22:55** Astea iruditan
**23:00** Donostiako Zinemaldia
**23:30** Amaia DJ

### DOMEKA, 5

**10:00** Debagoiena zuzenean
**10:55** Astea iruditan
**11:00** Euskal egitura
**11:35** Amaia DJ
**12:00** Ur eta lur
**12:55** Zorion Agurrak
**13:00** Debagoiena zuzenean
**13:55** Astea iruditan
**14:00** Ur eta lur
**14:45** Onein
**15:15** Ertzak
**16:00** Amaia DJ
**16:30** Debagoiena zuzenean
**17:25** Astea iruditan
**17:30** Ikusi irratia
**18:20** Ertzak
**19:05** Amaia DJ
**19:30** Donostiako Zinemaldia
**20:00** Euskal egitura
**20:30** Debagoiena zuzenean
**21:25** Astea iruditan
**21:30** Donostiako Zinemaldia
**22:00** Amaia DJ
**22:30** Kontzertua
**23:00** Debagoiena zuzenean
**23:55** Astea iruditan
**00:00** Donostiako Zinemaldia

### ASTELEHENA, 6

**12:00** Debagoiena zuzenean
**13:00** Idemtitateak
**13:30** Zorion Agurrak
**13:35** Debagoiena zuzenean
**14:30** Berriak
**15:00** Donostiako Zinemaldia
**15:30** Onein
**16:00** Debagoiena zuzenean
**16:30** Berriak
**17:00** Ertzak
**17:50** Idemtitateak
**18:25** Zorion Agurrak
**18:30** Berriak
**19:00** Amaia DJ
**19:30** Harmailatik
**20:00** Debagoiena zuzenean
**20:30** Berriak
**21:00** Debagoiena zuzenean
**21:30** Berriak
**22:00** Harmailatik
**22:30** Debagoiena zuzenean
**23:00** Berriak
**23:30** Idemtitateak
**23:55** Debagoiena zuzenean
**00:25** Berriak

### MARTITZENA, 7

**12:00** Debagoiena zuzenean
**12:30** Harmailatik
**13:00** Idemtitateak
**13:25** Zorion Agurrak
**14:00** Debagoiena zuzenean
**14:30** Berriak
**15:00** Harmailatik
**15:30** Onein
**15:55** Zorion Agurrak
**16:00** Debagoiena zuzenean
**16:30** Berriak
**17:00** Amaia DJ
**17:30** Ikusi irratia
**18:25** Zorion Agurrak
**18:30** Berriak
**19:00** Harmailatik
**19:30** Donostiako Zinemaldia
**20:00** Debagoiena zuzenean
**20:30** Berriak
**21:00** Debagoiena zuzenean
**21:30** Berriak
**22:00** Ertzak
**23:00** Debagoiena zuzenean
**23:30** Berriak
**23:30** Harmailatik
**00:00** Debagoiena zuzenean
**00:30** Berriak

### EGUAZTENA, 8

**12:00** Debagoiena zuzenean
**12:30** Ertzak
**13:25** Zorion Agurrak
**13:30** Harmailatik
**13:55** Zorion Agurrak
**14:00** Debagoiena zuzenean
**14:30** Berriak
**15:00** Euskal egitura
**15:30** Onein
**16:00** Debagoiena zuzenean
**16:30** Berriak
**17:00** Harmailatik
**17:30** Ikusi irratia
**18:25** Zorion Agurrak
**18:30** Berriak
**19:00** Ertzak
**19:55** Zorion Agurrak
**20:00** Debagoiena zuzenean
**20:30** Berriak
**21:00** Debagoiena zuzenean
**21:30** Berriak
**22:00** Donostiako Zinemaldia
**22:30** Debagoiena zuzenean
**23:00** Berriak
**23:30** Euskal egitura
**00:00** Debagoiena zuzenean
**00:30** Berriak

### EGUENA, 9

**12:00** Debagoiena zuzenean
**13:10** Ur eta lur
**13:55** Zorion Agurrak
**14:00** Debagoiena zuzenean
**14:30** Berriak
**15:00** Ikusi irratia
**15:55** Zorion Agurrak
**16:00** Debagoiena zuzenean
**16:30** Berriak
**17:00** Donostiako Zinemaldia
**18:00** Idemtitateak
**18:30** Berriak
**19:00** Euskal egitura
**19:30** Amaia DJ
**20:00** Debagoiena zuzenean
**20:30** Berriak
**21:00** Debagoiena zuzenean
**21:30** Berriak
**22:00** Amaia DJ
**22:30** Debagoiena zuzenean
**23:00** Berriak
**23:30** Amaia DJ
**00:00** Debagoiena zuzenean
**00:30** Berriak

# ARRASATE IRRATIA

## 'Uda giroan' irratsaioaren azken atala entzungai gaur

Gaur, egubakoitza, entzun ahal izango da Arrasate Irratian *Uda giroan* irratsaioaren azken atala, 10:00etan. Izan ere, astelehenetik aurrera lekukoa hartuko dio *Igo autobusera!* irratsaioak. 10:00etan izango da hori ere eta astelehenetik egubakoitzera bitartean eskainiko da.

## The Lookers-en kontzerturako sarrerak zozketan

Ziburukoa da The Lookers taldea, eta, *Kooltur ostegunak* egitasmoaren barruan, kontzertua eskainiko dute eguenean, hilak 9, gaztetxean. Bertara joateko sarreren zozketan parte hartu nahi izanez gero, deitu 943 25 05 05 telefonora edo, bestela, idatzi *irratia@goiena.com* helbidera. Zorte on!

# GUARDIAKO FARMAZIAK

| | | | |
|---|---|---|---|
| **ARRASATE** | | | |
| **Egubakoitza, 3** | M.FCA. AZKOAGA | Iturriotz 17 | 943 79 79 99 |
| **Zapatua, 4** | FERNANDEZ | Maisu Aranbarri kalea 1 | 943 79 22 26 |
| **Domeka, 5** | IRIZAR | Erguin 11 | 943 79 12 39 |
| **Astelehena, 6** | AMEZUA | Sta. Marina 32 | 943 79 09 74 |
| **Martitzena, 7** | ESPAÑOL MORALES | Araba Etorb., 14 | 943 79 18 65 |
| **Eguaztena, 8** | RUIZ | Nafarroa Etorb., 1 | 943 79 14 09 |
| **Eguena, 9** | ETXEBERRIA | Zarugalde kalea, 38 | 943 77 16 30 |
| **BERGARA** | | | |
| **Egubakoitza, 3** | ZABALA | Barrenkale 25 | 943 76 16 87 |
| **Zapatua, 4** | GUALLAR | San Antonio, 5 | 943 76 11 05 |
| **Domeka, 5** | GUALLAR | San Antonio, 5 | 943 76 11 05 |
| **Astelehena, 6** | ESTELLA | Matxiategi 5 | 943 76 19 63 |
| **Martitzena, 7** | MOZOS | Iparragirre 2 | 943 76 12 15 |
| **Eguaztena, 8** | URRUTIKOETXEA | Orixondo plaza 4 | 943 76 11 74 |
| **Eguena, 9** | ZABALA | Barrenkale 25 | 943 76 16 87 |
| **OÑATI** | | | |
| **Egubakoitza, 3** | ANDUAGA | San Lorentzo 3 | 943 78 21 16 |
| **Zapatua, 4** | JULDAIN | Kale Barria, 6 | 943 78 11 28 |
| **Domeka, 5** | JULDAIN | Kale Barria, 6 | 943 78 11 28 |
| **Astelehena, 6** | JULDAIN | Kale Barria, 6 | 943 78 11 28 |
| **Martitzena, 7** | ANDUAGA | San Lorentzo 3 | 943 78 21 16 |
| **Eguaztena, 8** | IGARTUA | Kale Zaharra 1 | 943 78 01 22 |
| **Eguena, 9** | IGARTUA | Kale Zaharra 1 | 943 78 01 22 |

**Farmazien eskuko telefonoetarako 2014 egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 25600 zenbakira.**
Gehienezko kostua 1,9 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera, Altiria TICek kudeatuta (www.altiria.es).

# EGURALDIA ASTEBURUAN

## DEBAGOIENA



**Max. 23º**
**Min. 13º**

**ZAPATUA, 4**
Egunsentian behe-hodei batzuk sor litezke, baina gainontzeko orduetan zerua nahiko garbi egongo da, eguzkitsu.



**Max. 23º**
**Min. 13º**

**DOMEKA, 5**
Tenperatura mantendu egingo da domekan. Hala ere, euria egiteko arriskua egongo da egunean zehar Debagoienean.

## EUSKAL HERRIA



Zapatuan giro eguzkitsua nagusituko da orokorrean Euskal Herrian. Domekan, berriz, euria egin dezake.

# GAZTE INFORMAZIOA

## BEKAK

**Hizkuntzak.** Eusko Jaurlaritza. 2015eko udan, atzerrian alemaneko, frantseseko eta ingeleseko ikastaroak egiteko 552 beka. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. eta 4. mailetan eta Batxilergoko 1. eta 2. mailetan matrikulatutako ikasleentzat. Epea: urriak 20.

## LANA

**Ingeniaria.** Errenteriako Udala. Ingeniari bat bitarteko funtzionario gisa hautatzeko deialdia argitaratu du, Ingurumena azpisaila berrantolatzeko. Baldintzak: ingeniari titulua, B gidabaimena, euskarako 4. HE. Epea: urriak 11.

**Dokumentalista.** UEU. Bilboko egoitzan lan egiteko, 6 hilabeteko ordezkapena betetzeko. Baldintzak: Bibliotekonomia, artxibistika edo dokumentazioa ikasketak zein alorrean lan-esperientzia izatea, informatika ezagutzak. Azken eguna izango da: urriak 8.

## IKASTAROAK

**Hainbat.** UEUko ikastaro eskaintza. *On line*, eta presentzialak Eibar eta Iruñean. Izen-emate epea zabalik dago dagoeneko. *www.ueu.org*.

## GAZTE EPAIMAHAIA

**Epaimahaia.** Donostiako Fantasiazko eta Beldurrezko Zinemaren Astean gazte epaimahaia izateko 150 plaza zozketatuko dira. Baldintzak: 18-30 urte, donostiarrek lehentasuna izango dute. Azken eguna: urriak 10.

## LEHIAKETAK

**Bidaia bideoak.** International Student. Bideoa grabatu behar da. Epea: Urriak 22.

**INFORMAZIO GEHIAGO NAHI IZANEZ GERO:**
**Arrasateko Gazte bulegoa:** Biteri etorbidea 3 | 943 25 20 65 | gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net
**Oñatiko Gazteendako Informazio Gunea:** Foruen plaza 4 | 943 71 82 57 | gazteinformazioa@oinati.net



## Nati Arrieta eta Jose Arantzabal

Nati Arrietak eta Jose Arantzabalek, urriaren 3an, 50 urte elkarrekin ezkonduta. "Ez da makala! Zorionak bixoi. Holaxe betetzen jarraitzia opa dotsuegu Josu, Nekane, Ramon, Iban, Mireia eta Lilik. Zorionak! Zapatuan ondo ospatu familixan".

## HILDAKOAK

**Lourdes Lopez de Armentia Belunza.** Aretxabaletan, irailaren 24an. 67 urte.

**Julio Sotos Fraile.** Aretxabaletan, irailaren 25ean.

**Lorentzo Olañeta Olañeta.** Bergaran, irailaren 26an. 88 urte.

**Julia Aspe Elejalde.** Aramaion, irailaren 26an. 78 urte.

**Maria Pilar Berroya Baltzategi.** Arrasaten, irailaren 27an. 86 urte.

**Juliana Ugarte Igartua.** Oñatin, irailaren 30ean. 85 urte.

**Maria Teresa Madrid Zaballos.** Oñatin, irailaren 30ean. 70 urte.

## ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05

**Egubakoitzean nahiz astelehenean argitaratzeko.**

Eskelaren prezioa: 130 euro.

Egubakoitzean eta astelehenean, bietan, argitaratuz gero, 175 euro.

**Goiena: irakurriena Debagoienean.**

**ASTE BARRUAN, BAITA ERE:**

**ARRASATE** Goiena: Otalora Lizentziaduna 31. 943 25 05 05.

**BERGARA** Jardun elkartea: Errotalde jauregia (kultura etxean). 943 76 08 19.

**OÑATI** Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.

**ELGETA** Ugari janari denda: Andra Mari plaza 2. 943 76 80 98.

**ANTZUOLA** Itzar liburu-denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.



ESKER ONA

## Maria Teresa Madrid Zaballos



2014ko irailaren 30ean hil zen, 70 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi
eskerrik asko, sendikoen izenean.

**Oñatin, 2014ko urriaren 3an.**

ESKER ONA

## Lourdes Lopez de Armentia Belunza



2014ko irailaren 24an hil zen, 67 urte zituela.

Eskerrak Aita Menniko langileei eta gure
elkartasuna bertako gaixo eta beren familiei.
—
*Gaixotasuna duintasunez eramaten jakin duzulako.*

**Aretxabaletan, 2014ko urriaren 3an.**

OROIGARRIA

## Julio Sotos Fraile



2014ko irailaren 25ean hil zen.

*Koinatu-koinatek eta ilobek
betiko izango zaitugu gogoan.*

**Juani, Rafa, Aitziber eta Imanol.
Aretxabaletan, 2014ko urriaren 3an.**

**OROILORE**
Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

*Hain une delikatu batek eskatzen duen errespetu, arreta eta ardura handienarekin, nire asmoa da familiari ahalik eta traturik beroena eta hurbilekoena ematea*

*Heriotza-asegurua baduzu: Ez onartu besterik gabe zure aseguru-konpainiak esaten dizun Hileta-Zerbitzua, jakin ezazu: NAHI DUZUN Hileta-Zerbitzua AUKERA DEZAKEZULA BETI.*



*maribi 617 44 21 55*
*BERGARA*

# ZINEMA

## ARRASATE

### AMAIA ANTZOKIA

**El niño**
Zapatua: 19:30, 22:00.
Domeka: 19:30.
Astelehena: 20:30.

**Aviones**
Zapatua eta domeka: 17:00.

## BERGARA

### ZABALOTEGI

**Noe**
Domeka: 19:30.

**Rio 2**
Domeka: 17:00.

## EIBAR

### ANTZOKIA

**Un viaje de diez metros**
Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.

**Guardianes de la galaxia**
Domeka: 17:00.

## GASTEIZ

### BOULEVARD

**Torrente 5: Operacion Eurovegas**
Egubakoitza eta zapatua: 23:15, 00:00, 00:45.
Zapatua eta domeka: 15:45, 16:30, 17:15.
Egubakoitzetik domekara: 18:00, 18:45, 19:30, 20:15, 21:00, 21:45, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 18:00, 18:45, 19:40, 20:15, 21:00, 21:50, 22:30.

**Ahi os quedais**
Egubakoitza eta zapatua: 00:50.
Zapatua eta domeka: 16:10.
Egubakoitzetik eguenera: 18:20, 20:30, 22:40.

**Frozen**
Zapatua eta domeka: 15:35.
Egubakoitzetik domekara: 17:45, 19:55.

**El corredor del laberinto**
Egubakoitza eta zapatua: 00:45.
Zapatua eta domeka: 15:30.
Egubakoitzetik eguenera: 17:45, 20:05, 22:25.

**La isla minima**
Egubakoitza eta zapatua: 00:15.
Zapatua eta domeka: 15:35.
Egubakoitzetik eguenera: 17:45, 19:55, 22:05.

**El niño**
Egubakoitza eta zapatua: 00:15.
Zapatua eta domeka: 16:00.
Egubakoitzetik eguenera: 18:45, 21:30.

**La entrega**
Egubakoitza eta zapatua: 00:20.
Egubakoitzetik eguenera: 20:00, 22:10.

**Un viaje de diez metros**
Egubakoitza eta zapatua: 00:35.
Egubakoitzetik domekara: 22:05.
Astelehenetik eguenera: 19:00.

**Lucy**
Egubakoitzetik eguenera: 20:10, 22:10.

**El hombre mas buscado**
Egubakoitzetik eguenera, martitzena izan ezik: 19:35.

**Libranos del mal**
Egubakoitzetik domekara: 00:35.
Egubakoitzetik domekara: 22:05.
Astelehena, eguaztena eta eguena: 19:35.

**La abeja Maya**
Egubakoitza: 17:30.
Zapatua eta domeka: 15:30.
Eguaztena: 17:30.

**Dragon Ball Z**
Zapatua: 17:30.

**Rio 2**
Domeka: 17:30.

**Operacion cacahuete**
Zapatua eta domeka: 15:50.

**Como entrenar a tu dragon**
Egubakoitzetik eguenera: 17:50.

**Si decido quedarme**
Zapatua eta domeka: 15:50.
Egubakoitzetik eguenera: 18:00.

**Asi en la tierra como en el infierno**
Egubakoitza eta zapatua: 00:10.

**Boyhood**
Astelehenetik eguenera: 21:30.

**Hercules**
Astelehena eta eguena: 17:30.

**Richard II Royal Shakespeari Company**
Martitzena: 20:00.

### FLORIDA

**Black Coal**
Egubakoitzetik domekara: 18:40, 20:40, 22:40.
Astelehenetik eguenera: 20:15, 22:30.

**Torrente 5: Operacion Eurovegas**
Egubakoitza: 16:30, 18:30, 20:30, 22:30.
Zapatua eta domeka: 12:00, 16:30, 18:30, 20:30, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

**La buena mentira**
Egubakoitzetik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

**El corredor del laberinto**
Egubakoitzetik domekara: 16:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30.

**La isla minima**
Egubakoitzetik domekara: 18:30, 20:30, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

**El niño**
Egubakoitza, eta astelehenetik eguenera: 17:15, 19:45.
Zapatua eta domeka: 12:00, 17:15, 19:45.

**Un viaje de diez metros**
Egubakoitzetik eguenera: 17:30, 22:30.

**La desaparicion de Eleanor Rigby**
Egubakoitzetik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

**La entrega**
Egubakoitzetik domekara: 16:30, 20:00, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 20:00, 22:30.

**Guardianes de la galaxia**
Zapatua eta domeka: 12:00.

**Operacion cacahuete (euskaraz)**
Zapatua eta domeka: 12:00.

**Como entrenar a tu dragon 2**
Zapatua eta domeka: 12:00.

KRITIKA

# Bizitza gure begien aurrean

**BOYHOOD** ★★★★★
**Zuzendaria:** Richard Linklater.
**Herrialdea:** AEB.
**Aktoreak:** Ellar Coltrane, Patricia Arquette, Ethan Hawke, Lorelei Linklater.

Richard Linklaterrek 12 urte eman ditu *Boyhood* filma egiteko. Urtero aste batzuetan filmatzen zuen pertsonaien eta aktoreen bilakaera azaltzeko. Askotan, zineman, pertsonaien garai desberdinak erakusteko, aktore bat baino gehiago erabili izan dira. Kasu honetan, pertsonaien eta aktoren arteko sinbiosia gertatzen da. Protagonista nagusia Mason 6 urteko mutila da. Honen heziketa prozesuaren eta bere familia guztiaren bilakaeraren lekuko izango gara. Masonen eta Samantharen gurasoak bananduta daude. Ama bizi berri bat hasten ahalegintzen da, seme-alaben heziketaz arduratzen den bitartean. Bikotekide berriak izango ditu eta seme-alabek aitaren bisitak izango dituzte.

Zuzendaria naturaltasun osoz hurbiltzen da familiaren bizitzara. Agertzen diren eszena guztiak gertukoak egiten zaizkigu, guk ere halako egoerak jasan ditugulako edo ezagunen bati halako gauzaren bat gertatu zaiolako: haurren arteko harremanak, familiaren hausturak kide guztiengan duen efektua, toki berri batera joateak dakarren aldaketa eta nahastea, familia berri bat sortzearen zailtasunak... Denbora pasatzen den neurrian izaera aldatzen dugu, bizi izateak pertsonengan higadura dakar, eta garai bakoitzak desberdinak dira. Haurtzarotik nerabe garai horretara ematen diren pausoak eta aldaketak maisutasunez azaltzen dira. Pertsonetan bilakaera gertatzen da, eta baita pertsonaien arteko harremanetan ere. Bizitzak momentu onak eta zailtasunez betetako uneak ditu, eta guk, ahal dugun moduan, bat-batean, aurrera jarraitzen saiatu behar dugu. Linklater ezin hobeto moldatzen da bizitzaren funtsa harrapatzeko. Ezer azpimarratu gabe, naturaltasunez eta freskotasun handiz, istorioari behar zuen tonua ematen dio. Gure begien aurrean bizitza zer den kontatzen du.

ANTONIO ZABALA



GOIENA

**BERGARA Organo Erromantikoaren nazioarteko zikloa**
Urriko hiru zapatutan San Marinako organoa izango da protagonista nagusia. Gaurko emanaldian, Paul Bersaitz kantariak, Joxan Goikoetxea akordeoi-jotzaileak eta Ana Belen Gartzia organo-jotzaileak egingo dute emanaldia.
Bihar, zapatua, Santa Marina parrokian, 20:00etan.



**OÑATI Herri Eguna**
Errosaixo jaiak ospatuko dituzte aste bukaeran Oñatin. Zapatuan, Herri Eguna izango da. Unibertsitate etorbidean azoka erraldoia ipiniko dute: askotariko erakusketa eta lehiaketak egingo dituzte. Foruen plazan sagardo dastatzea egongo da eta arratsaldean, herri kirolen erakustaldia, besteak beste.
Bihar, zapatua, Oñatiko kaleetan, 10:30ean.

# NON-ZER

URRIA 3
URRIA 9

**Emaiguzue zuen ekitaldien berri eguazteneko eguerdia baino lehen.**
Tel.: 943 25 05 05 | kultura@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

## MUSIKA

**OÑATI Rocka txosnagunean**
Banda Munizipalari Tributoa, Kalamidaz, Basorantz eta Barniz Por La Nariz taldeek egingo dute kontzertua.
Gaur, egubakoitza, txosna gunean, 21:00etan.

**ARRASATE Luhartz taldea**
80ko hamarkada ezkero plazarik plaza dabilen taldeak erromeria egingo du Maritxu Kajoi egunean.
Gaur, egubakoitza, Herriko plazan, 00:00etan.

**OÑATI Gozategi eta Ezten Giro**
Herri Eguna girotuko dute bi taldeek. Trikiti doinuak izango dira protagonista. 1990eko hamarkadan sortutako Gozategi taldeak *All stars 1992-2012* diskoa aurkeztuko du.
Bihar, zapatua, txosna gunean, 22:00etan.

**OÑATI The Surfin' Burritos**
Bartzelonako taldeak 50eko eta 60ko hamarkadetako musika du oinarri. Rocka oinarri hartuta, surf, garage eta beat musikak bateratzen dituzte. Talde klasikoen bertsioak ere egiten dituzte.
Etzi, domeka, Atzeko kalean, 19:00etan.

**ARRASATE Mozart oinarri hartuta**
Celline Voces Benavente sopranoak eta Josean Gartzia baritonoak egingo dute kontzertua, Joseba Candaudap eta Isabella Blezien pianistekin.
Etzi, domeka, Amaia antzokian, 19:30ean.

**OÑATI La Tarantella orkestra**
La Tarantella orkestrak dantzaldia egingo du Errosaixo egunean. Ikusle guztiendako piezak eskainiko dituzte, metalezko instrumentuekin pieza klasikoagoak eta gararaikideak nahastuta.
Etzi, domeka, Foruen plazan, 20:30ean eta 23:15ean.

**OÑATI Lisker**
Eibarko taldeak dantzaldia egingo du.
Urriaren 6an, Foruen plazan, 20:00etan.

## ERAKUSKETAK

**OÑATI 'Amets Kabi'**
Erakusketan parte hartzen duten eskultoreak dira: Ricardo Ugarte, Jose Ramon Anda, Jose Zugasti, Iñaki Ruiz de Egino, Iñigo Arregi, Iñaki Olazabal, Koldobika Jauregi eta Guillermo Olmo. Erakusketaren ordutegia da: egubakoitzetan eta zapatuetan, 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 19:00etara eta domeketan, 11:00etatik 14:00etara
Urriaren 19ra arte, Gandiaga Topagunean.

**ARETXABALETA Manuel Montiel**
Manuel Montielen argazki onenen bilduma ipini dute ikusgai. Astelehenetik zapatura arte egongo da zabalik erakusketa.
Urriaren 31ra arte, Arkupen.

**OÑATI Pintura erakusketa**
Are zabaleko XII. margo lehiaketako margolan irabazleak eta esanguratsuenak eta Oñatiko margo taldekoen pinturak daude ikusgai kultura etxeko erakusketa gelan, 18:00etatik 20:00etara.
Urriaren 12ra arte, kultura etxean.

**BERGARA Aire zabaleko lehiaketa**
Pintura lehiaketara aurkeztutako lan onenak daude ikusgai. Tartean, saria lortu zutenak.
Urriaren 5era arte, udaletxean, egunero.

**BERGARA Angela Silva**
Palentzian jaiotako artistak olio teknika erabiliz egindako lanak batu ditu Aroztegin, *Olatualdi* delako bilduman. Erakusketa zabalik egongo da martitzenetik domekara arte.
Urriaren 19era arte, Aroztegin.



GOIENA

**ANTZUOLA Gaztetxearen bigarren urteurrena**
Antzuolako gaztetxeak bi urte bete ditu eta arduradunek egitaraua osatu dute gaurko eta biharko: afaria, Bergarako Orkestrako hari taldearen emanaldia, umeendako jolasak, poteoa eta musika kontzertua, besteak beste.
Gaur, egubakoitza, eta bihar, zapatua, Antzuolan.


GOIENA

## ANTZERKIA

**ELGETA 'Molestias clownicas'**
Oihulari Klown taldeak antzezlan berria estreinatuko du, Virginia Imazen eskutik. Gazteleraz.
Bihar, zapatua, Espaloian, 20:00etan.

**ARETXABALETA 'Kondaira baten truke'**
Patata Tropikala taldeak elkarbanatzearen garrantziaz eta errespetuaz ohartzeko balio du. Kolorea, irudimena eta umorea bateratzen dituzte marruzbiko tarta egiten duten iratxoen istorioa kontatzeko. Sarrera, hiru euro.
Etzi, domeka, Zaraian, 17:00etan.

## BERTSOAK

**OÑATI Bertso jaialdia**
Amets Artzallus, Unai Agirre, Unai Iturriaga, Urko Egaña, Alaia Martin eta Maider Arregi bertsotan, eta Oñatiko Bertso Eskolako kideak gai-jartzaile lanetan.
Gaur, egubakoitza, Zubikoan, 22:30ean.

**ARAMAIO Bertso-afaria**
Aitor Mendiluze eta Anjel Mari Peñagarikano bertsotan.
Gaur, egubakoitza, Untzillan, iluntzean.

**ARAMAIO Arabako bertsolari txapelketa**
Paula Amilburu eta Peru Abarrategi aramaioarrek kanporaketak jokatuko dituzte Ozaetako Iduia jauregian.
Bihar, zapatua, Ozaetan, 16:30ean.

**OÑATI 'Balkoitik balkoira'**
Jexus Mari Irazuk eta Iker Zubeldiak egingo dute saioa Kale Zaharreko balkoi banatan.
Etzi, domeka, Kale Zaharrean, 20:30ean.

## OSPAKIZUNAK

**ARRASATE Maritxu Kajoi**
Soineko eta traje dotoreak kalera ateratzeko eguna. Maritxu Kajoi Komisiñoko kideek egun osoko egitaraua prestatu dute. Zein ote da aurtengo miraria?
Gaur, egubakoitza, egun osoan, Arrasaten

**ELGETA Kudeatzaile berrien jaia**
Kudeatzaile berrien inaugurazio ekitaldia. Zapatuan: umeendako ipuin kontaketa Belen Azkaraterekin (17:00); pintxo dastatzea (19:00); aurreskua eta bertsoak Antton Fernandezekin (19:45) eta *Noche de Boleros* emanaldia (23:00). Domekan: puzgarriak eta jolasak (10:30) eta *Burutik jota* ikuskizuna umeendako.
Gaur, egubakoitza, eta bihar, zapatua, Elgetan.

**BERGARA San Joxeperen kultura hamabostaldia**
Lehen ekitaldia egingo dute hilaren 8an. Asier Altuna *Kixi*-ren *Topeka*, *Artalde*, *Zela Trovke* eta *Soroa* film laburren emanaldia egingo dute. Ostean, zuzendariarekin sosaldia egingo dute.
Hilaren 8an, Miguel Altunan, 19:00etan.

## IRTEERA

**ELGETA Intxortako ibilbidea familiendako**
Urriaren 5ean eta 26an egingo dituzte Intxortako bisita gidatuak familiendako, euskaraz. Interesatuek aldez aurretik eman behar dute izena: 943-71 89 11 edo 943-71 63 64 telefonoan edo *turismo@debagoiena.net* helbidean. Gerra Zibilaren gainekoak kontatuko dituzte Intxortako lubakietara egindako bisitetan.
Etzi, domeka, Espaloian, 10:00etan.

## DEIA

**OÑATI Igerilekuak itxita urriaren 7ra arte**
Herriko jaiak aprobetxatu dituzte igerilekuan garbiketa egiteko. Era berean, konponketak egin dituzte putzu txikian. Urriaren 8an zabalduko dituzte.
Urriaren 8tik aurrera zabalik.

**DEBAGOIENA Gripearen kontrako txertoa**
Martxan dago gripearen kontrako txertoa hartzeko kanpaina. 65 urtetik gorakoek eta gaixotasun kronikoren bat dutenek har dezakete txertoa (diabetesa edo bihotzeko, biriketako eta giltzurrunetako gaixotasunak). Aurrez txanda hartu behar da familia-medikuarekin.
Debagoieneko osasun zentroetan.

**ARAMAIO Irakaslea behar dute dantza talderako**
Aramaioko Lagun Artean dantza taldean irakasle barik geratu dira. Ume zein helduei erakusketetarako dantzak zein plazako dantzak erakustea izango da haren betebeharra. Interesatuek dantza taldekoekin jarri beharko dute hartu-emanetan.
Dantza taldekoekin harremanetan ipini.

**ARAMAIO Pilates irakaslea**
Hirugarren urtez emango dituzte pilates eskolak Aramaion: martitzenetan eta eguenetan, 19:30etik 20:30era. Taldeak ia osatu dituzte, baina irakaslea falta zaie. Irakasle lanak egin gura dutenek 619 70 88 74 telefonora dei dezakete (Iñaki) edo mezua bidali *info@ariteko. com* helbidera. Lehenbailehen hasteko beharra dute.
Izen-ematea, aipatutako bideak erabiliz.

## IKASTAROAK

**ARRASATE Joskintza ikastaroa**
San Andres auzoko Emasan emakume elkartekoek urrian hasiko dute joskintza ikastaroa. Izena emateko, 606 04 94 81 telefono zenbakira deitu behar da (Cari).
Urrian, Emasan elkartean, 10:00etan.

**OÑATI Aisialdiko begirale ikastaroa**
Udalako Euskara eta Hezkuntza Departamentuak luzatu egin du aisialdiko begira ikastaroaren izena emateko epea: hilaren 9rate egin daiteke *www.oinati.eu* atarian. Udalak diruz lagundutako ikastaroa da: langabe edo ikasle direnei matrikularen %75 itzuliko diete eta gainerakoei %50. Ikastaroa hilaren 11n hasiko dute. Oñatin erroldatuta egotea ezinbestekoa da.
Urriaren 9ra arte , udalaren atarian.

**OÑATI Jabekuntza Eskola**
Andraitzek dantza afrikarrak, batukada feminista eta emakume zaintzaileendako tailerrak egingo ditu. Eteon izango dira eskolak. Oñatiko emakumeendako tailerrak dira. Gutxienez zortzi pertsona eta gehienez 25 onartuko dituzte. Informazio gehiago gura duenak Andraitzen bulegora jo dezake edo mezua bidali *a.jabekuntzaeskola@gmail.com* helbidera.
Andraitzen bulegoan edo aipatutako atarian.

## IRTEERA

**ARRASATE Palentziako mendietara**
Urriaren 11-12ko aste bukaeran mendi irteera egingo dute Besaidekoek Palentziako mendietara. Zapatu gaua Camporredondo de Alban pasako dute. Interesatuek urriaren 6an eman beharko dute izena Besaideren bulegoan, 19:30etik 20:30era arte.
Urriaren 6an, Besaideren bulegoan.

**BERGARA Estacas mendatera irteera**
Pol-Poleko beteranoek irteera egingo dute urriaren 12an Estacas mendatera. Interesatuek Pol-Polen bulegoan eman beharko dute izena. Autobusa 07:00etan irtengo da geltokitik.
Izen-ematea Pol-Polen bulegoan.

**ARRASATE Beteranoen martxa**
Urriaren 26an Gipuzkoako Mendizale Federazioaren 28. beteranoen martxa egingo dute Mutrikun. Arrasatetik autobusa joango da haraino. Interesatuek Besaideren bulegoan eman beharko dute izena hilaren 20an, 21ean eta 22an, 19:30etik 20:30era.
Aipatutako egunetan, Besaidere bulegoan.

ARETXABALETA Lanbide Eskola
Goi mailako Lanbide Heziketarako Berariazko Institutua

2014/2015 IKASTURTEA
IKASTAROAK DOHAINIK
LANGILE ETA LANGABETUENDAKO

PROFESIONALTASUN ZIURTAGIRI BERRIAK

LANGILE ETA LANGABETUEI ZUZENDUA (HOBETUZ)
KATALOGO MODULAR *BERRIA*

| ZIURTAGIRI PROFESIONALAK | PRESTAKUNTZA MODULOAK | PRESTAKUNTZA UNITATEAK | ORDUAK |
|---|---|---|---|
| (FMEH0409) URRADURAREN, ELEKTROHIGADURAREN ETA PROZEDURA BEREZIEN BIDEZKO MEKANIZAZIOA | MF0092_2 Urraduraren, elektrohigaduraren eta prozedura berezien bidezko mekanizazio-prozedurak | UF1006 Urraduraren, elektrohigaduraren eta prozedura berezien bidezko mekanizazio-prozesuen espezifikazio teknikoak | 60 |
| | | UF1007 Urraduraren, elektrohigaduraren eta prozedura berezien bidezko mekanizazio-prozesuen kostuen kalkulua | 40 |
| | MF0093_2 Urradura, elektrohigadura eta prozedura berezietako makina eta sistemen prestaketa eta programazioa | UF1008 Makinak, ekipoak eta erramintak prestatze urradura, elektrohigadura eta prozedura berezien bidezko mekanizazio-eragiketetan | 80 |
| | | UF1009 Urraduraren, elektrohigaduraren eta prozedura berezien bidez piezak egiteko CNCko programak egitea | 80 |
| (FMEC0110) ELEKTRODO ESTALIZKO ETA TIG BIDEZKO SOLDADURA | MF0099_2 Arku elektrikozko soldadura, estalitako elektrodoekin | UF1640 Planoen interpretazioa soldaduran | 60 |
| | | UF1622 Ebaketa-prozesuak eta ertzak prestatzea | 70 |
| | | UF1623 Altzairu karbonozko profil eta xaflaz estalitako elektrodo bidezko soldadura, errutilozko elektrodoak dituena | 90 |
| | | UF1624 Altzairu karbonozko profil eta xaflaz estalitako elektrodo bidezko soldadura, oinarrizko elektrodoak dituena | 90 |
| | | UF1625 Altzairu karbonoz, herdoilezinez eta beste material batzuez egindako egituraz estalitako elektrodo bidezko soldadura | 90 |
| (SSCS0208) MENPEKO PERTSONEI ARRETA SOZIOSANITARIOA EMATEA ERAKUNDE SOZIALETAN | MF1016_2 Esku-hartzeen antolamenduan laguntzea, erakunde eremuan | UF0127 Erakundeetan mendeko pertsonen harreran laguntzea | 30 |
| | | UF0128 Menpekotasun egoeran dauden pertsonen garbitasuna, mantenua eta antolaketa | 70 |
| | MF1017_2 Higiene eta elikagai-arretako esku-hartzeak erakundeetan | | 70 |
| | MF1018_2 Arreta sozio-sanitarioko esku-hartzeak erakundeetan | | 70 |
| | MF1019_2 Erakundeetan dauden mendeko pertsonekin komunikatzeko teknikak | UF0129 Menpeko pertsonen animazio soziala erakundeetan | 30 |
| | | UF0130 Erakundeetan dauden mendeko pertsonen eguneroko jarduerak mantentzea eta hobetzea | 50 |
| | | UF0131 Erakundeetan dauden mendeko pertsonekin komunikatzeko teknikak | 50 |

LANGABETUEI ZUZENDUA (LANBIDE) DOAN

**ZIURTAGIRI PROFESIONALA:** SSCS0108
Pertsonei etxean gizarte eta osasun-arreta ematea ............. **480 ordu**
**MODULO FORMATIBOA:** MF0092_2 Urraduraren, elektrohigaduraren eta prozedura berezien bidezko mekanizazio-prozedurak .... **100 ordu**

KATALOGO MODULARRETIK KANPO DOAN

| | | | |
|---|---|---|---|
| Garabietan lan egitea | 20 | Solid Edge (Konjuntoa) | 30 |
| Eskorgan lan egitea | 20 | AutoCad (basikoa) | 40 |
| Solid Edge (Pieza) | 30 | AutoCad (aurreratua) | 40 |
| Solid Edge (Txapa) | 30 | | |

lanbidez heziketa formación profesional

IDAZKARITZAKO ORDUTEGIA: Astelehenetik ostiralera: 08:00 - 18:00
ETXEBARRI AUZOA, Z/G / 22 Pk. 20550 ARETXABALETA (GIPUZKOA)
WWW.IARETXABALETA. COM - IA@IARETXABALETA.COM
T. 943 797 900 / 943 797 943 - F. 943 770 955

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
HOBETUZ
Europako Gizarte Funtsa




goiena“
2014-10-03

BUKATZEKO

# Debagoienetik Behobia-Donostiara

- Arteman Komunikazioa enpresak egin du, besteak beste, lasterketaren 50. aldiko bideoklipa
- Abestiaren letra Antzuolako bertsolariek idatzia da eta bideoklipean parte hartzen dute bi oñatiarrek

**MIREN ARREGI** | DEBAGOIENA

50 urte beteko ditu aurten Behobia-Donostia lasterketak, eta, data garrantzitsua izanik, Fortuna Kirol Elkarteak berezi egin gura du aurtengo azaroaren 9koa. Batetik, inoiz baino parte-hartze handiagoa baimenduko du antolakuntzak; 30.000 lagun inguruk hartuko dute parte. Gainera, 50. urteurren hori ospatu eta giroa berotzen joateko, hainbat ikus-entzunezko egin dituzte. Bada, hor sartzen da jokoan Debagoiena; izan ere, Aretxabaletako Arteman enpresak du horiek egiteko ardura. Astean aurkeztu dituzte 50. aldiko abestia eta bideoklipa, debagoiendarren parte-hartze handiarekin.

## Antzuolatik, hitzak

Besteak beste, abestiaren letra Antzuolako Sasibertsolaixek idatzia da: "Bertsozale elkarteak lehiaketa bat antolatu zuen duela bi urte, Fortuna Kirol Elkartearekin batera. Gaia, Behobia-Donostia lasterketa. Afari giroan idatzi genituen bertsoak eta epaimahaiari gustatu egin zitzaizkion", dio Hodei Letek, bertso eskolako kideak. Duela urte bi idatzitako bertsoa abesti bihurtu dute orain. Juantxo Zeberio musikariak izan du hori egiteko ardura eta grabazio estudioetan hainbat musikari ezagun elkartu dira. Beasaingo Pottoko estudioetan grabatu du abestia Juantxo Zeberioren Tenporak taldeak Fredy Pelaez teknikariarekin. Bertan parte hartu dute, besteak beste, Xabi Solanok, Xabi San Sebastianek, Jon Gurrutxagak eta Oreka TXk.



Yeray Varela, Behobia–Donostia lasterketako bideoklipeko une baten. | ARTEMAN



Tenpora taldea abestiaren grabaketan –Juantxo Zeberio, ezkerrean. | ARTEMAN

## Bideoklipa

Estudioetan grabatutako irudiez gain, Donostian ere grabatu ditu Artemanek bideoklipeko irudiak. "50. urteurrena ospatzeko, istorio bat sortu dugu, lasterketa belaunaldi desberdinen artekoa dela irudikatuta", dio Iker Barandiaranek, Artemaneko langileak. Hala, pertsona baten bizitza da ardatza, antxintxika, bere bizitzako etapa desberdinetan. Hain zuzen ere, bi oñatiarrek hartu dute parte bideo horretan: Yeray Varela korrikalariak gaztaroa irudikatzen du bideoklipean eta haren aitak, Ramon Varelak, helduaroa.

## 'Arin', Behobia Txikiko maskota

50. edizioko bideoez gain, Artemanek sortu du Behobia Txiki lasterketako maskota ere. Behobia-Donostiaren aurreko egunean ezagutuko dugu, Anoetan.

AZKEN BERBA



MIKEL IRIZAR

## Maritxu eta txikiteoa

Bete dira berriro Arrasateko kaleak jende dotorez. Neskak bereziki apaindu dira soineko tirantedunez eta orrazkera fantasiazkoez; mutilak oro har zozoago, ohiko traje eta gorbata ilunekin. Lehertu da dotorezia alkoholikoaren festa.

Gero eta goizago lehertu ere. Urte luzez iluntzean hasten zen festa afalaurreko txikiteoarekin, eta afalondoan luzatzen gosalordura arte. Azken boladan, ordea, bazkalaurrean hasten da, seguruenik ikasle kanpotarren eraginez. Gaupasa, hori bai, ezin barkatu.

Jai ikusgarria nahasten da zurrutaren apologiarekin. Dotore bai hasieran, baina jaia aurrera alkoholak gupida gabe zabartzen ditu soineko, gorbata eta orrazkerak. Kontua da denbora luzez ahal beste alkohol edatea, botilak erosi eta lurrean jarrita egiten den kale-zurrutean bezala. Zerikusi handirik ez jaiaren jatorriko txikiteo azkar, mugatu eta eguneroakoarekin.

Ze pintxo-poteak bere eragina izan du, baina eguneroko txikiteoa azkenetan da. Esaterako, zenbatek daki Arrasaten zer zen txikiteroen *buelta karlista?* Eta gaurkora itzulita, nork esango zuen txikiteroek sortutako jaiak iraungo zuenik txikiteoa ia desagertu eta gero?

